

Ikerketa
soziolinguistikoa

Trebiñuko enklabea

2022



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Ikerketa
soziolinguistikoa

Trebiñuko enklabea

2022

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>>.

Argitaraldia: 1.a, 2023ko uztaila

Ale-kopurua: 310 ale

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta
maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Printhaus, S.L.

ISBN: 978-84-457-3709-5

Legezko Gordailua: LG G 509-2023

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.	
Bingen Zupiria Gorostidi, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua	7
1. Planteamendua eta alderdi metodologikoak	11
1.1. Planteamendua	11
1.2. Alderdi metodologikoak	14
1.2.1. <i>Teknika</i>	14
1.2.2. <i>Lan-faseak</i>	16
2. Karakterizazio soziodemografikoa	19
2.1. Sexua eta adina	19
2.2. Jaioterria	21
2.3. Jarduerarekiko harremana, lanbidea eta lantokia	23
2.3.1. <i>Jarduerarekiko harremana</i>	23
2.3.2. <i>Lanbidea</i>	26
2.3.3. <i>Lantokia</i>	28
2.4. Ikasketa-maila, ikastokia eta hizkuntza-eredua	30
2.4.1. <i>Ikasketa-maila</i>	30
2.4.2. <i>Ikasleak non ari diren ikasten</i>	33
2.4.3. <i>Oinarrizko ikasketak zein hizkuntza-eredutan egin dituzten</i>	37
2.5. Euskararen ikasketa hezkuntza-sistemaz aparte (ikastetxetik kanpo)	41

3. Euskara-gaitasuna	45
3.1. Hizkuntza-trebetasunak, biztanle euskaldunak eta euskaldun hartzaileak	45
3.2. Euskara-gaitasuna	51
3.3. Lehen hizkuntza: haurtzaroan 3 urtera arte nagusiki erabili den hizkuntza	56
3.4. Euskararen ikasketa: familia bidezko transmisioa edo hezkuntza bidezkoa	61
3.5. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	65
4. Euskararen erabilera	75
4.1. Euskararen erabilera eguneroko bizitzan	75
4.2. Euskararen ezagutza euskaldunen harreman-sarean	79
4.3. Euskaldunen hizkuntza-gaitasun erlatiboa eta euskararen erabilera neba-arrebekin eta lagunekin	81
4.4. Euskararen erabilera sare sozialetan	88
5. Euskararen sustapenaren inguruko iritziak	95
5.1. Euskararen inguruko interesa	95
5.2. Haurrek zein hizkuntza-eredutan ikasi behar luketen	103
5.3. Zein hizkuntzatan behar lukeen irakaskuntzak Trebiñuko eskola publikoan, eta zein hizkuntza hautatuko luketen biztanleek	109
5.3.1. Zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen Trebiñuko eskola publikoan	109
5.3.2. Trebiñuko eskolan ikasteko hautatuko litzatekeen hizkuntza	116
5.4. Haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak zer hizkuntzatan egin beharko liratekeen Trebiñun	122
5.5. Trebiñuko enklabeko kaleetako errotuluak zer hizkuntzatan jarri behar lituzketen	130
5.6. Euskara sustatzeko udalek egiten duten lanaren balorazioa	136
6. Sintesi soziolinguistikoa	145
6.1. Euskararen ikasketa eta ezagutza	145
6.2. Euskararen erabilera	147
6.3. Euskararen inguruko interesa eta iritziak	150

HITZAURREA

Bingen Zupiria Gorostidi

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

Euskararen egoera soziolinguistikoaren azterketak hiru hamarkada ditu, dagoeneko. 1991an egin zen lehen inkesta soziolinguistiko hartatik zazpigarren inkesta aurkeztu berri dugu urte honetan, 2021eko datuekin.

Mapa soziolinguistikoarekin batera, euskararen egoeraren berri ematen digun ikerketa kuantitatibo baliagarriena da hizkuntza politika eremuan gabiltzan ikertzaile, eragile nahiz euskaltzaleentzat. Euskararen ezagutza, euskararen erabilera eta euskarari buruzko jarreraren bilakaeraren berri izateko tresna esanguratsua da hizkuntza politikarentzat. Eta, zorionez, bilakaeraren goranzko bidea egiten ari da Euskal Autonomia Erkidegoan. Hezkuntzak egindako ibilbidea, helduen euskalduntzearen ahalegina, eta modu berezitan, gizartean euskara indarberritzearen alde egindako apustuaren ondorioa da hau guztia, inondik ere.

XXI. mendeak erronka berriak ekarriak ditu. Gizarte modernoaren kontakizun atala igarota dugula, elementu globalen eta lokalen arteko aurrera-atzera mugimenduan globalizazioa ari da indar hartzen. Euskararen eremu deitzen diogun esparru sozio-geografikoa gero eta koloretsuagoa da. Migrazio mugimendu askotarikoek, munduarekiko eraikitzen ari garen harremanak eta ingurune digitalak, besteak beste, erantsi diote gure eremuari kolore aniztasuna.

Horretan garela, eta euskararen eremuaz ari naizelarik, Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitatea ez ezik, Nafarroakoa eta Iparraldekoa aztertu eta aurkezten ditugu elkarrekin. Eta esku artean dugun azterlan hau ere bide beretik egindako lana dugu. 2002an, 2007an eta 2012an egindako azterlanei jarraipena emanez, Trebiñuko enklabea osatzen duten bi udalerrietako euskararen egoera aztertzen jarraitzen dugu: euskara ezagutza, lehen hizkuntza eta erabilera, eta euskara sustatzeari buruzko jarrera zein iritziak zein diren galdetu dugu etxex etxe.

Nire esker onak dira Trebiñu eta Argantzongo alkateentzat, euskara teknikariarentzat, eta oro har, bertako biztanle guztientzat. Beraien laguntza eta aldeko jarrerari esker erraztu zaigu lana eta ikerketa aurrera eraman ahal izan dugu.

Estatistika Institutu Nazionalak 2021ean emandako datuen arabera, 1.929 biztanle daude errolatuta enklabearen. Horien hiru laurden bizi da Trebiñuko konderrian eta beste laurdena, berriz, Argantzonen.

Eta azterlan honen emaitzei begira jarrita, euskararen bilakaerak Trebiñuko enklabearen ere goranzko joera duela ikus daiteke. Trebiñuko enklabearen bi urte edo gehiagoko biztanleen herena da euskalduna (ondo edo nahiko ondo hitz egiten du euskaraz), eta %12 euskaldun hartzailea (euskara ulertzen du). 2002an %11 ziren euskaldunak eta handik bi hamarkadara % 30,6koa da euskaldunen portzentajea. Ezagutzen izan den hazkundeak zuzenean eragin du erabilera datuetan ere, azken hamar urte hauetan, euskararen erabilera, neurri handi edo txikiagoan hazi egin baita: 3,3 puntu areagotu da etxean, lagunekin berdintzen mantendu da eta lanaren esparruan 5,9 puntu igo. Euskara ikasi eta erabiltzen den gero eta esparru gehiago ari da sortzen Trebiñuko enklabearen. Familia transmisioaz harago, eremu formalak toki handia hartu du, beraz, haurren hizkuntza izateaz gain, helduen hizkuntza ere bada toki esanguratsu batzuetan.

Euskara sustatzearen aldekoitasunaz galdetuta, berdintsu. Trebiñuko enklabearen biztanleek duten euskararen aldekoitasuna ere handituz doa urterik urte. Azken hamar urte hauetan, 10,4 puntuko igoera izan da aldagai honetan. Pozik egoteko datuak etorri zaizkigu Trebiñuko enklabetik.

Datu orokor hauen xehetasunak azterlan honetan aletuta daude. Egungo datuak eta bilakaera soziolinguistikoaren irakurketa. Biak ala biak txosten honetan jasota. Trebiñuko enklabearen biztanle eta arduradunentzat, eta, oro har, euskararen lurraldeari begira jarrita gauden guztiontzat izan bitez lanean jarraitzeko bihotz altxagarri.

IKERKETA
SOZIOLINGUISTIKOA

Trebiñuko enklabea

2022

1.

Planteamendua eta alderdi metodologikoak

1.1. PLANTEAMENDUA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren enkarguz Siadecok egin-dako ikerketa honek bi helburu nagusi ditu: Trebiñuko enklabea¹ osatzen duten bi udalerrietan bizi diren pertsonen euskararen ezagutza, lehen hizkuntza eta euskararen erabilera aztertzea; eta biztanleek euskararen sustapenaren inguruan dituzten iritziak jasotzea.

2002, 2007 eta 2012 urteetan egin zirenen antzekoa da honako ikerketa hau, beraz, lantzen diren gaien inguruan eboluzio-ikuspegia edo diakronikoa ere landu ahal izango da.

Trebiñuko enklabea Burgostik 100 kilometrora dago, eta Gasteiztik 20 kilometrora baino ez, Burgosko probintzian (Gaztela eta Leon), baina Arabako lurraldeak (Euskadi) erabat inguratuta. Ebro eskualdean eta Miranda de Ebroko barruti judizialean dago.

¹ Ziur aski, Espainiako Estatuko enklaberik ospetsuena izango da. Burgos zati bat, Arabako probintzian kokatua. Geografiak termino zehatzak ditu beste administrazio politiko batez inguratuta dauden honelako eremuetarako. Enklabeak dira, edo exklabeak, ikuspuntuaren arabera. Trebiñu Arabako enklabe bat da, bere lurraldean kokatua dagoelako. Burgosentzat, berriz, exklabe bat da, bere probintzia-mugetatik kanpo dagoen eremu propio bat baita. Nolanahi ere, gehien erabiltzen den terminoa enklabea da.

Trebiñuko enklabea bi udalerrik osatzen dute: Trebiñuko Konderriak, 260,71 km²-rekin, eta Argantzona, 18,87 km² -rekin. Guztira 279,58 km²-ko azalera hartzen du enklabeak.

Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) 2021eko datuen arabera, enklabeak 1929 biztanle ditu errolatuta. Horien hiru laurdenak (% 73,4) Trebiñuko konderrian bizi dira (1416 biztanle) eta gainerakoak (513 biztanle) Argantzonen.

1. TAULA: Trebiñuko enklabearen errolatuta dagoen biztanleriaren banaketa, udalerriaren eta sexuaren arabera

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	GUZTIRA	
			Kop.	%
Trebiñuko konderria	778	638	1416	73,4
Argantzona	278	235	513	26,6
GUZTIRA	1056	873	1929	100,0

Iturria: INE 2021. Siadecok landua, 2022

Errolatuta dauden pertsonen gain, enklabearen bizi den baina errolatuta ez dagoen biztanle-multzoko handi bat ere badago.

Trebiñuko konderrian hainbat administrazio-batzar edo herri daude.

Udalerriak	Administrazio-batzar-herriak eta pedaniak
Trebiñuko konderria	Agilu, Axarte, Albaita, Añastro, Araiko, Arana, Argote, Armentia Trebiñu, Arrieta, Askartza Trebiñu, Baxauri, Burgeta, Bustu, Caricedo, Kutxu, Dordoniz, Doroñu, Franku, Fuidio, Golernio, Grandival, Imiruri, Lañu, Marauri, Meana, Mesantza, Moraza, Moskator, Morgas, Obekuri, Ozilla eta Ladrera, Ogeta, Ozana, Pangua, Pariza, Pedruzo, Samiano, San Esteban, San Martin Galbarin, Sanmartinzar, San Vicentejo, Saratsu, Saseta, Taravero-San Andrés, Torre, Trebiñu, Uzkio, Billa, Zurbitu
Argantzona	Billa Oka

Iturria: Argantzongo eta Trebiñuko konderriko udalak. Siadeco, 2022

Azterlanaren edukiari dagokionez, planteamenduari eta alderdi metodologikoei buruzko kapituluaz gain, lau gai nagusitan zentratzen da. Ondorioen azken kapituluaz, edukiak ahalik eta gehien laburbiltzeko saiakera egin da. Beraz:

- Lehenengoan, enklabeko biztanleen KARAKTERIZAZIO SOZIODEMOGRAFIKOAREKIN lotutako oinarritzko aldagaien azterketa egin da: sexua eta adina, jaioterria, jarduerarekiko harremana eta lanbidea, ikasketa-maila, ikasketak egin zituzten tokia, ikasketetako hizkuntza-eredua eta euskararen presentzia eredu horietan, euskararen ikasketa hezkuntza araututik kanpo.
- Bigarrenean, Trebiñuko enklabeko biztanleen GAITASUN LINGUISTIKOA aztertu dugu, zehatzago: hizkuntza-trebetasunak (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi), biztanle euskaldunak eta euskaldun hartzaileak, euskara-gaitasuna aldagai ezberdinen arabera, lehen hizkuntza (edo haurtzaroko lehen hizkuntza, hiru urtera arte), euskararen ikasketa-mota: familia bidezko transmisioa edo hezkuntza bidezkoa, eta euskaraz edo gaztelaniaz adierazteko erraztasuna edo hizkuntza-gaitasun erlatiboa.
- Hirugarrenean, EUSKARAREN ERABILERAekin lotutako gaiak: hizkuntza horren erabilera eguneroko bizitzan (etxean, lagunekin, lantokian, ikaskideekin... etab.), euskararen ezagutza pertsona euskaldunen harreman-sarean, biztanleriaren euskara ezagutza-maila eta euskararen erabilera neba-arrebekin eta lagunekin; eta, azkenik, euskararen erabilera sare sozialetan.
- Eta, azkenik, laugarrenean, Trebiñuko enklabeko 15 urtetik gorako biztanleen iritzien inguruko IRITZI-ANALISIA egin dugu, zenbait gairen inguruan: euskararekiko interes-maila, seme-alaben ikasketetako hizkuntza-eredua, Trebiñuko eskola publikoko hizkuntza (eta hautatuko litzatekeena), haurrentzako eskolaz kanpoko jardueren eta ludikoen hizkuntza, kaleen errotulazioetako hizkuntza, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko udalen lanaren inguruko balorazioa.

Gaikako azterketa horiek egin ondoren, azterlanaren ondorio nagusiak azaldu ditugu, oinarritzko sintesi gisa.

Txostenean zehar, bilakaera-azterketa bat egiten da, egindako inkesta-prozesuaren emaitzak konparatuz, 2012an² egindakoarekin, batez ere. Hala ere, aintzat hartu behar da oso modu ezberdinean garatu zirela bi operazio horiek, urte hartan bi udalerrietako erroldetan inskribatutako pertsona guztien banakako informazioa baitzegoen esku-ra. 2022an, berriz, Siadecok ez zuen informazio horretara sarbiderik izan. Aurrerago azalduko dugun bezala, diferentzia horrek azken eragiketa honetako prozesu metodologikoan eragin du, neurri batean.

2 2011ko Udal Erroldan 2 urte edo gehiagoko 1930 pertsona zeuden inskribatuta Trebiñuko enklabearen, eta 1.421en inguruko informazioa biltzea lortu zen. Gainera, erroldatuta ez zeuden arren, enklabearen bizi ohi ziren 375 pertsonaren inguruko informazioa ere bildu zen. Beraz, 1.796 pertsonari buruzko informazioa bildu zen guztira.

1.2. ALDERDI METODOLOGIKOAK

1.2.1. TEKNIKA

Proiektu honek egitura metodologiko bat behar izan du, ondo uztartzeko azterlanaren helburuei eta edukiari³ buruzko zeharkako informazioa edo dokumentala lortzea eta aztertzea, batetik, eta informazio zuzen berria sortzea, bestetik, Trebiñuko enklabe-ko etxeetan inkestatze-prozesu bat eginez, horretarako. Inkesta horren bidez, enklabe-ko bizi diren 2 urteko edo gehiagoko⁴ biztanle guztien inguruko datuak jaso dira, erroldatuta daudenenak eta ez daudenenak ere bai. Izan ere, enklabe-ko bizi den biztanle-talde handi bat ez dago bertan erroldatua. Hori guztia, kontuan hartuz ez dugu- la enklabea osatzen duten bi udalerrien inguruko errolda-daturik.

Trebiñuko enklabeari buruzko zuzeneko informazio soziolinguistiko berria sortzeko erabili dugun teknika nagusia etxeko inkesta pertsonala da, galdetegi itxi eta egituratu batekin. Inkesta horretan, etxeko kide batek, bi urte edo gehiagoko etxeko kide guztiei buruzko informazioa eman dio inkestagileari. Horretarako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (aurrerantzean, HPS) emandako galdetegi bat erabili da.

Beraz, enklabe-ko bi udalerrietan dauden etxebizitzak arakatzeko ahalegin handi bat egin zen landa-lanean. 1.254 etxebizitza bisitatu ziren. Horietatik, 127 etxebizitza hutsak ziren, 144 bigarren etxebizitzak eta 61 etxebizitzatan ez zen informazioa emango zuen inor aurkitu.

922 etxebizitzatako pertsona informatzaileak lortu genituen (bisitatu genituenen % 72,5). Horietatik, 131tan inkesta erantzuteari uko egin zioten (beraz, erantzun ez duten etxebizitzen tasa % 14,2koa da bakarrik). Eta 791 etxebizitzatan, bi urte edo gehiagoko 1.925 pertsonaren inguruko informazioa jaso genuen⁵. Horietatik, 1.314 Trebiñuko konderrian bizi dira (% 68,3) eta gainerako 611 Argantzonen.

3 Informazio-mota horren artean, garrantzi berezia dute enklabe-ko egin diren ikerketa soziolinguistikoek, batez ere azkenekoak, 2012koak.

4 Inkesta soziolinguistikoan ez ditugu bi urtetik beherakoak kontuan hartu, ez dutelako hizkuntza-rik hitz egiten edo zailtasunez egiten dutelako (Inkestatze-prozesuan zehar bi urtetik beherako 29 ume detektatu genituen, hala ere).

5 2012 urtearekin alderatuz, azken operazio honetan 129 pertsona gehiagoren inguruko informazioa jaso da.

2. TAULA: Landa-laneko prozesuan informazioa lortu den etxebizitzaren eta biztanleriaren miaketaren emaitza

	Trebiñuko konderria	Argantzón	Guztira
Bisitatuak etxebizitzak	864	390	1.254
Inkestak egin ziren etxebizitzak	529	262	791
Inkestak egin ez ziren etxebizitzak eta arrazoiak:	335	128	463
• Etxebizitza hutsak	67	60	127
• Bigarren etxebizitzak	127	17	144
• Erantzuteari uko egin zioten etxebizitzak	90	41	131
• Inor topatu ezin izan den etxebizitzak	32	4	36
• Ez elkarriketatzeko "bestelako arrazoiak"	19	6	25
Informazioa jaso den bi urte eta gehiagoko biztanleria	1.314	611	1.925

Iturria: Siadeco, 2022.

Bi urteko edo gehiagoko 1.925 biztanleri buruz jaso dugu informazioa. Horietatik 1.109 Trebiñuko enklabearen erroldatuta daude (guztien % 57,6); zehazki, 735 Trebiñuko konderrian eta 374 Argantzonen; gainerakoentzat (816) ohiko bizilekua da Trebiñu, baina ez daude erroldatuta (579 Trebiñun bizi dira eta 237 Argantzonen).

Enklabearen erroldatuta dauden bi urteko edo gehiagoko pertsonen inguruan jasotako informazioa soilik kontuan hartuz, eta erroldatutako adin horretako pertsonen unibertsoaren lagin adierazgarri bat osatuko luketela suposatuz (aldez aurretik probabilitate-lagin-diseinurik egon ez bazen ere), errore-marjina estatistikoa $\pm$ % 1,92koa izango litzateke.

Nolanahi ere, enklabearen errealitate soziolinguiistikoa sakon ezagutzeko eta aztertzeko, funtsezkoa iruditzen zaigu izatezko biztanleria osoa aztertzea, hau da, enklabearen bizi ohi den biztanleria, bertan erroldatuta egon ala ez.

Informazioa jasotzeko prozesua edo landa-lana 2022. urteko ekaina eta uztaila bitartean burutu zen.

Ondorengo pertsona kopuruen inguruko informazioa jaso da, Argantzonen eta Trebiñuko konderrian, generoaren, adinaren eta erroldatzearen arabera.

3. TAULA: Pertsona inkestatuaren banaketa generoaren, adin-taldearen eta errolatzearen arabera

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Generoa						
Gizonezkoa	656	49,9	320	52,4	976	50,7
Emakumezkoa	652	49,6	291	47,6	943	49,0
Ed/Ee	6	0,5	0	0,0	6	0,3
Adina						
2-15 urte	193	14,7	91	14,9	284	14,8
16-24 urte	86	6,5	48	7,9	134	7,0
25-34 urte	87	6,6	68	11,1	155	8,1
35-49 urte	316	24,0	167	27,3	483	25,1
50-64 urte	326	24,8	125	20,5	451	23,4
>64 urte	306	23,3	112	18,3	418	21,7
Errolatzea						
Bai	735	55,9	374	61,2	1109	57,6
Ez	545	41,5	233	38,1	778	40,4
Ed/Ee	34	2,6	4	0,7	38	2,0
Pertsonak guztira	1314	100,0	611	100,0	1925	100,0
		68,3		31,7		100,0
Etxebizitzak guztira	529	66,9	262	33,1	791	100,0

Iturria: Siadeco, 2022.

1.2.2. LAN-FASEAK

Proiektu honen metodologia-prozesuaren fase eta zeregin nagusiak honako hauek izan ziren:

- Eragiketaren hasierako plangintza, orokorra eta zehatza: proiektuaren zeregin guztiak planifikatu ziren, baliabide teknikoaren eta giza-baliabidearen banaketarekin, bai eta denbora-periodifikazioarekin ere. Une horretan, eragiketa osoaren txosten metodologikoa osatu zen, eta Siadeco bulego presentziala eta birtuala eratu zen, proiektu osorako erreferentzia izan zena. Bulego hori ezinbesteko

laguntza izan zen landa-lanaren fasearen aurreko zeregin guztiak, landa-lana bera eta lortutako informazioaren tratamenduarekin, interpretazioarekin eta azterketarekin lotutako gai guztiak kudeatzeko.

- Lanaren Jarraipen Batzorde bat eratzea. Alde batetik, proiektua gauzatzeko ardura zuen Siadecoko ordezkariak teknikoak eta, bestetik, HPSko ordezkariak osatutakoa. Horrela, argi eta garbi ezarri ziren proiektuaren garapen-prozesuan zehar elkar komunikatu behar zuten solaskideak, hasieratik, bi erakundeen arteko komunikazio-fluxua erraztuz.
- Dagoen informazio dokumental guztia biltzea eta aztertzea, eragiketa egiteko ahalik eta eraginkortasun handienekoa. Informazio horren artean, aurreko ikerketa soziolinguistikoekin zuzenean edo zeharka lotutakoa nabarmenduko genuke (2002koa, 2007koa eta 2012koa). Zeharkako dokumentazioa eskuratzeari dagokionez, azpimarratu behar dugu 2012ko inkesta egin zenean ez bezala, ezin izan genuela enklabeko familien eta biztanleen errolda-informazioa eskuratu (Ikergai den unibertsoaren zati baten sondeo-oinarri egoki bat edukitzeko, baita harekin kontaktatzeko modu ezberdinen berri izateko ere. Horrek, neurri batean, landa-lana aurrera eramatea zaildu egin zuen. Izan ere, ikergai den unibertsoa lokalizatzeko enklabeko etxebizitza guztiak arakatu behar izan dira, kalez kale, modu zorrotz eta errepikakorrean, Trebiñuko enklabe-ko bi udalerrietan eta horietako bakoitzeko herri eta auzoetan).
- Operazioan erabili beharreko galdetegiaren (HPSk emandakoa) azterketa: hura testatzea eta baliozkotzea, aldaketak eta hobekuntzak txertatuz (euskaraz nahiz gaztelaniaz). 2002, 2007 eta 2012 urteetan erabilitakoaren antzekoa da galdetegia, eta HPSk bost urtero egiten duen Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoan egiten dituen galdera nagusiak jasotzen ditu. Gainera, EAEko eta Nafarroako Biztanleen Zentsuetan egiten diren galderekin bateragarriak dira.
- Landa-lan sarea edo inkestagile eta ikuskari lantaldea osatzea eta prestatzea. Formazio-faserako inkestatze-gida bat osatu zen, beharrezkoak ziren jarraibide guztiekin.
- Etxeko informatzaile bati landa-lana edo etxeko inkesta pertsonala egitea, dagozkion jarraipen-sistemekin (era guztietako intzidentzien erregistroa), kontrolekin eta ikuskatzeekin. Horretarako, aurrez aurreko bisitak egin ziren enklabeko etxebizitza guztietan. Lehenago esan dugun bezala, landa-lan honetan, enklabeen erroldatuta ez dauden arren, bertan bizi ohi diren pertsonak ere inkestatu ziren.
- Elkarrikketa bidezko inkestatze-prozesuan jaso zen informazioaren grabazio informatikoa egiteko aplikazioa sortzea. Galdetegiaren egitura kontuan hartuta, datuak sartzeko unean berean akatsak detektatzen zituen aplikazio ho-

rrek, eta sartutako iragazkiak, edit-ak edo baldintza logikoak egiaztatzen zituena, baita aldagai barnekoak eta aldagai artekoak ere, erantzun gabeak edo missing balioak egozteko aukerarekin.

- Inkestatze-prozesuaren bidez jasotako informazioaren lanketa (arazketak eta baliozkotzeak egitea...) eta haren digitalizazioa (grabazio informatikoa), datu-oinarriak sortzeko.
- Informazioaren esplorazio estatistikoa, eta taulak, grafikoak, eskemak, fluxogramak... etab. sortzea (Horretarako, estatistika deskriptiboan oinarritutako ustiaketa-plan bat landu zen. Ikerketa estatistikoan erabili genuen oinarritzko software-a SPSS izan zen: Statistical Package for the Social Sciences).
- Txosten bat osatzea egindako azterketaren emaitza guztiekin. Txosten horretan, Trebiñuko enklabeko biztanleei dagozkien emaitza guztiez gainera, enklabea osatzen duten bi udalerrietako bakoitzaren ingurukoak aztertuta dira. Logikoa denez, konderriko emaitzak enklabeko emaitza orokorretatik gertuago daude Argantzongoak baino, enklabeko biztanle gehienak Trebiñuko konderrian bizi baitira.

2.

Karakterizazio soziodemografikoa


2.1. SEXUA ETA ADINA

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabearen bizi den biztanleriak zahartze-prozesu nabarmena jasan du. Izan ere:

- 50 urte baino gutxiagoko biztanleen ehunekoa askoz ere baxuagoa da: 2012an % 72,5 izatetik 2022an % 55 izatera pasa da.
- 50 urte baino gehiagoko biztanleen ehunekoa askoz ere altuagoa da: 2012an % 28 ziren eta 2022an % 45.

Gaur egun, Trebiñuko biztanleen % 21ek 25 urte baino gutxiago ditu, eta antzekoa da 64 urte edo gehiagokoen ehunekoa.


1. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa, adinaren arabera. Trobiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Trobiñuko konderrian bizi den biztanleria zaharragoa da Argantzongoa baino. Izan ere, udalerri horretako biztanleen % 38,3k 50 urte baino gehiago ditu. Trobiñuko konderrian, aldiz, gehiago dira: % 48,1.

2. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa adinaren arabera. Trobiñuko konderria, Argantzona eta Trobiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, 50 urte baino gehiagoko biztanleen ehunekoak 19 puntuko igoera izan du Trebiñuko konderrian; Argantzonen, aldiz, igoera txikiagoa izan da (13,9 puntu).

Adinaren banaketari generoaren arabera begiratuta, ez da alde handirik ikusten; hala ere, 64 urtetik gorako emakumeen ehunekoa altuagoa da gizonezkoena baino (% 22,6 eta % 21,7 hurrenez hurren).

4. TAULA: Biztanleriaren banaketa, adinaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzonen eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzonen		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
2-15 urte	16,3	14,7	17,0	14,9	16,5	14,1	15,3	14,8
16-24 urte	5,0	6,5	6,3	7,9	5,3	7,1	6,8	7,0
25-34 urte	15,1	6,6	17,6	11,1	15,8	8,9	7,1	8,1
35-49 urte	34,6	24,0	34,2	27,3	34,5	24,5	25,9	25,1
50-64 urte	15,6	24,8	17,4	20,5	16,1	24,4	22,4	23,4
>64 urte	13,5	23,3	7,6	18,3	11,9	21,0	22,6	21,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

2.2. JAIOTERRIA

Azken 10 urteetan, Trebiñun bertan jaioak direla dioten biztanleen ehunekoak jaitsiera txikia izan du: 2012an % 27,8 izatetik 2022an % 22,9 izatera pasa da. Araban jaioak direla dioten biztanleen portzentajeak gora egin du, ia ehuneko berean, 2012an % 40 izatetik 2022an % 44,5 izatera.

Gaur egun, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan jaio direnen ehunekoa % 8,6koa da (hamar urte lehenagoko ehunekoaren antzekoa). Burgosen jaiotakoena % 4koa (2012an % 3,4). Eta Trebiñuko enklabea, Euskal Herria eta Burgos ez diren beste toki batzuetan jaiotakoen ehunekoa % 20koa (2012ko ehunekoaren antzekoa).


3. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Araban jaioak diren pertsonen ehunekoa altuagoa da Trebiñuko konderrian Argantzonen baino (% 47,6 eta % 37,7, hurrenez hurren). Trebiñuko enklabean jaioak direnen ehunekoa, aldiz, baxuagoa (% 21 eta % 27).

4. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa jaioterriaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Araban jaioak direnen ehunekoak 7,6 puntuko igoera izan du Trebiñuko konderrian. Argantzonen, aldiz, behera egin du, 2,4 puntu.

Trebiñuko enklabetik, Euskal Herritik eta Burgostik kanpo jaio direnen ehunekoa altuagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino (% 22 eta % 18,2, hurrenez hurren).

5. TAULA: Biztanleriaren banaketa jaioterriaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzonen eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

Jaioterria	Trebiñuko konderria		Argantzonen		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Trebiñuko enklabea	30,6	21,0	20,4	27,0	27,8	23,0	22,6	22,9
Araba	40,0	47,6	40,1	37,7	40,0	44,8	44,4	44,5
Euskal Herria	8,3	8,4	9,0	9,2	8,5	9,8	7,4	8,6
Burgos	3,2	3,6	3,9	4,8	3,4	4,3	3,6	4,0
Beste nonbait	17,9	19,4	26,6	21,3	20,3	18,2	22,0	20,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


2.3. JARDUERAREKIKO HARREMANA, LANBIDEA ETA LANTOKIA

2.3.1. JARDUERAREKIKO HARREMANA

Azken hamar urteetan, behera egin du besteren kontura lan egiten duten biztanleen ehunekoak: % 43tik % 38,9ra pasa da. Langabezian dauden ehunekoak ere behera egin du, % 6,2tik % 2,7ra. Nabarmen handitu da, halaber, jubilatuen portzentajea ere: % 13tik % 22,5era.

Gaur egun, norberaren kontura lan egiten dutenen ehunekoa % 12koa da, etxeko lanetan jarduten dutenena % 3,3koa eta ikasten ari direnena % 20koa. 2012koen oso antzekoak dira datu horiek.

5. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa lan-jardueraren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Besteren kontura lan egiten dutenen ehunekoa altuagoa da Argantzonen (% 44,8) Trebiñuko konderrian baino (% 36,2).

Norbere kontura lan egiten duten biztanleen ehunekoa eta erretiratuena, aldiz, altuagoa da Trebiñuko konderrian Argantzonen baino. Izan ere, Trebiñuko konderrian % 13,6k lan egiten du norbere kontura eta % 24 erretiratua da. Argantzonen, berriz, portzentajeak apalagoak dira, % 8,7 eta % 19,2, hurrenez hurren.

6. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa lan-jardueraren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, erretiratuta dauden Trebiñuko konderriko biztanleen ehunekoa gora egin du, 8,9 puntu; Argantzongoaren hazkundera handiagoa izan da (11,8 puntu).

Gaur egun, Trebiñuko enklabea, norbere kontura lan egiten dutenen ehunekoa altuagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (% 15 eta % 9, hurrenez hurren).

6. TAULA: Biztanleriaren banaketa lan-jardueraren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)


	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Bere kontura egiten du lan	15,1	13,6	8,6	8,7	13,3	15,0	9,0	12,0
Besteren kontura egiten du lan	40,4	36,2	49,9	44,8	43,0	38,9	38,7	38,9
Langabezian	5,9	2,6	6,7	2,8	6,1	2,4	3,0	2,7
Etxeko lanak	3,8	3,6	5,3	2,6	4,2	0,3	6,4	3,3
Erretiratu/ Pentsioduna	15,1	24,0	7,4	19,2	13,0	23,0	22,1	22,5
Ikaslea	19,1	19,7	21,7	21,5	19,8	19,9	20,4	20,2
Beste egoeraren bat	0,6	0,4	0,4	0,5	0,6	0,4	0,4	0,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

2.3.2. LANBIDEA

Azken hamar urteetan erdi-mailako edo goi-mailako teknikari diren pertsonen ehunekoak igoera handia izan du (% 11tik % 27,9ra), eta jaitsiera handia langileenak (% 29,4tik % 16,7ra). Autonomoak diren ehunekoak ere behera egin du, % 21etik % 16,8ra. Baita enplegatuenak ere, % 29,8tik % 27,9ra. Aldiz, nekazarien portzentajeak hazkunde txikia izan du, % 8,8tik % 10,8ra.


7. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa lanbidearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Erdi- edo goi-mailako teknikari gisa jarduten dutenen ehunekoa nabarmen altuagoa da Argantzonen Trebiñuko konderrian baino (% 33,3 eta % 25,4, hurrenez hurren).

8. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa lanbidearen arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan 13,7 puntuko igoera izan du erdi-goi mailako teknikoen ehunekoa Trebiñuko konderrian, eta 24 puntukoa Argantzonen.

Gaur egun, Trebiñuko konderrian, nekazarien ehunekoa altuagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (% 13,5 eta % 7,6, hurrenez hurren), baita langileen ehunekoa ere (% 24,3 eta % 8,2). Enplegatuen ehunekoa, aldiz, altuagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino (% 35,5 eta % 21), baita erdi-goi mailako teknikoen ehunekoa ere (% 30 eta % 25,8).

7. TAULA: Biztanleriaren banaketa lanbidearen arabera. Trebiñuko konderria, Argantzonen eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)


	Trebiñuko konderria		Argantzonen		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Nekazaria	10,5	11,5	4,5	9,3	8,8	13,5	7,6	10,8
Autonomoa	22,3	17,5	17,5	15,4	21,0	15,3	18,6	16,8
Langilea	26,2	17,6	37,4	14,8	29,4	24,3	8,2	16,7
Enplegatua	29,2	28,1	31,5	27,3	29,9	21,0	35,5	27,9
Teknikaria / Lan. liberala	11,7	25,4	9,1	33,3	11,0	25,8	30,0	27,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

2.3.3. LANTOKIA

Trebiñuko enklabeko biztanleen % 72,7k Araban lan egiten du, % 16,2k Trebiñuko enklabean bertan, % 4k Euskal Herriko beste lurraldeetan eta % 5,1ek Burgosen. Azken hamar urteetan oso gutxi aldatu dira ehuneko horiek, baina Trebiñuko enklabetik eta Arabatik kanpo lan egiten dutenen ehunekoak igoera txiki bat izan du: Euskal Herrian (% 2,5etik % 4ra), Burgosen (% 3,6tik % 5,1era) eta gainerakoan (% 1,6tik % 2,1era).

9. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa lantokiaren kokapenaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Trebiñuko konderrian, Araban eta Euskal Herriko beste lurraldeetan lan egiten dutenen ehunekoa pixka bat altuagoa da Trebiñuko konderriko biztanleen artean Argantzonen artean baino.

Argantzonen Trebiñun baino altuagoa da Burgosen (% 7,7 eta % 3,7, hurrenez hurren) eta enklabetik, Euskal Herritik eta Burgostik kanpoko beste toki batzuetan lan egiten dutenen ehunekoa (% 2,8 eta % 1,7, hurrenez hurren).

10. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa lantokiaren kokapenaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken 10 urteetan, enklabearen bertan lan egiten dutenen ehunekoak behera egin du Trebiñuko konderrian, 3,3 puntu. Argantzonen, aldiz, ia berdina mantendu da (0,2 puntuko igoera izan du soilik).

Enklabearen bizi eta Araban lan egiten dutenen ehunekoak altuagoa da emakumeen artean (% 76) gizonezkoen artean baino (% 70).

8. TAULA: Biztanleriaren banaketa lantokiaren kokapenaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

Lantokiaren kokapena	Trebiñuko konderria		Argantzona		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Trebiñuko enklabea	20,4	17,1	14,3	14,5	18,7	17,9	14,3	16,2
Araba	72,6	72,8	76,6	72,3	73,7	70,0	76,0	72,7
Euskal Herria	2,5	4,7	2,4	2,8	2,5	4,6	3,1	4,0
Burgos	2,8	3,7	5,6	7,7	3,6	5,0	5,2	5,1
Beste nonbait	1,8	1,7	1,0	2,8	1,6	2,5	1,3	2,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

2.4. IKASKETA-MAILA, IKASTOKIA ETA HIZKUNTZA-EREDUA


2.4.1. IKASKETA-MAILA

Azken hamar urteetan, gora egin du goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoak (% 11,3tik % 20ra). Erdi-goiko mailako ikasketak dituztenen ehunekoak ere gora egin du (% 6,7tik % 9,4ra).

Bestalde, oinarritzko ikasketak dituzten biztanleen ehunekoak jaitsiera nabarmena izan du (% 33,2tik % 22,7ra), baita Batxilergoa, BBB, UBI, LH2 dutenena ere (% 25,3tik % 19ra).

Gaur egun, ikasketarik ez duten edo ikasketak bukatu ez dituzten biztanleen ehunekoak % 12koa da, 2012koaren oso antzekoa (% 11,1).

11. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa ikasketa-mailaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Trebiñuko konderrian bizi den biztanleriaren artean, oinarrizko ikasketak edo OHO dituzten pertsonen ehunekoa, altuagoa da Argantzonen baino (% 24,6 eta % 18,5, hurrenez hurren).

Argantzuen, aldiz, Trebiñuko konderrian baino altuagoa da BBB, UBI, LH2 dutenen ehunekoa (% 21,8 eta % 17,7, hurrenez hurren), baita goi mailako ikasketak dituztenena ere (% 22,5 eta % 18,9).

12. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa ikasketak-mailaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Gaur egun, Trebiñuko enklabe osoan, gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino gehiago dira erdi-goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak (% 11,6 eta % 7,2, hurrenez hurren); aldiz, emakumezkoen artean gehiago dira goi-mailako ikasketak dituztenak (% 23,2 eta % 16,7, gizonezkoen artean).

Azken hamarkadan, Trebiñuko konderrian gehienez lehen mailako ikasketak dituen biztanleria 9,2 puntu jaitsi da (% 46tik % 36,8ra), eta Argantzónen 4,7 puntu jaitsi da (% 35,8tik % 31,1era).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko Konderrian, goi-mailako edo erdi-mailako ikasketak dituztenen ehunekoa 11,4 puntu igo da, eta Argantzónen, berriz, nahiko antzekoa izan da ehuneko hazkundera (11,1 puntu).

9. TAULA: Biztanleriaren banaketa ikasketa-mailaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Batere ez/ Oinarrizkoak bukatu gabe	12,6	12,2	7,0	12,6	11,1	11,8	12,7	12,3
Oinarrizkoak / OHO	33,4	24,6	28,8	18,5	32,2	23,1	22,4	22,7
Oinarrizko batxilergoa/ DBH/ LLH1	13,3	16,8	13,5	16,1	13,4	17,8	15,5	16,6
Goi-mailako batxilergoa/ BBB/ UBI/ LH2	23,3	17,7	30,9	21,8	25,3	19,0	19,0	19,0
Erdi goi-mailako ikasketak	6,6	9,9	7,2	8,5	6,7	11,6	7,2	9,4
Goi-mailako ikasketak	10,8	18,9	12,7	22,5	11,3	16,7	23,2	20,0
TOTAL	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

2.4.2. IKASLEAK NON ARI DIREN IKASTEN


a. Ikasten ari diren biztanleak orokorrean

Gaur egun, Trebiñuko enklabeko herritarren % 20,2 ikaslea da, eta horietatik % 72,7 Araban ari da ikasten; 2012koaren antzekoa da ehuneko hori.

Azken hamar urteetan, Trebiñun bertan ikasten ari diren ikasleen ehunekoak behera egin du, % 21,6tik % 15,8ra. Euskal Herriko beste toki batzuetan ikasten dutenen ehunekoak, aldiz, gora (% 0,6tik % 5,2ra pasa da).

Gaur egun, ikasleen % 4,7k Burgosen ikasten du, 2012koaren oso antzekoa da ehuneko hori (% 4,5).


13. GRAFIKOA: Ikasleen banaketa ikasketa-lekuaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Trebiñuko konderrian bizi diren ikasleen artean, Argantzonen baino baxuagoa da Trebiñuko enklabean bertan ikasten dutenen ehunekoa (% 10,6 eta % 26,2, hurrenez hurren). Altuagoa, aldiz, Araban ikasten dutenena (% 76,1, % 66,2ren aldean).

14. GRAFIKOA: Ikasleen banaketa ikasketa-lekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzonen eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabearen bertan ikasten duten Trebiñuko konderriko ikasleen ehunekoak behera egin du, 11,4 puntu. Argantzonen, berriz, gora egin du, 5,4 puntu.

Enklabearen bertan ikasten dutenen ehunekoa altuagoa da emakumezkoen artean gizonzkoen artean baino (% 18,8 eta % 13,1, hurrenez hurren). Berdin Burgosen ikasten dutenekin (% 5,8 eta % 3,7).

10. TAULA: Ikasleen banaketa ikasketa-lekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzonen eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)


Ikasketa-lekua	Trebiñuko konderria		Argantzonen		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Trebiñuko enklabea	22,0	10,6	20,8	26,2	21,6	13,1	18,8	15,8
Araba	74,0	76,1	69,8	66,2	72,8	74,9	70,2	72,7
Euskal Herria	0,0	6,3	1,9	3,1	0,6	5,8	4,7	5,2
Burgos	3,2	5,9	7,5	2,3	4,5	3,7	5,8	4,7
Beste nonbait	0,8	1,2	0,0	2,3	0,6	2,6	0,5	1,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. 12 urtetik beherako ikasleak

Azken hamar urteetan, Trebiñun bertan ikasten duten 12 urtetik beherako biztanleen ehunekoak behera egin du (% 30etik % 24,6ra pasa da), eta gora, aldiz, kanpoan ikasten dutenak. Araban ikasten dutenen ehunekoa % 69tik % 72ra pasa da, Euskal Herriko gainerakoan ikasten dutenena % 1,3koa da eta Burgosen bertan ikasten dutenena % 1etik % 2,2ra pasa da.


15. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa ikasketa-lekuaren arabera: 12 urtetik beherako biztanleria. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Trebiñuko konderrian bizi diren 12 urtetik beherakoen artean, Argantzonen baino gutxiago dira Trebiñuko enklabean bertan ikasten dutenak (% 15,2 eta % 44,6, hurrenez hurren). % 82,3 da Trebiñuko konderrian bizi direnen artean Araban ikasten dutenen ehunekoa, eta % 50 Argantzonen bizi direnen artean.

16. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa ikasketa-lekuaren arabera: 12 urtetik beherako biztanleria. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022. (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Nesken artean Trebiñuko enklabearen bertan ikasten dutenen ehunekoa mutilen artean baino altuagoa da (% 27 eta % 22,2, hurrenez hurren). Mutilen artean, aldiz, nesken artean baino altuagoa da Araban ikasten dutenen ehunekoa (% 74,1 eta % 69,7, hurrenez hurren).

11. TAULA: Biztanleriaren banaketa ikasketa-lekuaren arabera: 12 urtetik beherako biztanleria. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria	Argantzón	Trebiñuko enklabea			
	2022	2022	2012	2022		
				Gizonak	Emakumeak	Guztira
Trebiñuko enklabea	15,2	44,6	30	22,2	27,0	24,6
Araba	82,3	50,0	69	74,1	69,7	72,0
Euskal Herria	0,6	2,7	0	1,9	0,8	1,3
Burgos	1,9	2,7	1	1,9	2,5	2,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

2.4.3. OINARRIZKO IKASKETAK ZEIN HIZKUNTZA-EREDUTAN EGIN DITUZTEN

Trebiñuko enklabeko biztanleen % 60,4k X ereduari Gaztelaniaz egin diu bere oinarritzko ikasketak (antzekoa zen ehunekoa 2012an —% 59,6—).

Azken hamar urteetan gora egin du oinarritzko ikasketak D ereduari Euskaraz egin dituztenen ehunekoak, 5,9 puntu (% 14,2tik % 20,1era pasata), baita B ereduari Elebrietan egin dituztenenak ere (% 5,2 eta % 5,6); modu nabarmenean jaitsi da, aldiz, A ereduari Gaztelaniaz egin dituztenen ehunekoa (% 21etik % 13,9ra).


17. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa, lehen mailako ikasketak egin diren hizkuntza-ereduaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Oinarrizko ikasketak X ereduari Gaztelaniaz egin dituztenen ehunekoa altuagoa da Trebiñuko konderrian Argantzonen baino (% 61,3 eta % 58,6, hurrenez hurren). Berdin A ereduari Gaztelaniaz ikasi dutenen ehunekoarekin (% 14,7 eta % 12,2).

18. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa, lehen mailako ikasketak egin diren hizkuntza-ereduaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderrian bizi diren eta D ereduan-Euskaraz ikasi dutenen ehunekoak gora egin du, 5,4 puntu (% 14tik % 19,4ra). Argantzonen bizi diren artean, 7 puntukoa izan da igoera (% 14,7tik % 21,7ra).

Generoaren arabera, apenas dagoen alderik oinarritzko ikasketen eredu linguistikoari dagokionez.

12. TAULA: Biztanleriaren banaketa, lehen mailako ikasketak egin diren hizkuntza-ereduaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
X - Gaztelaniaz	59,2	61,3	60,5	58,6	59,6	59,8	61,2	60,4
A - Gaztelaniaz	21,4	14,7	20,0	12,2	21,0	14,7	13,1	13,9
B - Elebietan	5,4	4,7	4,7	7,6	5,2	6,0	5,2	5,6
D - Euskaraz	14,0	19,4	14,7	21,7	14,2	19,5	20,4	20,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


Adinean behera egin ahala, gora egiten du oinarritzko ikasketak D ereduan-Euskaraz egin dituzten biztanleen ehunekoak. Izan ere, 50-64koen artean % 1,6koa da eredu horretan ikasi dutenen ehunekoa, 35-49koen artean % 11,5ekoa, % 30,3ekoa 25-34koen artean, eta gora egiten du nabarmen bi adin tarte gazteenetan: % 61,9koa da 16-24koen artean, eta % 68,1ekoa 2-15 urtekoen artean. 2012tik 2022ra, adin-tarte horietan guztietan areagotu da ikasketak eredu horretan egin dituztenen portzentajea. Nabarmentzeko modukoa da 16-24koen artean ehuneko hori ia bikoiztu egin dela, % 31,3tik % 61,9ra pasata; A ereduak-Gaztelaniaz jaitsiera handia jasan du, % 26tik % 5,2ra.

Kontrako prozesua gertatu da oinarritzko ikasketak X ereduan-Gaztelaniaz egin dituztenekin. Alegia, adinean behera egin ahala, ehunekoak ere behera egiten du. Horrela, 50-64koen artean % 83,2koa da ikasketak eredu horretan egin dituztenen ehunekoa, 35-49koen artean % 49,4koa, 25-34koen artean % 38,7koa, 16-24koen artean % 20,1ekoa eta 2-15 urtekoen artean % 16,7koa. 2012 urtetik 2022ra, ia adin-tarte horietan guztietan (25-34koen artean izan ezik), jaitsi egin da ikasketak eredu horretan egin dituztenen portzentajea.

Ikasketak B ereduari Elebitan egin dituzten biztanleen ehunekoak gora egiten du adinaren behera egin ahala; % 5,9koa da 35-49 urtekoen artean, % 15,5era igotzen da 25-34 urtekoen artean, baina zertxobait apaltzen da 2-24 urtekoen artean % 12 inguru. 2012tik 2022ra, 2-25 urteen artean, ikasketak eredu horretan egin dituztenen ehunekoak jaitsiera txiki bat izan du; hala ere, adin horretatik aurrera, gora egin du.

Oinarrizko ikasketak A ereduari Gaztelaniaz egin dituzten biztanleen ehunekoa gutxituz joan da 50 urtekoetatik behera egin ahala. Izan ere, 35-49koen artean % 33,3koa da, 25-34koen artean % 15,5koa, 16-24koen artean % 5,2koa eta 2-15ekoen artean % 2,8koa. 2012tik 2022ra, adin-tarte horietan guztietan jaitsi egin da ehunekoa.

19. GRAFIKOA: Biztanleriaren banaketa, lehen mailako ikasketak egin diren hizkuntza-ereduaren arabera eta generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

13. TAULA: Biztanleriaren banaketa, lehen mailako ikasketak egin diren hezkuntza-ereduaren arabera eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012- 2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
X - Gaztelaniaz	22,0	16,7	29,2	20,1	37,8	38,7	59,9	49,4	99,0	83,2	100,0	99,7	59,6	60,4
A - Gaztelaniaz	6,4	2,8	26,0	5,2	42,0	15,5	34,4	33,3	0,7	14,9	0,0	0,0	21,0	13,9
B - Elebietan	14,5	12,4	13,5	12,7	8,5	15,5	2,1	5,9	0,0	0,4	0,0	0,2	5,2	5,6
D - Euskaraz	57,1	68,1	31,3	61,9	11,7	30,3	3,6	11,5	0,3	1,6	0,0	0,0	14,2	20,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

2.5. EUSKARAREN IKASKETA HEZKUNTZA-SISTEMAZ APARTE (ikastetxetik kanpo)

Biztanleen % 80k ez du euskara ikasi hezkuntza-sistemaz aparte, hau da, irakaskuntza-zentro arautuetatik kanpo. % 11,1ek udako ikastaroren bat egin duela adierazi du, eta % 8,9k udara batean baino gehiagotan. 2012tik 2022ra, udararen batean euskara ikasi duten pertsonen ehunekoak gora egin du (% 6,5etik % 11,1era), eta behera udararen batean baino gehiagotan egin dutenena (% 14,5etik % 8,9ra). Ondorioz, azken hamarkada honetan, irakaskuntza-sistematik kanpo euskaraz inoiz ikasi ez duten biztanleen ehunekoa 0,9 puntu igo da (% 79,1etik % 80ra).

Badirudi, hezkuntza-sistemaz kanpoko euskararen ikasketa-prozesuan, jarraikortasuna nahiko erlatiboa dela, eta esporadikoa: “probatu egiten da, baina ez zaio jarraipenik ematen”. Aurrerago, planteamendu hori berresten duten beste zenbait datu emango ditugu.


20. GRAFIKOA: **Hezkuntza-sistematik kanpo euskara ikastea. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)**



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Trebiñuko konderrian, Argantzonen baino altuxeagoa da euskara hezkuntza-sistemaz kanpo inoiz ikasi ez dutenen ehunekoa (% 80,6 eta % 78,7, hurrenez hurren).

21. GRAFIKOA: **Hezkuntza-sistematik kanpo euskara ikastea. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)**



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderrian euskara hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi dutenen ehunekoa ia bere horretan mantendu da: gora egin du udararen batean

euskara ikasten ibili direnen ehunekoak (% 6,8tik % 10,9ra) eta behera udararen batean baino gehiagotan egin dutenenak (% 13,2tik % 8,5era).

Argantzonen, azken hamar urteetan, 2,2 puntu jaitsi da euskara hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi dutenen ehunekoa. Horrela, gora egin du udararen batean euskara ikasten ibili direnen ehunekoak (% 5,5etik % 11,5era) eta behera, modu nabarmenean, udararen batean baino gehiagotan egin dutenenak (% 18tik % 9,8ra).

Gaur egun, emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino altuagoa da hezkuntza-sistemaz kanpo euskara ikasi dutenen ehunekoa (% 25,1 emakumezkoen artean eta % 15,2 gizonezkoen artean).


14. TAULA: Euskara ikastea hezkuntza-sistematik kanpo, bizi den udalerriaren eta generoaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Ez	80,0	80,6	76,5	78,7	79,1	84,8	74,9	80,0
Bai, urteren edo udaren batean	6,8	10,9	5,5	11,5	6,5	8,9	13,4	11,1
Bai, urteetan	13,2	8,5	18,0	9,8	14,5	6,3	11,7	8,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Biztanleriaren adinean gora egin ahala, adin-tarte guzietan eta 64 urtera arte, gero eta altuagoa da euskara hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi dutenen ehunekoa (bai udara batean, bai batean baino gehiagotan).

22. GRAFIKOA: Euskara ikastea hezkuntza-sistematik kanpo, generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, ikusten da adinean gora egin ahala, adin-tarte guztietan eta 49 urtera arte, behera egiten duela euskara udara batean baino gehiagotan ikasi dutenen ehunekoak.

15. TAULA: Euskara ikastea hezkuntza-sistematik kanpo, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Ez	84,5	97,2	80,2	96,3	78,4	77,9	68,0	69,5	83,0	67,2	98,6	89,7	79,1	80,0
Bai, urteren edo udaren batean	9,1	1,8	4,2	2,2	5,3	12,3	9,2	15,8	3,8	18,4	0,9	6,5	6,5	11,1
Bai, urteetan	6,4	1,1	15,6	1,5	16,3	9,7	22,8	14,7	13,1	14,4	0,5	3,8	14,5	8,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

3.

Euskara-gaitasuna

3.1. HIZKUNTZA-TREBETASUNAK, BIZTANLE EUSKALDUNAK ETA EUSKALDUN HARTZAILEAK

a. Hizkuntza-trebetasunak

Hizkuntza oro jasotzearen/ulertzearen eta igortzearen/adieraztearen bidez eskuratu da, ondorengo ibilbideen bidez: ibilbide zuzena-naturala-ahozkoa (ulertuz eta hitz eginez), eta ibilbide zeharkakoa-kulturala-idatzia (irakurriz eta idatziz). Komunikazioaren ikuspuntutik, hitz egitea eta idaztea igortzearekin eta adieraztearekin lotutako gaitasun linguistikoak dira. Eta ulertzea eta irakurtzea, jasotzearekin eta jabetzearekin lotutakoak. Gure ikuspuntutik, ibilbide zuzena zeharkakoari gailentzea litzateke normalena, eta komunikazioa jasotzeak igortzeak baino pisu handiagoa izatea. Beste era batera esanda, gaitasun linguistikoak garapen egokia edukitzeko, beharrezkoa da hizkuntza-bereganatzeko fluxu egoki bat edukitzea, ondo konfiguratu egongo dena: “hitz egiten dena baino gehiago ulertzea, irakurtzen dena baino gehiago hitz egitea eta idazten dena baino gehiago irakurtzea”. Bestela, nahikotzat jo daitezkeen hizkuntza-ikaskuntzak edukiko ditugu, baina “hipotekatuak” egongo direnak, ez baitira garatuko hizkuntzaren trebetasun eta erregistro guztietan (formala eta informala), testuinguru guztietara erosotasunez, arrakastaz eta osotasunez egokituz.


Trebiñuko enklabeko bi urte edo gehiagoko biztanleen % 32,1ek ondo edo nahiko ondo ulertzen du euskaraz. % 30,6k ondo edo nahiko ondo hitz egiten du (biztanle euskaldunak dira). Eta % 30,2k ondo edo nahiko ondo idazten du hizkuntza horretan.

Ehunekoak oso antzekoak dira hizkuntza-trebetasun guztietan, bai igorleetan (hitz egitea eta idaztea), bai hartzaileetan (ulertzea eta irakurtzea), bai hizkuntzaren ikaskuntza “naturalarekin” (ulertzea eta hitz egitea) lotutakoetan eta baita ikaskuntza

“kulturalarekin” (irakurtzea eta idaztea) lotutakoetan ere. Horrek zailtasunak eragin ditzake biztanleek euskararen euskara-gaitasun osoa garatzeari dagokionez.

2012tik 2022ra, lau hizkuntza-trebetasunetan izan da hobekuntza. Euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko gaitasunean 7,3 puntu, euskara ondo edo nahiko ondo hitz egitekoan 8,7 puntu, ondo edo nahiko ondo irakurtzekoan 11,3 puntu, eta ondo edo nahiko ondo idazteko gaitasunean 11,7 puntu. Euskararen ikasketa kulturalarekin lotutako trebetasunak dira hobekuntza handiena izan dutenak (irakurtzekoa eta idaztekoa).

23. GRAFIKOA: Biztanleriaren hizkuntza-trebetasunak: euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Argantzongo biztanleen artean, Trebiñuko konderrikoen artean baino altuxeagoa da euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna.

Biztanle euskaldunen ehunekoa ere altuxeagoa da Argantzonen Trebiñuko konderrian baino (% 31,7 eta % 30, hurrenez hurren).

24. GRAFIKOA: Biztanleriaren hizkuntza-trebetasunak: euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Gaur egun, euskara ondo edo nahiko ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dutenen ehunekoa altuagoa Argantzonen Trebiñuko konderrian baino. Duela hamarkada bat ere berdina gertatzen zen.

Gaur egun, emakumeen artean gizonezkoen artean baino altuagoa da euskaraz ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dutenen ehunekoa. Kasu honetan ere, duela hamar urte berdina gertatzen zen.

16. TAULA: Biztanleriaren hizkuntza-trebetasunak: euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi. Trebiñuko konderria, Argantz on eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

Hizkuntza-trebetasua		Trebiñuko konderria		Argantz on		Trebiñuko enklabea			
		2012	2022	2012	2022	2012	2022		
							Gizonak	Emakumeak	Guztira
ULERTU	Ondo	16,9	21,7	19,2	26,7	17,5	21,9	24,3	23,3
	Nahiko ondo	7,8	9,3	6,1	7,7	7,3	8,2	9,5	8,8
	<i>Ondo + Nahiko ondo</i>	24,7	31,0	25,3	34,4	24,8	30,1	33,8	32,1
	Zertxobait	19,1	13,9	21,1	13,4	19,7	12,6	15,1	13,8
	Hitz batzuk edo ezer ez	56,2	55,0	53,6	52,2	55,5	57,3	51,1	54,1
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
HITZ EGIN	Euskaldunak:								
	Ondo	16,0	21,1	18,2	24,3	16,6	20,4	23,5	22,1
	Nahiko ondo	5,5	8,9	4,9	7,4	5,3	8,0	8,9	8,4
	<i>Ondo + Nahiko ondo</i>	21,5	30,0	23,1	31,7	21,9	28,4	32,4	30,6
	Euskaldun hartzaleak:								
	Zertxobait	15,8	12,3	19,4	11,2	16,8	11,5	12,5	12,0
	Erdaldunak:								
	Hitz batzuk edo ezer ez	62,7	57,6	57,5	57,1	61,3	60,1	55,0	57,5
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
IRAKURRI	Ondo	12,7	21,1	14,7	25,9	13,3	21,3	23,6	22,6
	Nahiko ondo	6,6	8,8	5,3	6,7	6,2	7,5	8,9	8,2
	<i>Ondo + Nahiko ondo</i>	19,3	29,9	20,0	32,6	19,5	28,7	32,5	30,8
	Zertxobait	14,1	12,8	14,5	11,1	14,2	11,5	13,2	12,3
	Hitz batzuk edo ezer ez	66,7	57,3	65,4	56,2	66,3	59,8	54,3	56,9
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
IDATZI	Ondo	12,3	20,9	14,7	24,9	13,0	20,6	23,4	22,2
	Nahiko ondo	5,7	8,6	4,9	6,9	5,5	7,7	8,5	8,1
	<i>Ondo + Nahiko ondo</i>	18,0	29,5	19,6	31,8	18,5	28,3	31,9	30,2
	Zertxobait	14,6	12,7	13,7	11,0	14,4	11,5	13,0	12,2
	Hitz batzuk edo ezer ez	67,5	57,7	66,7	57,2	67,2	60,2	55,2	57,6
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Biztanle euskaldunak eta euskaldun hartzaileak


Gaur egun, Trebiñuko enklabeko 2 urteko edo gehiagoko biztanleen % 30,6 euskalduna da (ondo edo nahiko ondo hitz egiten du euskaraz) eta % 12 euskaldun hartzailea (zertxobait hitz egiten du euskaraz).

Azken hogeitaz urteetan, Trebiñuko enklabeko biztanleria euskaldunaren ehunekoak goranzko progresioa egin du: 2002 urtean % 11koa zen, 2007koan % 15,5koa, 2012koan % 21,9koa eta 2022an % 30,6koa. Hazkunde-prozesu hori oso garrantzitsua da hizkuntzaren etorkizunari begira, euskararen ezagutzak bizitasuna izan dezan biztanleen artean.

2002tik 2007ra doazen bost urteetan, enklabeko biztanle euskaldunen ehunekoak gora egin du, 4,5 puntu: urteko 0,9 puntukoa izan da hazkundera, batez beste. 2007tik 2012ra doan epean, 6,4 puntu egin du gora: 1,28 puntu urtean, batez beste.


2012 eta 2022 artean, biztanle euskaldunen ehunekoak gora egin du, 8,7 puntu (% 21,9tik % 30,6ra pasa da): urteko 0,87 puntu, batez beste. Datu horiek erakusten digute azken hamar urteotan biztanleria euskaldunaren urteko hazkundera moteldu egin dela, aurreko bost urteetakoarekin alderatuz. Zehazki, 0,41 puntu gutxiago hazi da.

2012tik 2022ra doazen hamar urteetan, Trebiñuko biztanleria euskaldun hartzaileak goranzko progresioa izan du. 2002an % 9,5 ziren, eta 2012an % 17,0, beraz, 7,5 puntukoa izan da hazkundera, urteko 0,77koa, batez beste. Hala ere, azken hamarkadan, 2012tik 2022ra, biztanle euskaldun hartzaileen portzentajeak behera egin du enklabean, % 17tik % 12ra, urteko batez besteko 0,48 puntuko jaitsierarekin.

25. GRAFIKOA: Euskara-gaitasunaren bilakaera. Trebiñuko enklabea, 2002-2022 (%)

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Biztanleria euskaldunaren eta euskaldun hartzailearen ehunekoa altuagoa da Argantzonen Trebiñuko konderrian baino. Argantzonen % 31,7 da euskalduna, % 11,2 euskaldun hartzailea, eta konderrian % 30 euskalduna eta % 12,3 euskaldun hartzailea.

26. GRAFIKOA: Euskara-gaitasuna. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

Iturria: Siadeco 2022.

Azken 10 urteetan, Trebiñuko konderriko biztanleria euskaldunak 8,5 puntuko hazkundera izan du (% 21,5etik % 30era). Argantzonen kasuan, biztanle euskaldunen hazkundera antzekoa izan da (8,6 puntu, % 23,1etik % 31,7ra).

Azken hamarkadan, enklabe osoko biztanle euskaldun hartzaileen ehunekoak behera egin du, 4,2 puntu (% 17,0tik % 12,3ra). Trebiñuko konderriaren kasuan 3,5 puntuko izan da jaitsiera (% 16,0tik % 12,3ra) eta Argantzonen nabarmenagoa (8,2 puntuko jaitsiera, % 19,6tik % 11,2ra).

17. TAULA: Euskara-gaitasunaren bilakaera. Trebiñuko konderria eta Argantzona 2012-2022 eta Trebiñuko enklabea, 2002-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzona		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2002	2007	2012	2022
Euskaldunak	21,5	30,0	23,1	31,7	11,0	15,5	21,9	30,6
Euskaldun hartzaileak	16,0	12,3	19,6	11,2	9,5	13,5	17,0	12,0

Iturria: HPS 2002-2012 eta Siadeco 2022.

3.2. EUSKARA-GAITASUNA

a. Generoaren eta adinaren arabera

Emakumeen artean, gizonezkoen artean baino altuagoa da euskaldunen (% 32,4) eta euskaldun hartzaileen (% 12,5) ehunekoa. Izan ere, gizonezkoen artean, % 28,4 da euskalduna eta % 11,5 euskaldun hartzailea.


2-15 urteko biztanleen artean, euskaldunen ehunekoa % 80,4koa da, eta 16-24koen artean % 78,4koa. Datu horiek funtsezkoak dira euskararen etorkizunari begira enklabean.

Izan ere, biztanle euskaldunen ehunekoak gora egiten du modu progresiboan adinean behera egin ahala. 50-64 urtekoen artean euskaldunen ehunekoa % 12,9koa da, % 25,5koa 35-49 urtekoen artean, eta % 44,5koa 25-34 urtekoen artean. Beraz, 34 puntuko igoera dago 25-34 urtekoen eta 16-24 urtekoen artean. Eta 67,5 puntuko igoera 50-64 urtekoen eta 2-15 urtekoen artean.

Biztanle euskaldun hartzaileen kasuan, 49 urtetik behera egin ahala, beren ehunekoa gutxitzen doa progresiboki. 35-49 urtekoen artean % 20,5koa da ehuneko hori, be-

hera egiten du 25-34koen artean (% 14,8) eta erdira jaisten da 16-24 urte bitartekoen artean (% 7,5). 2-15 urtekoen artean % 5,3koa da euskaldun hartzaileen ehunekoa.

27. GRAFIKOA: **Euskara-gaitasuna generoaren eta adin-taldeen arabera.**
Trebiñuko enklabea, 2022. (%)



Iturria: Siadeco 2022.

18. TAULA: **Euskara-gaitasuna generoaren arabera.** Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Euskaldunak	28,4	32,4	30,6
Euskaldun hartzaileak	11,5	12,5	12,0
Erdaldunak	60,1	55,0	57,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco 2022.

19. TAULA: Euskara-gaitasuna adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)


	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Euskaldunak	64,5	80,4	41,7	78,4	22,6	44,5	13,4	25,5	5,2	12,9	0,5	1,4	21,9	30,6
Euskaldun hartzaileak	16,2	5,3	24,0	7,5	25,8	14,8	22,5	20,5	6,9	14,9	0,9	3,8	17,0	12,0
Erdaldunak	19,3	14,2	34,4	14,2	51,6	40,6	64,1	53,9	87,9	72,3	98,6	94,7	61,1	57,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Jaioterriaren arabera

Euskal Herrian jaioak diren Trebiñuko enklabeko biztanleen artean euskaldunen portzentajea (% 39,6) altuxeagoa da enklabeen bertan jaioak direnen artean baino (biztanleen % 36,3 da euskalduna), eta askoz ere altuagoa, beste lekuetan jaiotakoekin alderatuta (% 5,2 besterik ez da euskalduna).

Euskal Herrian jaioak diren Trebiñuko enklabeko biztanleen artean, euskaldun hartzaileen ehunekoa % 16,3koa da. Aldiz, enklabetik eta Euskal Herritik kanpo jaio direnen artean, ehuneko hori erdira jaisten da (% 8,1), eta enklabeen bertan jaio direnen artean % 6,2ra (Trebiñuko enklabeko ehuneko orokorraren erdia da, ia).

28. GRAFIKOA: Euskara-gaitasuna jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabearen jaiotako biztanleen artean, euskaldunen ehunekoa 10,3 puntu igo da (% 26tik % 36,3ra igaro da). Euskal Herrian jaiotako biztanleen artean, zertxobait gehiago igo da (11,2 puntu, % 28,4tik % 39,6ra igota). Beste leku batzuetan jaio direnen artean, ehunekoa oso gutxi igo da, % 4tik % 5,2ra.

Azken hamarkadan, Trebiñun jaiotako biztanleen artean, euskaldun hartzaileen ehunekoa 3,8 puntu jaitsi da (% 10etik % 6,2ra). Euskal Herrian jaiotako biztanleen artean dezente gehiago jaitsi da (9,2 puntu, baina % 25,5etik % 16,3ra jaitsi da). Beste leku batzuetan jaio direnen artean, ehunekoa oso gutxi igo da: % 7,8tik % 8,1era.

Azken hamar urteetan, Trebiñun jaiotako biztanleen artean, erdaldunen ehunekoa 6,6 puntu jaitsi da (% 64tik % 57,5era). Euskal Herrian jaiotako biztanleen artean 2 puntu baino ez da jaitsi (baina % 46,2tik % 44,2ra jaitsi da). Beste leku batzuetan jaio direnen artean ere ehunekoa oso gutxi jaitsi da (1,5 puntu, % 88,2tik % 86,7ra).

20. TAULA: Euskara-gaitasuna jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)


	Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Euskaldunak	26,0	36,3	28,4	39,6	4,0	5,2	21,9	30,6
Euskaldun hartzaileak	10,0	6,2	25,5	16,3	7,8	8,1	17,0	12,0
Erdaldunak	64,0	57,5	46,2	44,2	88,2	86,7	61,1	57,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Erroldatzearen arabera

Gaur egun, Trebiñuko enklabearen erroldatuta ez dauden artean, euskaldunen ehunekoa (% 31,2) altuagoa da erroldatuta dauden artean baino (% 29,7). Euskaldun hartzaileena, aldiz, baxuagoa erroldatuta ez dauden artean (% 9,8), erroldatuen artean baino (% 13,6).

29. GRAFIKOA: Euskara-gaitasuna erroldatzearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Trebiñuko konderrian, erroldatuta dauden biztanleen artean, euskaldunen portzentajea (% 30,2) eta euskaldun hartzailleena (% 13,1) altuagoak dira erroldatuta ez dauden artean baino (% 28,9 eta % 11,6, hurrenez hurren).

Aldiz, Argantzonen, erroldatuta dauden biztanleen artean, euskaldunen ehunekoa (% 28,8) baxuagoa da erroldatuta ez dauden artean baino (% 36,5). Eta euskaldun hartzailen portzentajea (% 14,8) nabarmen altuagoa da erroldatuta ez dauden artean baino (% 5,6).

21. TAULA: Euskara-gaitasuna, enklabeako bi udalerrietan erroldatuta egotearen arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria		Erroldatu gabeko biztanleria	
	2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Euskaldunak	30,2	28,9	28,8	36,5	20,3	29,7	28,0	31,2
Euskaldun hartzailleak	13,1	11,6	14,8	5,6	16,5	13,6	18,9	9,8
Erdaldunak	56,7	59,5	56,5	57,9	63,2	56,6	53,1	59,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


3.3. LEHEN HIZKUNTZA: HAURTZAROAN 3 URTERA ARTE NAGUSIKI ERABILI DEN HIZKUNTZA

a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

Gaur egun, enklabean bizi diren biztanleen % 90,9k gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso zuen haurtzaroan, lehen hizkuntza gisa, 3 urtera arte, % 6,8k euskara eta gaztelania eta % 2,3k euskara bakarrik.

Azken hamar urteetan, igoera izan da haurtzaroan euskara eta gaztelania edo euskara bakarrik jaso dutenei dagokienez. Horrela, 2022an, % 6,8k ditu euskara eta gaztelania lehen hizkuntza eta % 2,3k euskara bakarrik (2012an %3,1ek eta % 1,6k hurrenez hurren).

30. GRAFIKOA: Lehen hizkuntza (3 urte bete arteko hizkuntza). Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Euskara eta gaztelania haurtzaroko lehen hizkuntza izan zituztenen ehunekoa altuagoa da Argantzonen bizi direnen artean, Trebiñuko konderrian bizi direnen artean baino (% 8,7 eta % 5,9, hurrenez hurren).

31. GRAFIKOA: Lehen hizkuntza (3 urte bete arteko hizkuntza). Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, euskara edo euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dituztenen ehunekoaren hazkundea handiagoa izan da Argantzónen Trebiñuko konderrian baino. Zehazki, 2012tik 2022ra:

- Trebiñuko konderrian, euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa % 1,8tik % 2,3ra pasa da, eta euskara eta gaztelania dituztenena, % 3,5etik % 5,9ra.
- Argantzónen, euskara lehen hizkuntza dutenena % 0,8tik % 2,3ra pasa da, eta lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenena % 2,0tik % 8,7ra.

22. TAULA: Lehen hizkuntza, bizi den udalerriaren eta generoaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)


	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gaztelania / Beste bat	94,6	91,8	97,1	89,0	95,3	91,3	90,9	90,9
Euskara	1,8	2,3	0,8	2,3	1,6	1,8	2,5	2,3
Biak	3,5	5,9	2,0	8,7	3,1	6,9	6,6	6,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Gaur egun, Trebiñuko enklabearen orokorrean, euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa altuagoa da emakumeen artean (% 2,5) gizonezkoen artean baino (% 1,8). Gizonezkoen artean, emakumeen artean baino altuagoa da lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen ehunekoa (% 6,9 eta % 6,6 hurrenez hurren).

32. GRAFIKOA: Lehen hizkuntza generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Adinean behera egin ahala, euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dituzten biztanleen ehunekoak gora egiten du, modu progresiboan. Horrela, 35-49 urtekoen artean ehuneko hori % 2,7koa da, 25-34koen artean % 3,9, 16-24koen artean % 13,4koa eta 0-15 urtekoen artean % 29,9koa da.

Euskara lehen hizkuntza dutenen ehuneko handieneko adin-tartea 25-34koa da (%5,2). Gainerako taldeetan, ehuneko hori erdira jaisten da.

Azken hamar urteetan, euskara edo euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dituztenen portzentajeak gora egin du aztertutako adin-tarte guztietan.

23. TAULA: Lehen hizkuntza adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelania / Beste bat	85,8	67,3	92,7	84,3	95,8	91,0	96,6	94,8	99,7	96,5	99,5	98,6	95,3	90,9
Euskara	2,4	2,8	1,0	2,2	1,8	5,2	2,3	2,5	0,0	2,2	0,5	0,7	1,6	2,3
Biak	11,8	29,9	6,3	13,4	2,5	3,9	1,1	2,7	0,3	1,3	0,0	0,7	3,1	6,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Euskara-gaitasunaren arabera

Enklabeko pertsona euskaldunen %20,8k euskara eta gaztelania ditu lehen hizkuntza, eta %7,2k euskara bakarrik.

Euskaldun hartzaileen artean %1,3k bakarrik ditu euskara eta gaztelania lehen hizkuntza, eta %0,4k euskara bakarrik.

Beraz, Trebiñuko euskaldun gehienek etxetik kanpo ikasi dute euskara, etxean gaztelania soilik jaso baitute.


Azken hamarkadan, biztanle euskaldunen artean, euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dituztenen ehunekoak 8,6 puntuko igoera izan du (%20,8 da 2022an, eta %12,2 2012an).

24. TAULA: Lehen hizkuntza euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelania / Beste bat	81,0	72,1	97,4	98,3	99,9	99,4	95,3	90,9
Euskara	6,9	7,2	0,3	0,4	0,0	0,1	1,6	2,3
Biak	12,2	20,8	2,3	1,3	0,1	0,5	3,1	6,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

33. GRAFIKOA: Lehen hizkuntza euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Gaur egun, Trebiñuko enklabean orokorrean, euskara bakarrik lehen hizkuntza duen biztanleriaren % 95,5 euskalduna da. Eta euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dituztenen artean, % 93,1 da euskalduna.

Azpimarratu beharra dago, halaber, lehen hizkuntza modura gaztelania edo beste batzuk dituztenen artean, % 24 euskalduna dela eta % 12 euskaldun hartzailea. Datu horiek agerian uzten dute euskara ikasteko ibilbide kulturalak hartzen duen garrantzia.

25. TAULA: Egungo euskara-gaitasuna eta lehen hizkuntza. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

	Lehen hizkuntza			Guztira
	Gaztelania / Beste bat	Euskara	Biak	
	2022	2022	2022	
Euskaldunak	24,3	95,5	93,1	30,6
Euskaldun hartzaileak	12,9	2,3	2,3	12,0
Erdaldunak	62,8	2,3	4,6	57,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco 2022.


3.4. EUSKARAREN IKASKETA: FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA EDO HEZKUNTZA BIDEZKOA

a. Ikuspegi globala eta bilakaerari dagokiona

Trebiñuko enklabeko pertsona euskaldunen % 51,1ek hezkuntza-sistemaren bidez jaso du euskara, % 27,9k familia bidezko transmisioaren bitartez eta % 21ek hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi du.

Azken hamarkadan, bilakaerari erreparatuz, familia bidezko transmisioak gora egin du (% 20,1etik % 27,9ra), eta ziur aski horren ondorioa da, hezkuntza-sistemaren bidezkoak behera egitea (% 59,4tik % 51,1era).

34. GRAFIKOA: Euskara ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten pertsonen (euskaldunen) euskara non ikasi duten. Trebiñuko enklabea, 2012-2022. (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Hezkuntza-sistemaz kanpo euskaraz ikasi duten biztanle euskaldunen ehunekoa altuagoa da Trebiñuko konderrian Argantzonen baino (hamar puntu gehiago: % 24,1etik % 14,5era).

35. GRAFIKOA: Euskara ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten pertsonen (euskaldunek) euskara non ikasi duten. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan azpimarratu beharra dago:

- Argantzónen bizi diren euskaldunen artean, familia bidezko transmisioaren bitartez euskara jaso dutenen ehunekoak 19 puntuko igoera izan du (% 12,4tik % 31,6ra). Behera egin du, aldiz, hezkuntza-sistemaren bidez ikasi dutenen ehunekoak (% 64,6tik % 53,9ra), baita hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi dutenak ere (% 23tik % 14,5era).
- Trebiñuko konderrian, familia bidezko transmisioaren bitartez euskara jaso dutenen ehunekoak hazkunde txikia izan du, 3 puntukoa (% 23,1etik % 26,1era); hezkuntza-sistemaren bidez jaso dutenen ehunekoak behera egin du (% 57,7tik % 49,9ra) eta gora hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi dutenak (% 19,9tik % 24,1era).

26. TAULA: Euskara ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten pertsonek (euskaldunek) euskara non ikasi duten. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Familia-transmisioa	23,1	26,1	12,4	31,6	20,1	27,9
Hezkuntza-sistema	57,3	49,7	64,6	53,9	59,4	51,1
Hezkuntza-sistematik kanpo	19,6	24,1	23,0	14,5	20,6	21,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera


Hezkuntza-sistemaz kanpo euskaraz ikasi dutenen ehunekoa altuagoa da emakumezko euskaldunen artean, gizonezko euskaldunen artean baino (% 23,3 eta % 18,4, hurrenez hurren). Familia bidezko transmisioaren bitartez euskara jaso dutenena, aldiz, altuagoa da gizonezko euskaldunen artean emakumezko euskaldunen artean baino (% 29,2 eta % 25,9, hurrenez hurren). Berdin hezkuntza-sistemaren bidez jaso dutenekin ere (% 52,3 gizonezkoen artean eta % 50,8 emakumezkoen artean).

Hezkuntza-sistema euskara eskuratzeko bide nagusia da 35 urtetik beherakoen artean, baina Trebiñuko enklabean bizi diren eta familia-transmisioaren bidez euskara eskuratu duten euskaldunen ehunekoa % 38,5ekoa da 2-15 urtekoen artean, 16-34 urtekoen artean baino askoz handiagoa.

Ondorioz, adin-talde gazteenean, behera egin du nabarmen hezkuntza-sistemaren bidez euskara eskuratu duten pertsonek ehunekoak (% 56,6), 16-34 urtekoekin alderatuta (% 70 baino gehiago).

35 urtetik gorakoetan, nabarmenezkoa da euskara hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi zutenen ehunekoa (% 72,5 50-64 urtekoetan eta % 43,9 35-59koetan).

36. GRAFIKOA: Euskara ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten pertsonen (euskaldunek) euskara non ikasi duten, generoaren eta adin-taldearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, pertsona euskaldunen artean, euskara ikasi duten moduaren arabera, ondorengoa genuke:

- Familia-transmisioaren bidez euskara eskuratu duten 2-15 urteko euskaldunen ehunekoa, orain 10 urte baino 16 puntu altuagoa da (% 38,5, eta 2012an % 22,5), eta hezkuntza-sistemaren bidez eskuratu dutenen ehunekoak behera egin du (% 56,6, 2012an % 75,9 izanik).
- 16-24 urteko herritarren artean ere gora egin du euskara familia-transmisioaren bidez eskuratu dutenen ehunekoa, baina igoera ez da adin-tarte gazteenean bezain nabarmena: 2,5 puntu 16-24 urteko taldean eta 4,3 puntu 25-34 urteko taldean.
- 25-34 urtekoen artean eta 35 urtetik gorakoen artean, euskara hezkuntza-sistematik kanpo ikasi dutenen ehunekoak behera egin du nabarmen.

27. TAULA: Euskara ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten pertsonen (euskaldunek) euskara non ikasi duten, adin-taldearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Familia-transmisioa	22,5	38,5	17,5	20,0	15,6	20,3	20,5	20,3	6,7	24,1	100,0	50,0	20,1	27,9
Hezkuntza-sistema	75,9	56,6	77,5	73,3	59,4	71,0	22,9	35,8	6,7	3,4	-	-	59,4	51,1
Hezkuntza-sistematik kanpo	1,6	4,9	5,0	6,7	25,0	8,7	56,6	43,9	86,7	72,4	-	50,0	20,6	21,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

3.5. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA: EUSKALDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO⁶


a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

Trebiñuko enklabearen bizi diren biztanle euskaldunen % 57,3k adierazi du errazago hitz egiten duela gaztelaniaz, % 39,4k erraztasun berdina du euskaraz eta gaztelaniaz eta % 3,3k dio euskaraz errazago aritzen dela.

Azken 10 urteetan, euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdinarekin hitz egiten duten ehunekoak 5,4 puntuko igoera izan du (% 34tik % 39,4ra igo da). Euskara errazago egiten dutenenak ere gora egin du (% 2,8tik % 3,3ra pasa da).

⁶ Hizkuntza-gaitasun erlatiboa honela definitzen dugu: hiztunak hizkuntza batean edo bestean hitz egiteko erraztasun handiagoa edo txikiagoa.

37. GRAFIKOA: Euskaldunak erraztasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren eta generoaren arabera

Euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdinarekin hitz egiten dutela edo euskaraz errazago hitz egiten dutela dioten euskaldunen ehunekoa altuagoa da Argantzonen Trebiñuko konderrian baino.

Izan ere, Argantzonen, % 40,2k adierazi du erraztasun berdinarekin hitz egiten duela euskaraz eta gaztelaniaz, eta Trebiñuko konderrian, % 39k. Bestalde, euskaraz errazago hitz egiten dutenen ehunekoa % 4,2koa da Argantzonen eta % 2,9koa Trebiñuko konderrian.

38. GRAFIKOA: Euskaldunak erraztasunaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Emakume euskaldunen artean gizonetzkoen artean baino altuagoa da euskaraz eta gaztelaniaz berdín (% 40,1 eta % 37,5) eta euskaraz errazago (% 3,7 eta % 3) egiten dutenen ehunekoa.

Azken hamar urteetan, behera egin du gaztelaniaz errazago egiten dutela dioten euskaldunen ehunekoak, bai Trebiñuko konderrian baita Argantzónen ere. Bi kasuetan, gora egin du euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdina dutenen portzentajeak eta baita euskaraz errazago hitz egiten dutenenak ere. Zehatzago:

- Trebiñuko konderriaren kasuan, gaztelaniaz errazago hitz egiten dutenen ehunekoak behera egin du, 6 puntu, % 64,1etik % 58,1era. Argantzónen 5,5 puntukoa izan da jaitsiera, % 61,1etik % 55,6ra.
- Trebiñuko konderrian, euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdinarekin hitz egiten dutenen ehunekoak gora egin du, 5,9 puntu, % 33,1etik % 39ra. Argantzónen, 3,9 puntukoa izan da igoera, % 36,3tik % 40,2ra.
- Trebiñuko konderrian, euskaraz errazago egiten dutenen ehunekoak gora egin du, % 2,8tik % 2,9ra, eta Argantzónen, % 2,7tik % 4,2ra.

28. TAULA: Euskaldunak erraztasunaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022		
						Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gaztelaniaz errazago	64,1	58,1	61,1	55,6	63,2	59,6	56,2	57,3
Bietan berdin	33,1	39,0	36,3	40,2	34,0	37,5	40,1	39,4
Euskaraz errazago	2,8	2,9	2,7	4,2	2,8	3,0	3,7	3,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Lehen hizkuntzaren arabera

Biztanle euskaldunen artean, lotura handi bat ikusten da euskara lehen hizkuntza izatearen eta hizkuntza horretan errazago hitz egitearen artean:

- Lehen hizkuntza euskara dutenen artean, % 28,6k errazago hitz egiten du euskaraz; aldiz, lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen artean, ehuneko hori % 1,7ra jaisten da; eta lehen hizkuntza gaztelania dutenen artean, % 1,2ra.
- Euskara lehen hizkuntza dutenen artean, gaztelaniaz erraztasun handiagoa dutela diotenak % 14,3 dira; lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen artean, % 30,6ra igotzen da; eta lehen hizkuntza gaztelania dutenen artean, % 69,7ra.
- Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen artean, % 67,8k erraztasun berdina dauka bi hizkuntzak hitz egiteko; lehen hizkuntza euskara dutenen artean ehuneko hori % 57,8koa da eta lehen hizkuntza gaztelania bakarrik dutenen artean % 29ra jaisten da.

39. GRAFIKOA: Euskaldunen hizkuntza-gaitasun erlatiboa, lehen hizkuntzaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dituzten eta bi hizkuntzak erraztasun berdinarekin hitz egiten dituzten biztanle euskaldunen ehunekoak areagotu egin da, modu nabarmenean.

- Euskara lehen hizkuntza dutenen artean, euskara eta gaztelania erraztasun berdinarekin hitz egiten dituztenen ehunekoak gora egin du, 12,7 puntu (% 44,4tik % 57,1era).
- Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen artean, bi hizkuntzak erraztasun berdinarekin hitz egiten dituztenen ehunekoak gora egin du, 9,5 puntu (% 58,3tik % 67,8ra).

Azken hamar urteetan ikusi da, halaber, euskara edo euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dituzten eta euskaraz errazago hitz egiten dutela dioten biztanle euskaldunen ehunekoak behera egin dutela:

- Lehen hizkuntza euskara dutenen artean, hizkuntza horretan errazago aritzen direnen ehunekoak behera egin du, 4,7 puntu (% 33,3tik % 28,6ra)
- Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen artean, euskaraz errazago hitz egiten dutenen ehunekoak behera egin du, 2,5 puntu (% 4,2tik % 1,7ra).

29. TAULA: Euskaldunen hizkuntza-gaitasun erlatiboa, lehen hizkuntzaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)


	Lehen hizkuntza						Guztira	
	Euskara		Euskara eta gaztelania		Gaztelania			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz errazago	22,2	14,3	37,5	30,6	70,5	69,7	63,2	57,3
Bietan berdin	44,4	57,1	58,3	67,8	29,5	29,0	34,0	39,4
Euskaraz errazago	33,3	28,6	4,2	1,7	0,0	1,2	2,8	3,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Lehen Hezkuntzako hizkuntza-ereduaren arabera

Oinarrizko ikasketak D hizkuntza-ereduan egin dituzten edo egiten ari diren biztanle euskaldunek neurri handiagoan diote erraztasun berarekin hitz egiten dutela euskaraz eta gaztelaniaz (% 49,3) edo euskaraz (% 4,2), beste ereduetan ikasi dutenekin alderatuz (% 75ek adierazi du gaztelaniaz hitz egiten duela errazago).

40. GRAFIKOA: Euskaldunak erraztasunaren eta lehen hezkuntzan ikasi duten hizkuntza-ereduaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, biztanle euskaldunen artean, euskaraz gaztelaniaz bezain erraz egiten dutela adierazi dutenen ehunekoak gora egin du. Bai oinarrizko hezkuntza D ereduan egin dutenen artean, baita beste eredu batean egin dutenen artean ere. Nolanahi ere, D ereduan ikasi dutenen artean hazkunde hori mugatuagoa da:

- D ereduan ikasi dutenen edo ikasten ari direnen artean, 2,6 puntukoa izan da igoera (% 46,7tik % 49,3ra).
- Beste eredu linguistikoetan ikasten dutenen edo ikasten ari direnen artean, igoera 10,2 puntukoa da (% 12,8tik % 23ra).

30. TAULA: Euskaldunak erraztasunaren eta lehen hezkuntzan ikasi duten hizkuntza-ereduaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	D eredua		B, A, X eredua		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz errazago	49,2	46,5	86,5	75,1	63,2	57,2
Bietan berdín	46,7	49,3	12,8	23,0	34,0	39,5
Euskaraz errazago	4,1	4,2	0,7	1,9	2,8	3,3
GUZTIRA	100,0	100,0	86,5	100,0	100,0	100,0


Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Generoaren eta adinaren arabera

Emakume euskaldunen artean, gizon euskaldunen artean baino altuagoa da euskaraz errazago hitz egiten dutenen ehunekoa (% 3,7 eta % 3, hurrenez hurren), eta euskaraz eta gaztelaniaz berdín egiten dutenena (% 40,1 eta % 37,5 hurrenez hurren).

Gorabehera txikiekin bada ere, adinean behera egin ahala, behera egiten du modu progresiboan euskaraz gaztelaniaz baino errazago egiten duten euskaldunen ehunekoak: 64 urtez gorakoen artean %16,7koa da, %7,1koa 50-64 urte artean, 16-24koen artean % 2,9koa eta 2-15 urte artean % 1,4koa. Gaztelaniaz errazago egiten dutenen ehunekoak ere, joera orokor modura, behera egiten du adinean behera egin ahala: 50-64koen artean %71,4koa da, 35-49koen artean %64,4koa, eta %54,5koa 2-15 urtekoen artean.

41. GRAFIKOA: Euskaldunak erraztasunaren, generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

31. TAULA: Euskaldunak erraztasunaren eta generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gaztelaniaz errazago	59,6	56,2	57,3
Bietan berdina	37,5	40,1	39,4
Euskaraz errazago	3,0	3,7	3,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, aztertu diren adin-tarte ia guztietan, gora egin du euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun berdina dutenen ehunekoak, baita euskaraz errazago egiten dutenenak ere.

32. TAULA: Euskaldunak erraztasunaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz errazago	58,1	54,5	47,5	53,4	73,4	47,0	73,5	64,4	66,7	71,4	100,0	66,7	63,2	57,3
Bietan berdin	38,2	44,1	52,5	43,7	21,9	47,0	25,3	32,2	0,0	21,4	0,0	16,7	34,0	39,4
Euskaraz errazago	3,7	1,4	0,0	2,9	4,7	6,1	1,2	3,4	0,0	7,1	0,0	16,7	2,8	3,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

4.

Euskararen erabilera

4.1. EUSKARAREN ERABILERA EGUNEROKO BIZITZAN

a. Euskararen erabilera biztanlerian, orokorrean

Euskara sozialki erabili ahal izateko, ezinbestekoa da, jakina, euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa izatea. Baina ezinbestekoa da, halaber, euskara ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna duten pertsonekin hizkuntza erabiltzeko aukera izatea.


Trebiñuko enklabeko biztanleek, oro har, honela erabiltzen dute euskara, neurri handiagoan edo txikiagoan:

- Ikaskideekin % 62,2, (% 16,7k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 20,9k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, eta % 24,6k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- 25 urtetik beherako neba-arrebeekin % 30,3 (% 15,7k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 11,4k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste eta % 3,2k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago).
- Lagunekin % 19,1 (% 10,5ek gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 6,1ek euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, % 2,5ek euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- Lanean % 14,1 (% 5,8k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 4,3k gaztelaniaz euskaraz bezainbeste, eta % 4k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- Etxean % 13,7 (% 7,5ek gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 4,3k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste eta % 1,9k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).

Datu horien ondorio nagusia da euskararen erabilera apalena etxean gertatzea zailtasun handia dela, hizkuntza horren ikasketari, transmisioari eta hizkuntza-ohitu-

rak barneratzeari begira; izan ere, etxea eta familia, lehen mailako sozializazio-talde nagusia izateaz gain, hizkuntza-komunikazioa erregistro osoan garatzeko aukera ematen duen eremuetako bat da: ideiak, sentsazioak, sentimenduak eta emozioak transmititzen dira. Eta horrek, hizkuntza menderatzea eskatzen du, erregistro formalean zein informalean.

42. GRAFIKOA: Euskararen erabilera, eguneroko bizitzako hainbat eremutan, biztanleria osoarekiko. Trebiñuko enklabea, 2012-2022. (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, euskararen erabilera, neurri handiagoan edo txikiagoan: 3,3 puntu areagotu da etxean (% 10,4tik % 13,7ra pasa da), lagunekin berdin mantendu da (% 19,1), lanean 5,9 puntu igo da (% 8,2tik % 14,1era) eta 25 urtetik beherako neba-arreben artean 3,8 puntu jaitsi da (% 34,1etik % 30era).

Gaztelaniaz zein euskaraz modu berean, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo beti euskaraz egiten duten pertsonak bakarrik kontuan hartuta, ikus daiteke, azken hamarkadan, aztertutako eremu guztietan, euskararen erabilera gora egin duela. Izan ere: etxean 3,5 puntukoa da igoera (% 2,7tik % 6,2ra) lagunekin 1,2 puntukoa (% 7,4tik % 8,6ra), lanean 2,2 puntukoa (% 3,7tik % 5,9ra) eta 25 urtetik beherako neba-arreben artean 0,6 puntukoa (% 14tik % 14,6ra).

33. TAULA: Euskararen erabilera, eguneroko bizitzako hainbat eremutan, biztanleria osoarekiko. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Eguneroko bizitzako eremuak									
	Etxean		Lagunekin		Lankideekin (lanean ari direnak soilik)		Ikaskideekin (ikasleak soilik)		Neba-arrebekin (<25 urte)	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,7	7,5	11,7	10,5	4,5	5,9		16,7	20,1	15,7
Euskaraz gaztelaniaz beste	1,8	4,3	5,8	6,1	1,8	4,4		20,3	10,2	11,4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago (beti euskaraz barne)	0,9	1,9	1,6	2,5	1,9	4,0		24,6	3,8	3,2
<i>Subtotala</i>	10,4	13,7	19,1	19,1	8,2	14,1		62,2	34,1	30,3
Beti gaztelaniaz	89,6	86,3	80,8	80,9	91,8	85,7		37,8	65,9	69,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0		100,0	100,0	100,0


Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Euskararen erabilera biztanle euskaldunen artean

Biztanle euskaldunak soilik kontuan hartuz (% 30,5), ondorengo euskararen erabilera-datuak edukiko genituzke, eguneroko bizitzako egoera ezberdinetan:

- Ikaskideekin % 77 (% 20,3k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 26,1ek euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, % 30,7k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- 25 urtetik beherako neba-arrebekin, % 51,9 (% 26,8k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 19,7k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, % 5,4k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- Lagunekin % 56,8 (% 28,7k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 19,9k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, % 8,3k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- Lanean % 48,7 (% 17,9k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 16,3k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, % 14,6k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- Etxean % 35,7 (% 17,6k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 12,1k gaztelaniaz euskaraz bezainbeste, % 6k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).

43. GRAFIKOA: Euskaldunen hizkuntza-erabilera, eguneroko bizitzako hainbat eremutan (biztanleria euskaldunarekiko). Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Biztanle euskaldunak soilik kontuan hartuz, azken hamar urteetan, ondorengoia izan da euskararen erabileraren bilakaera: etxean 3,5 puntu areagotu da (% 32,2tik % 35,7ra), lagunekin behera egin du (% 71,3tik % 56,8ra), lanean 4 puntu igo da (% 44,7tik % 48,7ra) eta 25 urtetik beherako neba-arreben artean 3,7 puntu jaitsi da (% 55,6tik % 51,9ra).

34. TAULA: Euskaldunen hizkuntza-erabilera, eguneroko bizitzako hainbat eremutan (biztanleria euskaldunarekiko). Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Eguneroko bizitzako eremuak									
	Etxean		Lagunekin		Lankideekin		Ikaskideekin		Neba-arrebekin	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	22,0	17,6	37,6	28,7	22,0	17,9		20,3	31,4	26,8
Euskaraz gaztelaniaz beste	6,6	12,1	26,6	19,9	10,0	16,3		26,0	17,6	19,7
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago (beti euskaraz barne)	3,6	6,0	7,1	8,3	12,7	14,6		30,7	6,6	5,4
Subtotala	32,2	35,7	71,3	56,8	44,7	48,7		77,0	55,6	51,9
Beti gaztelaniaz	67,7	64,3	28,7	43,2	55,3	51,2		23,0	44,4	48,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0		100,0	100,0	100,0


Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

4.2. EUSKARAREN EZAGUTZA EUSKALDUNEN HARREMAN-SAREAN

Biztanle euskaldunen gizarte-sare linguistikoei dagokionez, ikusten da hezkuntza dela euskara ezagutzen duten pertsonen dentsitate handieneko eremua. Lagunartea hurrengoa eta lan-arloa azkena. Izan ere:

- Ikasten ari diren biztanle euskaldunen % 90,8k adierazi du ikaskide guztiek edo gehienek euskara ezagutzen dutela.
- Euskaldunen % 59,2k adierazi du bere lagun gehienek badakitela euskaraz, % 16,6k erdiek baino gehiagok dakitela, % 12,5ek erdiek dakitela, % 9,2k erdiek baino gutxiagok eta % 2,6k inork ez edo ia inork ez dakiela.
- Lanean ari diren biztanle euskaldunen % 31,2k adierazi du lankide guztiek edo gehienek dakitela euskara, % 13,6k erdiek baino gehiagok dakitela, % 14,4k erdiek dakitela, % 21,2k erdiek baino gutxiagok eta % 19,3k inork ez edo ia inork ez.

44. GRAFIKOA: Euskararen ezagutza euskaldunen harreman-sarean. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, nabarmentzekoa da, lanean ari diren biztanleen artean, lan-kide guztiak edo ia guztiak euskaldunak dituztenen ehunekoa handitu egin dela (13,9 puntu, % 17,3tik % 31,2ra), hizkuntza hori lan arloan erabiltzeko aukerak areagotuz.

Neurri apalagoan bada ere, antzeko zerbaitek gertatu da lagunekin ere, lagun guztiak edo ia guztiak euskaldunak dituztenen ehunekoak 7,9ko igoera izan baitu, % 51,3tik % 59,2ra.

Denbora-tarte horretan bertan, ikasten ari diren biztanleen artean, ikaskide guztiak edo ia guztiak euskaldunak dituztenen ehunekoan jaitsiera txiki bat izan da (% 93,2tik % 90,8ra).

35. TAULA: Euskararen ezagutza biztanle euskaldunen harreman-sarean (% 30,5ekiko). Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskal hiztunen harreman-sarea					
	Lagunekin		Lankideekin		Ikaskideekin	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Inork edo ia inork ez	5,3	2,6	23,3	19,6	0,0	0,7
Erdiek baino gutxiagok	12,4	9,2	22,7	21,2	0,0	1,0
Erdiek	15,0	12,5	18,7	14,4	1,8	1,7
Erdiek baino gehiagok	16,0	16,6	18,0	13,6	5,0	5,8
Denek edo ia denak	51,3	59,2	17,3	31,2	93,2	90,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


4.3. EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA ETA EUSKARAREN ERABILERA NEBA-ARREBEKIN ETA LAGUNEKIN

a. Euskaldunen euskararen erabilera 25 urtetik beherako neba-arrebekin

Biztanleen % 12,3 dira 25 urtetik beherako neba-arrebak dituen euskaldunak. Horien % 47,7k gaztelania bakarrik erabiltzen du 25 urtetik beherako neba-arrebekin, % 27k gaztelania euskara baino gehiago, % 19,8k euskara eta gaztelania berdina eta % 6,5ek euskara bakarrik. Hortaz, euskararen erabilera, erabilera-maila ezberdinak kontuan hartuz, % 52,3koa da.

Azken hamar urteetan, 25 urtetik beherako neba-arrebekin gaztelaniaz bakarrik ari ziren diren biztanle euskaldunen ehunekoak gora egin du, 3,3 puntu (% 44,4tik % 47,7), gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen dutenak behera, 4,4 puntu (% 31,4tik % 27ra), euskara eta gaztelania berdina erabiltzen dutenak gora, 1,6 puntu (% 17,6tik % 19,8ra) eta euskara bakarrik erabiltzen dutenak behera, 1,1 puntu (% 6,6tik % 5,5era). Hortaz, euskararen erabilera, erabilera-maila ezberdinak aintzat hartuta, 2,4 puntuko jaitsiera izan du azken hamarkadan.

45. GRAFIKOA: Euskaldunen euskararen erabilera 25 urtetik beherako neba-arrebekin. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

**b. Euskaldunen hizkuntza-gaitasun erlatiboa, eta euskararen erabilera 25 urte-
tik beherako neba-arrebekin**

25 urtetik beherako neba-arrebekin euskaldunek egiten duten hizkuntza-erabilera ezberdina da euskaraz duten hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera. Beraz:

- Euskaraz errazago egiten duten pertsona euskaldunen % 75ek euskaraz gehiago egiten diete 25 urtez beherako neba-arrebei.
- Euskaraz gaztelaniaz bezain erraz egiten duten pertsona euskaldunen % 7k euskaraz egiten die gehiago, % 40k bi hizkuntzetan berdin, % 25,7k gaztelaniaz gehiago eta % 26,7k gaztelaniaz bakarrik.
- Gaztelaniaz errazago egiten duten pertsona euskaldunen % 2,3k euskaraz egi-
ten die gehiago, % 4,5ek bietan berdin, % 27k gaztelaniaz gehiago eta % 65,3k
gaztelaniaz bakarrik.

Azken hamar urteetan, azpimarratu daiteke euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdinarekin hitz egiten duten pertsona euskaldunek neurri handiagoan hitz egiten dutela bi hizkuntzetan edo euskaraz bakarrik 25 urtetik beherako neba-arrebekin (Ehunekoak 9 puntuko hazkundera izan du: 2012an % 38,3, 2022an % 47,6). Aitzitik, gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun handiagoa duten biztanle euskaldunen kasuan, gaztelaniaz bakarrik hitz egiten dutenen ehunekoak gora egin du (8,7 puntuko igoera, % 56,3tik % 65era).

36. TAULA: Euskaldunen hizkuntza-gaitasun erlatiboa eta euskararen erabilera 25 urtetik beherako neba-arrebekin. Trebiñuko enklabea, 2021-2022 (%)

Hizkuntzaren erabilera neba-arrebekin	Hizkuntza-gaitasun erlatiboa						Guztira	
	Euskaraz hobeto hitz egiten du		Bietan berdin		Gaztelaniaz hobeto hitz egiten du			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	0,0	0,0	33,8	26,7	56,3	65,2	44,4	47,7
Gaztelaniaz gehiago	0,0	25,0	27,9	25,7	36,3	28,0	31,4	27,0
Bietan berdin	0,0	0,0	32,4	40,6	6,3	4,5	17,6	19,8
Euskaraz gehiago	100,0	75,0	5,9	7,0	1,3	2,3	6,6	5,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


c. Euskararen erabilera lagunekin, biztanleria orokorrean kontuan hartuz

Trebiñuko enklabeko biztanleen % 19,1ek euskara erabiltzen du lagunekin (% 10,5ek gaztelania gehiago, % 6k euskara eta gaztelania neurri berean eta % 2,5ek euskara gehiago).

Emakumeen artean altuagoa da lagunekin euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoa. Gizonen artean, aldiz, emakumeen artean baino altuagoa da lagunekin beti gaztelaniaz hitz egiten dutenen ehunekoa (% 82,9 eta % 79,2, hurrenez hurren).

Adinean behera egin ahala, lagunarteko euskararen erabilera gora egiten du, modu progresiboan. Horrela, 64tik gorakoen artean % 98,6koa da gaztelania bakarrik erabiltzen dutenen ehunekoa, 50-64koen artean % 90,2koa, 35-49koen artean % 83,1koa, 25-34koen artean % 74,5koa, 16-24koen artean % 64,7koa, eta 2-15 urtekoen artean % 47,3koa.

46. GRAFIKOA: Euskararen erabilera lagunekin, generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

37. TAULA: Euskararen erabilera lagunekin, generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	82,2	82,9	79,3	79,2	80,8	80,9
Gaztelaniaz gehiago	10,5	9,2	13,3	11,9	11,7	10,5
Bietan berdin	5,9	4,9	5,7	6,7	5,8	6,1
Euskaraz gehiago	1,4	2,9	1,7	2,1	1,6	2,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan ikusten da, adinaren arabera, lagunarteko euskararen erabilera gora egin duela, 24 urtera arte (2-15 urtekoen artean 10 puntu, 16-24koen artean 3,2 puntu), baina adin horretatik aurrera, euskararen erabilera behera egin du.

38. TAULA: Euskararen erabilera lagunekin, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	36,8	47,3	61,5	64,7	87,3	74,5	88,9	83,1	95,2	90,2	99,5	98,6	80,8	80,9
Gaztelaniaz gehiago	34,5	27,9	24,0	23,3	11,0	11,1	7,3	10,0	3,1	5,6	0,5	0,5	11,7	10,5
Bietan berdin	22,3	17,7	11,5	9,8	1,4	11,1	3,2	4,4	1,4	2,7	0,0	0,7	5,8	6,1
Euskaraz gehiago	6,4	7,1	3,1	2,3	0,4	3,3	0,6	2,5	0,3	1,6	0,0	0,2	1,6	2,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Euskararen erabilera lagunekin, euskaldunak bakarrik kontuan hartuz


Trebiñuko enklabea euskaldunen % 43,3k gaztelania erabiltzen du beti lagunekin, % 28,7k gaztelania euskara baino gehiago, % 19,9k euskara gaztelania bezainbeste eta % 8,3k beti euskara.

Azken hamar urteetan, lagunekin beti euskaraz egiten duten euskaldunen ehunekoak igo egin da (1,2 puntuko hazkundea, 2012ko % 7,1etik 2022ko % 8,3ra). Baina gora egin du, eta gehiago, beti gaztelaniaz aritzen direnen ehunekoak ere (14,5 puntuko hazkundea, % 28,7tik % 43,2ra).

Hamarkada honetan behera egin du lagunekin gaztelaniaz euskaraz baino gehiago hitz egiten duten euskaldunen ehunekoak (% 37,6tik % 28,7ra) eta baita bi hizkuntzak berdinduz erabiltzen dituztenenak ere (% 26,6tik % 19,9ra jaisten da).


Datu horiek agerian uzten dute, azken hamar urteetan, euskaldunen lagunarteko euskararen erabilera behera egin duela.

47. GRAFIKOA: Euskaldunen euskararen erabilera lagunekin. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

48. GRAFIKOA: Euskaldunen euskararen erabilera lagunekin, generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Gizonezko euskaldunek emakumezkoek baino neurri handiagoan erabiltzen dute gaztelania bakarrik lagunekin (% 45,3k eta % 42k, hurrenez hurren), baina baita euskara gaztelania baino gehiago ere (% 10 eta % 6,7).

Emakume euskaldunek gizonezkoek baino neurri handiagoan erabiltzen dute gaztelania euskara baino gehiago (% 30,7 eta % 27), eta baita bi hizkuntzak berdinean ere (% 20,7 eta % 17,5).

Edonola ere, nabarmentzekoa da lagunarteko euskararen erabilera, neurri batean edo bestean, handiagoa dela emakume euskaldunen artean gizonezko euskaldunen artean baino (% 58 eta % 54,7 hurrenez hurren).

Azken hamar urteetan, lagunarteko euskararen erabilerak, behera egin du, bai gizonezko euskaldunen artean baita emakume euskaldunen artean ere. Alabaina, gizonezkoen artean jaitsiera handiagoa izan da emakumeen artean baino. Izan ere, gizonezkoen artean 17,6 puntukoa izan da (2012ko % 72,3tik 2022ko % 54,7ra) eta emakumeen artean, 12 puntukoa (% 70,3tik % 58ra).

39. TAULA: Euskaldunen euskararen erabilera lagunekin, generoaren arabera.
Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	27,7	45,3	29,7	42,0	28,7	43,2
Gaztelaniaz gehiago	36,6	27,0	38,5	30,7	37,6	28,7
Bietan berdin	28,7	17,5	24,5	20,7	26,6	19,9
Euskaraz gehiago	7,0	10,2	7,3	6,7	7,1	8,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, 2-34 urteko euskaldunen artean, lagunarteko euskararen erabilera behera egin du. 2-15 urtekoetan 22 puntu (% 86,7tik % 64ra). 16-24koetan 34 puntu (% 80tik % 45,2ra).

Aldiz, 25-34 urtekoen artean, euskararen erabilera ehunekoak gora egin du, 9,3 puntu (% 35,9tik % 45,2ra).

40. TAULA: Euskaldunen euskararen erabilera lagunekin, adinaren arabera.
Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	13,6	36,0	20,0	54,8	64,1	44,8	39,8	43,3	26,7	49,1	100,0	33,3	28,7	43,2
Gaztelaniaz gehiago	41,9	33,3	45,0	29,8	28,1	22,4	31,3	29,2	40,0	17,5	0,0	0,0	37,6	28,7
Bietan berdin	34,6	21,8	27,5	12,5	6,3	25,4	24,1	17,5	26,7	21,1	0,0	50,0	26,6	19,9
Euskaraz gehiago	10,0	8,9	7,5	2,9	1,6	7,5	4,8	10,0	6,7	12,3	0,0	16,7	7,1	8,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

4.4. EUSKARAREN ERABILERA SARE SOZIALETAN


a. Interneten eta sare sozialen erabilera

Trebiñuko enklabeko bi urte eta gehiagoko biztanleen % 46,5ek Internet eta/edo sare sozialak (Instagram, Facebook, Twitter) egunero erabiltzen ditu, % 3,9k astean bi edo hiru aldiz, % 1,1ek asteburuetan eta % 12,1ek noizean behin. % 36,4k ez ditu inoiz erabiltzen. Beraz, % 63,6k erabiltzen ditu, maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, sare sozialak (% 36,4k ez ditu inoiz erabiltzen).

Emakumezkoek gizonzkoek baino neurri handiagoan erabiltzen dituzte Internet eta sare sozialak (emakumeen % 66,1ek erabiltzen ditu, maiztasun ezberdinarekin; gizonzkoen artean, 5,9 puntu gutxiago dira, % 61,1. Bestalde, emakumeen % 49,4k egunero edo ia egunero erabiltzen ditu Internet/sare sozialak; gizonzkoen artean 5,7 puntu gutxiago dira, % 43,7).

Erabilerarik handiena 16-24 urte bitarteko gazteek dute. Hortik aurrera, biztanleriak adinean gora egin ahala, Interneten eta sare sozialen erabilerak behera egiten du, modu progresiboan. Horrela, 16-24 urteko biztanleen artean % 92,5ek egunero erabiltzen ditu, 25-34koen artean % 79,1ek, 35-49koen artean % 66,6k, 50-64koen artean % 49,7k eta 60tik gorakoaren artean % 8,4k.

49. GRAFIKOA: Sare sozialen erabilera generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Interneten eta sare sozialen erabilera igoera handia izan da, edo jaitsiera handia haien erabilera ezan. Izan ere, 2012tik 2022ra sare sozialak egunero erabiltzen dituztenen ehunekoa 24,1 puntuko hazkundera izan da, % 22,4tik % 46,5era. Bestalde, duela hamar urte, % 59,9koa zen sare sozialak inoiz erabiltzen ez zituztenen ehunekoa; eta 2022an, % 36,4koa.

41. TAULA: Sare sozialen erabilera generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	2022	2022	2012	2022
Inoiz ez	38,9	33,9	59,9	36,4
Noizean behin	12,0	12,2	9,1	12,1
Asteburuetan	0,9	1,3	1,7	1,1
Astean bitan edo hirutan	4,4	3,2	6,8	3,9
Egunero	43,7	49,4	22,4	46,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

42. TAULA: Sare sozialen erabilera adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	2 – 15 urte		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Inoiz ez	80,4	67,4	4,2	0,8	24,4	8,5	54,3	14,7	75,4	24,4	98,6	75,3	59,9	36,4
Noizean behin	3,7	4,6	6,3	5,3	19,1	9,2	11,6	12,7	7,3	17,1	0,0	14,4	9,1	12,1
Asteburuetan	2,0	2,5	2,1	0,0	3,9	0,0	1,5	0,8	1,0	1,6	0,0	0,7	1,7	1,1
Astean bitan edo hirutan	2,7	1,4	8,3	1,5	13,4	3,3	9,0	5,2	4,5	7,3	0,0	1,2	6,8	3,9
Egunero	11,1	24,1	79,2	92,5	39,2	79,1	23,6	66,6	11,8	49,7	1,4	8,4	22,4	46,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


b. Sare sozialetan erabiltzen den hizkuntza

Trebiñuko biztanleen % 63,6k sare sozialak erabiltzen ditu. Horietatik, % 89,9k erabiltzen du gaztelania, % 4,9k ingelesa, % 3,9k euskara eta % 1,3k beste hizkuntza batzuk. Agerian gelditzen da, euskararen batez besteko erabilera, ingelesaren azpitik dagoela.

Emakumeen artean gizonezkoen artean baino altuxeagoa da euskararen erabilera (% 3,9 eta % 3,7, hurrenez hurren).

34 urtera arte, sare sozialetako euskararen batez besteko erabilerak gora egiten du (25-35 urtekoen batez besteko erabilera % 7,1ekoa da. Adin horretatik aurrera, behera egiten du erabilerak, modu progresiboan).

50. GRAFIKOA: Euskararen, gaztelaniaren, ingelesaren eta beste hizkuntzen erabilera sare sozialetan generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

43. TAULA: Euskararen, gaztelaniaren, ingelesaren eta beste hizkuntzen erabilera sare sozialetan generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

	Generoa		Adina						Guztira
	Gizonak	Emakumeak	2 – 15 urte	16 – 24 urte	25 – 34 urte	35 – 49 urte	50 – 64 urte	> 64 urte	
Euskara	3,7	3,9	4,8	7,0	7,1	3,5	2,7	0,4	3,9
Gaztelania	90,0	90,0	83,0	82,1	82,4	92,0	92,7	98,7	89,9
Ingelesa	5,2	4,6	12,0	10,3	7,7	3,6	2,6	0,5	4,9
Besterik	1,1	1,5	0,3	0,6	2,7	1,0	2,0	0,4	1,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco 2022.


c. Euskaldunek sare sozialetan erabiltzen duten hizkuntza

Sare sozialak erabiltzen dituzten euskaldunak biztanleriaren % 19,1 dira, eta horien artean, gaztelaniaren batez besteko erabilera % 80,9koa da, euskararena % 11,6koa, ingelesarena % 7koa eta beste hizkuntzena % 0,4koa. Euskararen presentziak ingelesarena gainditzen du, beraz.

Gizonezko euskaldunek euskararen batez besteko erabilera handixeagoa egiten dute emakumezko euskaldunek baino (% 11,9 eta % 10,7, hurrenez hurren).

Biztanle euskaldunen adinean aurrera egin ahala, 34 urtera arte, euskararen batez besteko erabilera igo egiten da, modu progresiboan (15 urtera arte % 6,4, 16-24 urte artean % 9 eta 25-34 urte artean % 16,1). 35-49 urte artean portzentajeak behera egiten du (% 12,5), baina hortik aurrera, gora egiten du berriro.

51. GRAFIKOA: Euskaldunen euskararen, gaztelaniaren, ingelesaren eta beste hizkuntzen erabilera sare sozialetan generoaren eta adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

44. TAULA: Biztanle euskaldunen euskararen, gaztelaniaren, ingelesaren eta beste hizkuntzen erabilera sare sozialetan generoaren eta adinaren arabera .
Trebiñuko enklabea, 2022 (%)⁷

	Generoa		Adina					Guztira
	Gizonak	Emakumeak	2 – 15 urte	16 – 24 urte	25 – 34 urte	35 – 49 urte	50 – 64 urte	
Euskara	11,9	10,7	6,4	9,0	16,1	12,5	19,2	11,6
Gaztelania	80,2	82,1	83,0	81,5	76,4	83,2	76,5	80,9
Ingelesa	7,6	6,7	10,2	9,5	6,9	4,1	2,2	7,0
Besterik	0,3	0,6	0,4	0,1	0,5	0,2	2,2	0,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco 2022.

⁷ Ez dago sare sozialak erabiltzen dituen 64 urtetik gorako euskaldunik.

5.

Euskararen sustapenaren inguruko iritziak

5.1. EUSKARAREN INGURUKO INTERESA


a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

15 urtetik gorako Trebiñuko enklabeko biztanleen % 45,5ek (guztien % 85,2k du adin hori) adierazi du interes handia (% 25,8) edo nahiko handia (% 19,7) duela euskararen inguruan. % 20k zertxobait eta % 34,6k gutxi (% 17,1) edo ezer ez (% 17,5).

Azken 20 urteetan, euskararekiko interes handia duten 15 urtetik gorako biztanleen ehunekoak gora egin du, 14,8 puntu (% 11tik % 25,8ra), eta azken hamar urteetan 10,4 puntukoa izan da igoera (% 15,4tik % 25,8ra).

Aitzitik, euskararekiko inolako interesik ez duten 15 urtetik gorako biztanleen ehunekoak behera egin du, 19,5 puntu (% 37tik % 17,5era, 2002tik 2022ra), eta azken hamar urteetan, 6,4 puntukoa izan da jaitsiera (% 23,9tik % 17,5era).

52. GRAFIKOA: **Euskararekiko interesaren bilakaera. Trebiñuko enklabea, 2002-2022 (%)**




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Gaur egun, Trebiñuko konderriko 15 urtetik gorako biztanleen % 36,8 ez dago oso interesatuta (% 18,2) edo ez dago batere interesatua (% 18,6) euskararekin. Interes falta hori Argantzonen baino handiagoa da, bertan % 29,6k adierazi baitu ez dagoela oso interesatuta (% 14,6) edo batere interesatua (% 15) ez dagoela.

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago Trebiñuko konderrian euskararen inguruko interes handia adierazi duela % 26,5ek; Argantzonen baino handixeagoa da ehuneko hori (% 24,2).

53. GRAFIKOA: Euskararekiko interesaren bilakaera bizilekuaren arabera.
Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Euskararekiko interesa Trebiñuko konderrian Argantzónen baino handiagoa bada ere, bilakaeraren ikuspuntutik, euskararekiko interesaren hazkundearen erritmoa handiagoa da Argantzónen Trebiñuko konderrian baino. Izan ere:

- Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderrian, euskararekiko interes handia duten 15 urtetik gorako biztanleen ehunekoak gora egin du, 9,8 puntu (% 16,7tik % 26,5era). Argantzónen hazkundea handiagoa da, 12,2 puntukoa (% 12tik % 24,2ra).
- Halaber, azken hamarkada honetan eta Trebiñuko konderrian, euskararekiko inolako interesik ez duten 15 urtetik gorako biztanleen ehunekoak behera egin du, 4,3 puntu (% 22,9tik % 18,6ra). Argantzónen jaitsiera handiagoa da, 11,6koa (% 26,6tik % 15era).

45. TAULA: Euskararekiko interesaren bilakaera bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria eta Argantzón, 2012-2022 eta Trebiñuko enklabea, 2002-2022 (%)

Euskararekiko interesa	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	2012	2022	2012	2022	2002	2007	2012	2022
Oso handia	16,7	26,5	12,0	24,2	11	15	15,4	25,8
Nahiko handia	24,0	18,4	24,8	22,5	19	24	24,2	19,7
Zertxobait	23,2	18,2	20,8	23,7	25	22	22,6	20,0
Txikia	13,2	18,2	15,8	14,6	8	15	13,9	17,1
Batere ez	22,9	18,6	26,6	15,0	37	23	23,9	17,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Emakumeek euskararekiko interes handiagoa erakutsi dute gizonezkoek baino. Emakumeen % 48k interes handia (% 27,9) edo nahiko handia (% 20,1) adierazi du euskararekiko; gizonezkoen artean, aldiz, % 42,9k interes handia (% 23,4) edo nahiko handia (% 19,5).

46. TAULA: Euskararekiko interesaren bilakaera, generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	2022	2022	2012	2022
Oso handia	23,4	27,9	15,4	25,8
Nahiko handia	19,5	20,1	24,2	19,7
Zertxobait	19,4	20,7	22,6	20,0
Txikia	18,3	15,9	13,9	17,1
Batere ez	19,5	15,4	23,9	17,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Biztanleriaren adinean behera egin ahala, gero eta handiagoa da biztanleek euskararen inguruan adierazten duten interesa. Horrela, 64tik gorakoen artean % 14,9k adierazi du hizkuntza horrekiko interes handia, 50-64koen artean % 25,5ek, 35-49koen artean % 28,4k, 25-34koen artean % 34,8k 16-24 urtekoen artean % 40,6k.

Azken hamar urteetan, aztertu diren adin-tarte guztietan handitu da euskararekiko interesa. 16-24koen artean bikoiztu egin da (% 20,2tik % 40,6ra pasa da), 25-34koen artean 15,4 puntukoa izan da igoera (% 19,4tik % 34,8ra), 35-49koen artean 9,6 puntukoa (% 18,8tik % 28,4ra), 50-64koen artean 14,7 puntukoa (% 10,8tik % 25,5era) eta 64 urtekoen artean 10,5ekoa (% 4,4tik % 14,9ra).

47. TAULA: Euskararekiko interesaren bilakaera, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		> 64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Oso handia	20,2	40,6	19,4	34,8	18,8	28,4	10,8	25,5	4,4	14,9	15,4	25,8
Nahiko handia	34,8	21,1	31,9	16,8	25,4	24,0	21,7	20,4	8,8	14,7	24,2	19,7
Zertxobait	15,7	15,8	23,3	23,9	26,3	24,6	18,9	17,5	18,6	17,1	22,6	20,0
Txikia	21,3	12,0	12,2	10,3	13,4	12,4	14,3	17,1	14,2	26,7	13,9	17,1
Batere ez	7,9	10,5	13,3	14,2	16,2	10,6	34,3	19,5	53,9	26,7	23,9	17,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Jaioterriaren arabera

Euskal Herrian jaioak diren 15 urtetik gorako biztanleek euskararekiko interes handiagoa adierazi dute Trebiñuko enklabean bertan edo beste leku batean jaioak direnek baino. Zehazki, Euskal Herrian jaioak diren biztanleen % 53,2k interes oso handia (% 31,1) edo nahiko handia (% 22,2) adierazi du euskararekiko. Enklabean jaioak direnen artean, aldiz, % 43,1ek interes oso handia (% 25,6) edo nahiko handia (% 17,5) adierazi du euskararekiko.

Edonola ere, azken hamar urteetan, enklabean bertan jaioak diren biztanleen artean euskararekiko interes-maila nabarmen gehiago handitu da Euskal Herrian jaioak direnen artean baino. Izan ere, enklabean jaioak direnen artean, interes oso handia edo nahiko handia dutenen ehunekoak 15,9 puntuko hazkundera izan du (% 27,2tik

% 43,1era). Euskal Herrian jaioak direnen artean, berriz, 0,8 puntu egin du behera (% 54,1etik % 53,3ra). Hala ere, interes oso handia erakutsi dutenen artean gora egin du, 8,6 puntu (% 22,5etik % 31,1era).

48. TAULA: Euskararekiko interesaren bilakaera, jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Jaioterria						Guztira	
	Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Oso handia	9,6	25,6	22,5	31,1	6,5	15,0	15,4	25,8
Nahiko handia	17,6	17,5	31,6	22,2	15,3	16,4	24,2	19,7
Zertxobait	22,4	18,5	22,5	19,1	22,8	22,9	22,6	20,0
Txikia	13,5	14,8	11,7	14,8	18,5	23,1	13,9	17,1
Batere ez	36,9	23,6	11,6	12,9	37,0	22,6	23,9	17,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Euskara-gaitasunaren arabera

Euskara-gaitasunari erreparatuz, ikusten da biztanle euskaldunak direla euskararekiko interes handiena adierazten dutenak, euskaldun hartzaileak ondoren eta erdaldunak azkenik. Hortaz:

- Biztanle euskaldunen % 78,6k interes oso handia (% 59,7) edo nahiko handia (% 18,9) adierazi du euskararekiko.
- Biztanle euskaldun hartzaileen % 65,1ek interes oso handia (% 28,8) edo nahiko handia (% 36,3) adierazi du euskararekiko.
- Biztanle erdaldunen % 30ek interes oso handia (% 13,7) edo nahiko handia (% 16,6) adierazi du euskararekiko.

Bilakaeraren ikuspuntutik, azken hamar urteetan ezberdina izan da euskararekiko interes-mailaren hazkundera, gaitasun linguistikoaren arabera: biztanle euskaldunak genituzke lehenengo, erdaldunak ondoren eta euskaldun hartzaileak azkenik. 2012tik 2022ra nabarmenduko genuke:

- Euskararekiko interes oso handia adierazi duten biztanle euskaldunen ehunekoak 13,4 puntuko hazkundea izan du (% 46,3tik % 59,7ra).
- Euskararekiko interes oso handia adierazi duten biztanle erdaldunen ehunekoak 7 puntuko igoera izan du (% 6,7tik % 13,7ra).
- Euskararekiko interes oso handia adierazi duten biztanle euskaldun hartzaileen portzentajeak 2,7 puntuko igoera izan du (% 26,1etik % 28,8ra).

Interes altua (oso handia) eta interes erlatiboa (nahiko handia) batera kontuan hartuz gero, azken hamar urteotako interes-mailaren hazkundea ezberdina da, gaitasunaren arabera. Biztanle erdaldunak lehen tokian (5,2 puntuko igoera, % 25,1etik % 30,3ra), biztanle euskaldun hartzaileak ondoren (4,2 puntuko igoera, % 60,9tik % 65,1era) eta biztanle euskaldunak azkenik (8 puntuko jaitsiera, % 86,6tik % 78,6ra).

49. TAULA: Euskararekiko interesaren bilakaera, euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskara-gaitasuna						Guztira	
	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Oso handia	46,3	59,7	26,1	28,8	6,7	13,7	15,4	25,8
Nahiko handia	40,3	18,9	34,8	36,3	18,4	16,6	24,2	19,7
Zertxobait	10,0	13,9	22,9	23,7	25,0	21,3	22,6	20,0
Txikia	3,0	5,6	10,7	7,0	16,9	23,1	13,9	17,1
Batere ez	0,5	1,9	5,5	4,2	33,0	25,4	23,9	17,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

f. Erroldatzearen arabera

Trebiñuko enklabean erroldatuta ez dauden biztanleen artean handiagoa da euskararekiko interes-maila erroldatuta dauden artean baino. Diferentzia hori are handiagoa da Argantzonen, gainera. Zehatzago:

- Trebiñuko enklabean erroldatuta ez dauden biztanleen artean, % 48,1ek interes oso handia (% 29,1) edo nahiko handia (% 19) adierazi du; erroldatuta dauden artean, ehunekoa 4,6 puntu txikiagoa da; beraz, % 43,5k interes oso handia (% 23,5) edo nahiko handia (% 20) adierazi du.

- Argantzonen erroldatuta ez dauden artean, % 51,7k euskararekiko interes oso handia (% 31,2) edo nahiko handia (% 20,5) adierazi du; erroldatuta dauden artean ehunekoa txikiagoa da (8,3 puntukoa), % 43,4k adierazi baitu interes oso handia (% 19,6) edo nahiko handia (% 23,8).
- Trebiñuko konderrian erroldatuta ez dauden artean, % 46,4k interes oso handia (% 28,1) edo nahiko handia (% 18,3) adierazi du euskararekiko; erroldatuta dauden artean, portzentajea 2,8 puntu apalagoa da, % 43,6k adierazi baitu interes oso handia (% 25,4) edo nahiko handia (% 18,2).

Azken hamar urteetan, euskararekiko interes altuaren hazkundea nabarmenagoa izan da erroldatuta ez dauden artean erroldatuta dauden artean baino. Horrela, 2012tik 2022ra, erroldatuta ez dauden artean euskararekiko interes oso handia adierazi dutenen ehunekoak 11,5 puntuko hazkundea izan du (% 17,6tik % 29,1era), erroldatuta dauden artean, aldiz apalagoa izan da igoera (8,6 puntukoa, % 14,9tik % 23,5era).

50. TAULA: Euskararekiko interesaren bilakaera, erroldatzearen arabera.
Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria		Erroldatu gabeko biztanleria	
	2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Oso handia	25,4	28,1	19,6	31,2	14,9	23,5	17,6	29,1
Nahiko handia	18,2	18,3	23,8	20,5	23,3	20,0	27,9	19,0
Zertxobait	19,5	16,2	26,4	19,0	23,3	21,8	19,7	17,1
Txikia	16,9	20,5	14,1	15,6	14,2	16,0	12,8	19,0
Batere ez	20,1	16,8	16,1	13,7	24,3	18,8	22,1	15,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

5.2. HAURREK ZEIN HIZKUNTZA-EREDUTAN IKASI BEHAR LUKETEN


a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

Trebiñuko enklabeko 15 urtetik gorako biztanleen % 50,2k adierazi du, eskola-adineko seme-alabak edukiko balitu, nagusiki euskaraz ikastea nahi lukeela; % 30,3k gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, % 8,5ek gaztelaniaz eta ingelesez eta % 8,2k gaztelaniaz eta ingelesez, euskara irakasgaiarekin. Agerian gelditzen da, beraz, seme-alaben hezkuntza-prozesuan ingelesari ematen zaion garrantzia.

Azken hamar urteetan hazkunde nabarmena izan du seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketenen ehunekoak (22,6 puntuko igoera, % 27,6tik % 50,2ra). Aitzitik, jaitsiera nabarmena izan da seme-alabek gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez ikas dezaten nahi luketenen ehunekoan (15,4 puntuko jaitsiera, % 45,7tik % 30,3ra).

Azken hamarkadan behera egin du, halaber, seme-alabek gaztelaniaz eta ingelesez ikas dezaten nahi luketenen ehunekoak (4,1 puntuko jaitsiera, % 12,6tik % 8,5era). Seme-alabek gaztelaniaz eta ingelesez ikastea eta euskara irakasgai gisa edukitzea nahi luketenen ehunekoak ere behera egin du (5,6 puntu, % 13,8tik % 8,2ra).

54. GRAFIKOA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Trebiñuko konderrian, Argantzonen baino altuagoa da eskolatzeko adinean dauden seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketen ehunekoa (% 53,3 eta % 43,5, hurrenez hurren). Altuagoa da, halaber, seme-alabek gaztelaniaz eta ingelesez ikas dezaten nahi luketen ehunekoa.

Argantzonen, Trebiñuko konderrian baino altuagoa da seme-alabek gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez nahi luketen ehunekoa (% 36,2 eta % 27,7, hurrenez hurren). Altuagoa da, halaber, seme-alabek gaztelaniaz eta ingelesez ikas dezaten nahi luketena, euskara irakasgai izanik (% 11,3 eta % 6,8, hurrenez hurren).

55. GRAFIKOA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzonen eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamarkadan, Trebiñuko konderrian, seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketen ehunekoak gora egin du, 26,9 puntu (% 26,4tik % 53,3ra). Argantzonen, aldiz, igoera txikiagoa izan da (12,7 puntukoa, % 30,8tik % 43,5era).

Azken hamar urteetan, seme-alabek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ikastea nahi luketen ehunekoaren jaitsiera handiagoa izan da Trebiñuko konderrian Argantzonen baino. Lehen udalerrian 20 puntukoa izan da jaitsiera (% 47,7tik % 27,7ra), bigarrean, aldiz, 4,2 puntukoa (% 40,4tik % 36,2ra).

51. TAULA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

Ikasketarako hizkuntza	Bizilekua				Trebiñuko enklabea	
	Trebiñuko konderria		Argantzón			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	13,2	9,1	11,0	7,1	12,6	8,5
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	12,5	6,8	17,3	11,3	13,8	8,2
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	47,7	27,7	40,4	36,2	45,7	30,3
Batez ere euskaraz	26,4	53,3	30,8	43,5	27,6	50,2
Ed/Ee	0,3	3,2	0,5	1,9	0,3	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Generoaren arabera, diferentzia nabarmenak daude gizonezkoen eta emakumezkoen artean, seme-alaben ikasketetako hizkuntzaren gaiari dagokionez.

52. TAULA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen, generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	2022	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	9,1	7,9	12,6	8,5
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	8,2	8,3	13,8	8,2
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	29,2	31,7	45,7	30,3
Batez ere euskaraz	50,5	49,7	27,6	50,2
Ed/Ee	3,0	2,6	0,3	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

64 urtetik gorako biztanleak dira, batez ere, seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi luketela adierazi dutenak (% 41,9). Gai honen inguruko iritzirik eman ez dutenen ehuneko handieneko adin-tartea ere bada (“ez daki/ez du erantzuten”).

25 urtetik aurrera, seme-alabek gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez ikas dezaten nahi luketenen ehunekoak gora egiten du.

Azken hamar urteetan, aztertu ditugun adin-tarte guztietan, gora egin du seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketela adierazi dutenen ehunekoak. Izan ere, 16-24 urte artean, 21,5 puntukoa izan da hazkundea (% 29,2tik % 50,7ra), 25-34 urte artean 20,7 puntukoa (% 34,8tik % 55,5era), 35-49 urte artean 21,9 puntukoa (% 33,4tik % 55,3ra), 50-64 urte artean 27,9 puntukoa (% 22,7tik % 50,6ra) eta 64 urtetik gorakoaren artean 35,5 puntukoa (% 6,4tik % 41,9ra).

53. TAULA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		>64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	6,7	6,7	7,5	11,6	10,3	8,3	14,3	7,8	26,5	8,9	12,6	8,5
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	15,7	7,5	9,3	6,5	16,5	7,0	11,2	8,4	14,7	10,3	13,8	8,2
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	47,2	30,6	47,7	25,2	39,8	29,4	51,7	31,7	51,5	31,8	45,7	30,3
Batez ere euskaraz	29,2	50,7	34,8	55,5	33,4	55,3	22,7	50,6	6,4	41,9	27,6	50,2
Ed/Ee	1,1	4,4	0,7	1,3	0,0	0,0	0,0	1,5	1,0	7,2	0,3	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Jaioterriaren arabera

Euskal Herrian jaioak direnen artean, Trebiñun edo beste tokiren batean jaioak direnen artean baino altuagoa da seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi luketenen ehunekoa (Euskal Herrian jaioak direnen % 59,2, Trebiñuko enklabeen jaioak direnen % 39,1 eta beste tokietan jaioak direnen % 39,9).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabeen jaio direnen artean, seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketenen ehunekoak gora egin du, 23,7 puntu (% 15,4tik % 39,1era). Euskal Herrian jaioak direnen artean, hazkunde hori apalagoa izan da (19,7 puntu, % 39,5etik % 59,2ra).

54. TAULA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen, jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

Ikasketarako hizkuntza	Jaioterria						Guztira	
	Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	17,0	12,8	5,8	5,8	22,0	11,0	12,6	8,5
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	15,4	9,4	11,9	6,1	16,3	11,4	13,8	8,2
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	51,6	34,0	42,4	27,2	47,3	34,1	45,7	30,3
Batez ere euskaraz	15,4	39,1	39,5	59,2	14,5	39,9	27,6	50,2
Ed/Ee	0,6	4,7	0,4	1,6		3,6	0,3	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Euskara-gaitasunaren arabera

Biztanle euskaldunen artean altuagoa da seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketela dioten ehunekoa (% 71,2). Biztanle euskaldun hartzailleak daude ondoren (% 61,4) eta erdaldunak azkenik (% 40,8).

Azken hamar urteetan, seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketela adierazi duten erdaldunen ehunekoak gora egin du, 24 puntu (% 16,8tik % 40,8ra). Euskaldunen artean igoera 15 puntukoa izan da (% 56,2tik % 71,2ra). Euskaldun hartzailleen artean, igoera 13,2 puntukoa izan da.

55. TAULA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen, euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskara-gaitasuna						Guztira	
	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	0,5	0,6	2,4	2,8	17,5	12,3	12,6	8,5
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	4,5	2,5	9,5	6,0	16,7	10,6	13,8	8,2
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	38,3	24,1	39,5	28,8	48,7	32,8	45,7	30,3
Batez ere euskaraz	56,2	71,2	48,2	61,4	16,8	40,8	27,6	50,2
Ed/Ee	0,5	1,7	0,4	1,0	0,3	3,5	0,3	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

f. Erroldatzearen arabera

Seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketela adierazi dutenen ehunekoa altuagoa da Trebiñuko enklabea erroldatuta ez daudenen artean (% 52,4) erroldatuta daudenen artean baino (% 48,3). Alde hori handiagoa da Argantzonen, erroldatuta ez daudenen artean % 49,3koa baita eta % 39,9koa erroldatuta daudenen artean.

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabea, seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketela adierazi dutenen ehunekoaren hazkundea handiagoa izan da erroldatutako biztanleen artean (21,7 puntuko igoera, % 26,6tik % 48,3ra) erroldatuta ez daudenen artean baino (20,7 puntuko igoera, % 31,7tik % 52,4ra).

56. TAULA: Seme-alabek zein hizkuntzatan ikastea nahiko luketen, inkestatuak erroldaturik dauden lekuaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria		Erroldatu gabeko biztanleria	
	2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	9,5	8,3	8,0	5,4	12,4	9,0	13,1	7,4
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	8,2	5,3	12,9	8,8	14,6	9,7	10,3	6,4
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	26,5	29,9	37,9	34,1	46,1	30,3	44,1	31,2
Batez ere euskaraz	52,5	53,7	39,9	49,3	26,6	48,3	31,7	52,4
Ed/Ee	3,4	2,7	1,3	2,5	0,3	2,7	0,7	2,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

5.3. ZEIN HIZKUNTZATAN BEHAR LUKEEN IRAKASKUNTZAK TREBIÑUKO ESKOLA PUBLIKOAN, ETA ZEIN HIZKUNTZA HAUTATUKO LUKETEN BIZTANLEEK

5.3.1. ZEIN HIZKUNTZATAN IRAKATSI BEHARKO LITZATEKEEN TREBIÑUKO ESKOLA PUBLIKOAN


a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

Biztanleen % 39k adierazi du Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela; % 36,5ek nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela, % 9,8k gaztelaniaz eta ingelesez eta antzeko ehuneko batek gaztelaniaz eta ingelesez, euskara irakasgaiarekin.

Azken hamar urteetan, gora egin du, modu nabarmenean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoak (bikoiztu egin da, % 18,2tik % 36,5era); horrekin batera, jaitsiera esanguratsua izan da irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoan (14,2 puntuko jaitsiera, % 53,2tik % 39ra). Behera egin du, halaber,

Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz eta ingelesez egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoak (% 13,7tik % 9,8). Gaztelaniaz eta ingelesez, euskara irakasgaiarekin egin beharko litzatekeela uste dutenenak ere bai (% 13,4tik % 9,8ra).

56. GRAFIKOA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)



Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


b. Bizilekuaren arabera

Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen portzentajea askoz ere altuagoa da Trebiñuko konderrian Argantzonen baino (% 41,2 eta % 26,3, hurrenez hurren).

Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoa altuagoa da Argantzonen Trebiñuko konderrian baino (% 45,2 eta % 36,1, hurrenez hurren).

Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz eta ingelesez egin beharko litzatekeela eta euskara irakasgai izan beharko litzatekeela adierazi dutenen ehunekoa ere altuagoa da Argantzonen Trebiñuko konderrian baino (% 13,1 eta % 8,2).

57. GRAFIKOA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamarkadan, Trebiñuko konderrian, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza euskaraz egin beharko litzatekeela dioten ehunekoak gora egin du, 25 puntu (% 16tik % 41,2ra). Hala ere, Argantzónen igoera oso eskasa izan da (2 puntukoa, % 24,3tik % 26,3ra).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderrian, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela adierazi dutenen ehunekoak behera egin du, modu nabarmenean (20 puntuko jaitsiera % 56,1etik % 36,1era). Argantzónen, aldiz, ehunekoa ia bere horretan mantendu da (% 45,6, 2012an eta % 45,2, 2022an).

57. TAULA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Bizilekua				Trebiñuko enklabea	
	Trebiñuko konderria		Argantzón			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	14,1	9,5	12,5	10,6	13,7	9,8
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	12,8	8,2	15,0	13,1	13,4	9,8
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	56,1	36,1	45,6	45,2	53,2	39,0
Batez ere euskaraz	16,0	41,2	24,3	26,3	18,2	36,5
Ed/Ee	1,1	5,0	2,5	4,8	1,5	4,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Generoaren arabera ez dago alde handirik Trebiñuko eskola publikoko irakaskuntzako hizkuntzaren gaiari dagokionez.

58. TAULA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen, inkestatuen generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	2022	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	10,5	9,1	13,7	9,8
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	8,9	10,6	13,4	9,8
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	38,1	40,2	53,2	39,0
Batez ere euskaraz	36,9	35,8	18,2	36,5
Ed/Ee	5,6	4,2	1,5	4,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

16-49 urtekoen artean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoak gora egiten du, modu progresiboan. Adin horretatik aurrera, jaitsiera nabarmena jasaten du (35-49 urtekoen artean % 42koa da, 50-64koen artean % 35,9koa eta 64 urtetik gorakoen artean % 28,2koa).

Azken hamar urteetan, aztertu diren adin-tarte guztietan, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoak gora egin du. 50 urtetik aurrera, hazkunde hori nabarmenagoa da (50-64 urtekoen artean 22,6 puntukoa eta 64tik gorakoetan 26,7koa).

59. TAULA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen, inkestatuen adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		>64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	7,9	6,7	7,2	13,5	11,4	9,3	17,5	9,1	26,5	10,8	13,7	9,8
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	15,7	4,5	10,8	11,0	15,7	11,2	8,0	9,1	16,7	10,0	13,4	9,8
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	56,2	44,8	54,5	31,0	49,4	36,0	58,7	41,9	53,9	40,4	53,2	39,0
Batez ere euskaraz	19,1	39,6	26,5	40,6	22,2	42,0	13,3	35,9	1,5	28,2	18,2	36,5
Ed/Ee	1,1	4,5	1,1	3,8	1,3	1,4	2,4	4,0	1,5	10,6	1,5	4,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Jaioterriaren arabera

Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoa altuagoa da Euskal Herrian jaioak direnen artean Trebiñuko enklabean edo beste tokietan jaioak direnen artean baino (Euskal Herrian jaioak direnen % 44,6, Trebiñuko enklabean jaio direnen % 25,9 eta beste tokietan jaio direnen % 27,6).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabean jaio direnen artean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoak gora egin du, 16,6 puntu (% 9,3tik % 25,9ra). Euskal Herrian jaioak diren biztanleen artean igoera hori handixeagoa izan da (17,6 puntukoa, % 27tik % 44,6ra). Beste toki batzuetan jaio direnen artean ere bai (19 puntukoa, % 8,5etik % 27,6ra).

60. TAULA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen, jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Jaioterria						Guztira	
	Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	18,6	12,8	7,2	7,6	22,0	12,3	13,7	9,8
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	15,1	11,4	10,8	8,8	17,0	10,5	13,4	9,8
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	55,4	43,8	54,2	36,1	49,8	41,5	53,2	39,0
Batez ere euskaraz	9,3	25,9	27,0	44,6	8,5	27,6	18,2	36,5
Ed/Ee	1,6	6,0	0,8	2,9	2,8	8,1	1,5	4,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Euskara-gaitasunaren arabera

Biztanle euskaldunen artean altuagoa da Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoa (% 56,2), biztanle euskaldun hartzaileen (% 42,3) eta erdaldunen (% 28,7) aurretik.

Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela adierazi dutenen ehunekoa altuagoa da biztanle euskaldun hartzaileen artean (% 42,8), erdaldunen (% 39,8) eta euskaldunen (% 34,6) artean baino.

Azken hamar urteetan, biztanle erdaldunen artean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela dioten ehunekoak gora egin du, 18,8 puntu (% 9,9tik % 28,7ra). Biztanle euskaldunen artean 14,9 puntukoa izan da hazkundera (% 41,3tik % 56,2ra). Eta biztanle euskaldun hartzaileen artean izan da hazkunderik txikiena (9,1ekoa, % 33,2tik % 42,3ra).

61. TAULA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen, inkestatuen euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskara-gaitasuna						Guztira	
	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	0,5	2,2	4,0	2,3	18,7	13,9	13,7	9,8
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	4,0	4,2	9,5	10,7	16,2	11,4	13,4	9,8
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	53,7	34,6	53,0	42,8	53,2	39,8	53,2	39,0
Batez ere euskaraz	41,3	56,2	33,2	42,3	9,9	28,7	18,2	36,5
Ed/Ee	0,5	2,8	0,4	1,9	2,0	6,3	1,5	4,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

f. Erroldatzearen arabera

Trebiñuko enklabean erroldatuta ez dauden artean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela (% 40,2) adierazi dutenen ehunekoa altuagoa da erroldatuta dauden biztanleen artean baino (% 38,9). Biztanle ez erroldatuen artean, halaber, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoa (% 38) altuagoa da erroldatuta dauden artean baino (% 35).

Azken hamar urteetan, erroldatuta ez dauden biztanleen artean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoak behera egin du (% 55,5etik % 40,2ra). Erroldatuta dauden artean ere behera egin du, baina gutxiago (13,8 puntu, 2012an % 52,7 izatetik 2022an % 38,9 izatera).

Azken hamarkadan, erroldatuta ez dauden biztanleen artean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoa bikoiztu egin da, 19 puntuko igoerarekin (% 19tik % 38ra pasa da). Erroldatuta dauden artean igoera txikiagoa da (17 puntukoa, % 18tik % 35era).

62. TAULA: Trebiñuko eskola publikoan zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen, errolatzearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	Errolatutako biztanleria	Errolatu gabeko biztanleria	Errolatutako biztanleria	Errolatu gabeko biztanleria	Errolatutako biztanleria		Errolatu gabeko biztanleria	
	2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz eta ingelesez	10,1	8,5	11,6	8,8	13,9	10,6	12,8	8,6
Gaztelaniaz eta ingelesez euskara ikasgai hartuta	9,0	7,0	14,8	10,2	13,9	10,9	11,4	8,0
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	36,1	37,4	44,4	46,8	52,7	38,9	55,5	40,2
Batez ere euskaraz	40,0	42,0	25,1	28,8	18,0	35,0	19,0	38,0
Ed/Ee	4,9	5,1	4,2	5,3	1,5	4,6	1,4	5,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

5.3.2. TREBIÑUKO ESKOLAN IKASTEKO HAUTATUKO LITZATEKEEN HIZKUNTZA


a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

Hamabost urtetik gorako biztanleriari galdetuz: Trebiñuko eskola publikorako euskararen eta ingelesaren artean aukeratu beharko bazenu, zein hautatuko zenuke? Ia erdiek erantzun dute biak hautatuko lituzketela, % 32,2k ingelesa eta % 16,7k euskara.

Azken hamar urteetan, bi hizkuntzen aukerak gora egin du, 28,8 puntu (% 20,7tik % 49,5era); ingelesarenak behera, 22,9 puntu (% 55,1etik % 32,2ra); eta euskararenak ere behera, baina gutxiago (6,7 puntu, % 23,4tik % 16,7ra).

Beraz, orain dela hamar urte, ia parean zeuden bi hizkuntzen aukera eta euskara bakarrik hautatzearena. Gaur egun, aldiz, 32,8 puntuko aldea ateratzen dio lehen aukerak. Euskara zein ingelesa ikastearen garrantziaren kontzientzia areagotu egin da epe horretan.

58. GRAFIKOA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako hizkuntza. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Trebiñuko konderrian Argantzonen baino altuagoa da euskara hautatuko luketenen ehunekoa (% 18,6k eta % 12,5ek, hurrenez hurren), eta baxuagoa ingelese (% 31,3 eta % 34,2) eta bi hizkuntzak hautatuko lituzketenena (% 48,2 eta % 52,5).

59. GRAFIKOA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzona eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, bi hizkuntzak hautatuko lituzketenen ehunekoaren hazkundera ia berdina izan da Trebiñuko konderrian eta Argantzonen (28,6 puntu eta 28,7, hurrenez hurren). Hala ere, euskara hautatuko luketenen ehuneko jaitsiera handiagoa izan da Trebiñuko konderrian Argantzonen baino (7,5 puntu eta 3,5 puntu).

63. TAULA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako hizkuntza, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Bizilekua				Trebiñuko enklabea	
	Trebiñuko konderria		Argantzón			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Ingelesa	53,5	31,3	59,6	34,2	55,1	32,2
Biak	19,6	48,2	23,8	52,5	20,7	49,5
Euskara	26,1	18,6	16,0	12,5	23,4	16,7
Ed/Ee	0,8	1,9	0,5	0,8	0,7	1,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Generoaren arabera, ez dago alde handirik gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Hala ere, gizonezkoen artean handiagoa da bi hizkuntzak hautatuko lituzketenen ehunekoa (% 52,5 eta % 47,9), eta emakumezkoen artean, euskara hautatuko luketenena (% 16,2 eta % 12,5).

64. TAULA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako hizkuntza, generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	2022	2022	2012	2022
Ingelesa	34,2	34,4	55,1	32,2
Biak	52,5	47,9	20,7	49,5
Euskara	12,5	16,2	23,4	16,7
Ed/Ee	0,8	1,6	0,7	1,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Gaur egun, adinaren arabera ez dago alde handirik Trebiñuko eskola publikoko irakas-kuntzaren hizkuntzaren hautaketari dagokionez.

Azken hamar urteetan, euskararen aukeran, ehunekoaren jaitsiera handiena 35 urte-tik beherakoetan gertatu da.

65. TAULA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako hizkuntza, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		>64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Ingelesa	50,6	30,6	45,2	33,5	53,5	28,2	59,8	33,9	69,1	35,2	55,1	32,2
Biak	16,9	50,0	24,0	49,7	21,4	50,7	20,6	47,2	16,2	50,5	20,7	49,5
Euskara	30,3	17,2	30,1	16,1	25,0	20,9	19,6	17,5	11,8	11,0	23,4	16,7
Ed/Ee	2,2	2,2	0,7	0,6	0,2	0,2	—	1,3	2,9	3,3	0,7	1,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Jaioterriaren arabera

Euskal Herrian jaio diren pertsonen, Trebiñuko enklabea eta beste leku batzuetan jaio direnekin alderatuta, neurri handiagoan hautatzen dute euskara eskolan (% 21,5, % 12,1 eta % 9,9, hurrenez hurren).

Bi hizkuntzak hautatzen dituztenen ehunekoa antzekoa da Trebiñun jaio direnen artean eta Euskal Herrian jaio direnen artean (% 51,2 eta % 50,5), eta altuxeagoa beste tokietan jaio direnen artean (% 46,9).

Euskal Herrian jaio direnen artean, ingelesaren aukera (% 26,8) apalagoa da Trebiñun jaio direnen (% 34,7) eta beste lekuetan jaio direnen (% 41,5) artean baino.

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabea jaioak diren biztanleen artean, 35,2 puntuko hazkundera izan du bi hizkuntzen aukerak (% 16tik % 51,2ra). Euskal Herrian jaioak direnen artean, hazkundera apalagoa da (26,8 puntu, % 23,7tik % 50,5era). Beste lekuetan jaio direnean artean ere baxuagoa da (28,1 puntu, % 18tik % 46,9ra).

Azken hamarkadan, Trebiñuko enklabea jaioak direnen artean, ingelesa hautatu dutenen ehunekoaren jaitsiera handiagoa izan da Euskal Herrian jaioak direnen artean baino (24 puntu eta 20 puntu, hurrenez hurren), baina txikiagoa da beste lekuetan

jaioak direnen artean baino (26,5 puntu). Eta azken hamar urteetan, euskararen auke-raren jaitsiera handiagoa izan da enklabean jaioak direnen artean, Euskal Herrian edo beste leku batzuetan jaioak direnen artean baino (10,9 puntu, 7,5 puntu eta 7 puntu, hurrenez hurren).

66. TAULA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako hizkuntza, jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Jaioterria						Guztira	
	Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Ingelesa	58,7	34,7	46,9	26,8	68,0	41,5	55,1	32,2
Biak	16,0	51,2	23,7	50,5	18,8	46,9	20,7	49,5
Euskara	23,4	12,1	29,0	21,5	12,8	9,9	23,4	16,7
Ed/Ee	1,9	2,0	0,4	1,2	0,5	1,8	0,7	1,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Euskara-gaitasunaren arabera

Biztanleen euskara-gaitasunaren arabera aztertuz gero, ia ez dago alderik Trebi-ñuko eskolarako bi hizkuntzak (ingeleza eta euskara) hautatzeari dagokionez (% 50,4 biztanle euskaldunen artean, % 50,7 euskaldun hartzaileen artean eta % 49 erdaldun-nen artean).

Biztanle euskaldunak dira ehuneko handiengan euskara hautatzen dutenak (% 34,1), euskaldun hartzaileen (% 25,1) eta erdaldunen (% 9,1) aurretik.

Biztanle erdaldunak dira ehuneko handiengan ingeleza hautatzen dutenak (% 40), euskaldun hartzaileen (% 23,7) eta euskaldunen (% 14,4) aurretik.

Azken hamar urteetan, biztanle erdaldunen artean izan da bilakaerarik handiena Trebiñuko eskola publikoan ikasteko euskara zein ingeleza hautatuko lituzketenen ehunekoari dagokionez (31,3 puntu, % 17,4tik % 49ra). Euskaldun hartzaileak leudeke ondoren (25 puntuko hazkundera, % 25,7tik % 50,7ra) eta euskaldunak azkenik (13 pun-tuko jaitsiera, % 27,4tik % 14,4ra).

Azken hamar urteetan, gaitasun linguistikoaren arabera, ez da aldaketa handirik izan euskararen aukeraren jaitsierari dagokionez. Hala ere, ingelesaren kasuan bezala, jaitsiera handiena biztanle erdaldunen artean izan da (8,6 puntu), biztanle euskaldun hartzaileen (7,3) eta euskaldunen (6,7 puntu) aurretik.

67. TAULA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako hizkuntza, euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskara-gaitasuna						Guztira	
	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Ingelesa	27,4	14,4	40,7	23,7	64,2	40,0	55,1	32,2
Biak	31,3	50,4	25,7	50,7	17,4	49,0	20,7	49,5
Euskara	40,8	34,1	32,4	25,1	17,7	9,1	23,4	16,7
Ed/Ee	0,5	1,1	1,2	0,5	0,7	1,9	0,7	1,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

f. Erroldatzearen arabera

Trebiñuko enklabean erroldatuta ez dauden biztanleen artean, 3,7 puntu altuagoa da ingelesaren eta euskararen alde egiten dutenen ehunekoa, erroldatuta dauden artean baino (% 51,8 eta % 48,1, hurrenez hurren). Trebiñuko konderriko biztanleen artean, diferentzia hori 6,1 puntukoa da (% 51,8 erroldatuta ez dauden artean eta % 45,7 erroldatutakoen artean).

Erroldatuen artean, erroldatuta ez dauden artean baino 1,8 puntu altuagoa da ingelesaren aukera (% 33,2 eta % 31,4, hurrenez hurren), eta 2,4 puntukoa euskararena (% 17,5 eta % 15,5, hurrenez hurren). Trebiñuko konderriko biztanleen kasuan, erroldatuen artean, erroldatuta ez dauden artean baino 4,2 puntu altuagoa da euskararen aukera (% 20,1 eta % 15,9, hurrenez hurren).

Azken hamar urteetan, euskararen eta gaztelaniaren aukeran (bi hizkuntzak), 29,7 puntuko hazkundea izan da Trebiñuko enklabean erroldatuta ez dauden biztanleen artean (% 22,1etik % 51,8ra). Erroldatuen artean, berriz, txikiagoa izan da hazkundea (27,7 puntu, % 20,4tik % 48,1era).

Azken hamar urteetan, ingelesaren aukerak 20,3 puntuko jaitsiera izan du erroldatuta ez dauden biztanleen artean. Erroldatuta dauden artean, aldiz, jaitsiera apalagoa izan da (22,8 puntu).

Azken hamarkadan, euskararen aukerak 10,1 puntuko jaitsiera izan du erroldatuta ez dauden biztanleen artean. Erroldatuta dauden artean, aldiz, apalagoa izan da (5,4 puntu).

68. TAULA: Trebiñuko eskolan ikasteko ingelesaren eta euskararen artean aukeratutako hizkuntza, erroldatzearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria		Erroldatu gabeko biztanleria	
	2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Ingelesa	32,3	30,6	35,0	33,2	56,0	33,2	51,7	31,4
Biak	45,7	51,8	52,7	51,7	20,4	48,1	22,1	51,8
Euskara	20,1	15,9	12,2	13,2	22,9	17,5	25,2	15,1
Ed/Ee	1,9	1,7	0,0	2,0	0,7	1,3	1,0	1,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

5.4. HAURRENTZAKO ESKOLAZ KANPOKOAK ETA JARDUERA
LUDIKOAK ZER HIZKUNTZATAN EGIN BEHARKO
LIRATEKEEN TREBIÑUN


a. Ikuspegi orokorra eta eboluzioari dagokiona

Trebiñuko enklabeko 15 urtetik gorako biztanleen % 67,8k uste du eskolaz kanpoko jarduerak eta jolas-jarduerak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko liratekeela haurrentzat. % 16,3k adierazi du euskaraz bakarrik egin beharko liratekeela, eta % 9,9k gaztelaniaz bakarrik egin beharko liratekeela.

Azken hamar urteetan jaitsiera txiki bat izan da eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera ludiko horiek gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoan (4,5 puntukoa, % 72,3tik % 67,8ra). Jaitsiera txikia izan da, halaber, gaztelaniaz egin beharko liratekeela adierazi dutenen ehunekoan (0,8 puntu, % 10,7tik % 9,9ra),

eta igoera txikia euskaraz bakarrik egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoan (0,7 puntu, % 15,6tik % 16,3ra). Bestalde, nabarmendu behar dugu 4 puntuko hazkundea izan dela gai horren inguruko iritzirik eman ez dutenen ehunekoan (ez daki, ez du erantzuten).

60. GRAFIKOA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Trebiñuko konderrian bizi direnen artean, Argantzonen bizi direnen artean baino baxuagoa da haurrentzako eskolaz kanpokoak eta aisialdiko jarduerak gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa (8,1 puntu gutxiago, % 65,2 eta % 73,3, hurrenez hurren). Altuagoa, aldiz, euskaraz bakarrik egin beharko liratekeela uste dutenena (6,8 puntu gehiago, % 18,5 eta % 11,7, hurrenez hurren).

61. GRAFIKOA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Argantzónen ia bere horretan mantendu da haurrentzako eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera ludikoak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa (% 73 inguru). Trebiñuko konderrian, aldiz, 6,5 puntuko jaitsiera izan du (% 71,7tik % 65,2ra).

Azken hamarkadan, Trebiñuko konderrian, haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak soilik euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa gora egin du, 3,5 puntu (% 15etik % 18,5era). Argantzónen, aldiz, 6,5 puntuko izan da jaitsiera (% 17,3tik % 11,7ra).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderriko biztanleen artean ere 2 puntuko jaitsiera izan da (% 11,7tik % 9,7ra) haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak soilik gaztelaniaz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoan. Argantzónen, aldiz, gora egin du, 2,2 puntu (% 8tik % 10,2ra pasa da).

69. TAULA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Bizilekua				Trebiñuko enklabea	
	Trebiñuko konderria		Argantzón			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	11,7	9,7	8,0	10,2	10,7	9,9
Gaztelaniaz eta euskaraz	71,7	65,2	73,7	73,3	72,3	67,8
Euskaraz bakarrik	15,0	18,5	17,3	11,7	15,6	16,3
Ed/Ee	1,6	6,6	1,0	4,8	1,4	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Emakumezkoek gizonezkoek baino neurri handiagoan adierazi dute haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak soilik euskaraz egin beharko liratekeela (% 17,1 eta % 15,5, hurrenez hurren).

Aitzitik, gizonezkoek emakumezkoek baino neurri handiagoan adierazi dute jarduera horiek euskaraz eta gaztelaniaz (% 68 eta % 67,8, hurrenez hurren) edo soilik gaztelaniaz (% 10,6 eta % 9,1, hurrenez hurren) egin beharko liratekeela.

70. TAULA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza, generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	2022	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	10,6	9,1	10,7	9,9
Gaztelaniaz eta euskaraz	68,0	67,5	72,3	67,8
Euskaraz bakarrik	15,5	17,1	15,6	16,3
Ed/Ee	5,9	6,2	1,4	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

Haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko liratekeela uste dutenen ehuneko handiena 25-34 urtekoen artean jaso da (% 73,5ek adierazi du).

35-49 urteko biztanleen artean, % 24k adierazi du honelako jarduerak soilik euskaraz egin beharko liratekeela. Adin horretatik aurrera, ehunekoak behera egiten du, modu progresiboan, eta gora erdaraz soilik egin beharko liratekeela adierazi dutenenak (64 urtetik gora jaso da ehunekorik handiena: % 13,4).

Nabarmenezkoa da, halaber, azken hamar urteetan, 35-49 urtekoen artean, jarduerara horiek soilik euskaraz egin beharko liratekeela adierazi duten pertsonen ehunekoak gora egin duela, 6,7 puntu (% 17,9tik % 24,6ra).

71. TAULA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		>64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	2,2	7,5	6,5	9,0	8,8	7,5	11,5	10,2	24,5	13,4	10,7	9,9
Gaztelaniaz eta euskaraz	77,5	66,4	73,5	73,5	71,9	66,5	71,7	69,0	70,1	66,3	72,3	67,8
Euskaraz bakarrik	19,1	20,1	19,4	12,9	17,9	24,6	14,3	12,4	3,9	11,0	15,6	16,3
Ed/Ee	1,1	6,0	0,7	4,5	1,3	1,4	2,4	8,4	1,5	9,3	1,4	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Jaioterriaren arabera

Trebiñuko enklabetik eta Euskal Herritik kanpo jaiotako pertsonak dira neurri handienez adierazi dutenak haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko liratekeela (% 70,6), Euskal Herrian jaiotakoak (% 67,3) eta Trebiñun jaiotakoak (% 65) aurretik. Azken horiek dira neurri handienez uste dutenak gaztelaniaz bakarrik egin beharko liratekeela (% 14,8).

Euskal Herrian jaioak diren pertsonak dira neurri handienez adierazi dutenak jarduerara horiek soilik euskaraz egin beharko liratekeela (% 20,6), Trebiñuko enklabea jaioak direnen (% 15,5) eta beste lekuetan jaioak direnen (% 8,5) aurretik.

Azken hamar urteetan, Euskal Herrian jaioak direnen kasuan izan ezik, gora egin du jarduerara horiek soilik euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoak, eta behera soilik gaztelaniaz egin beharko liratekeela uste dutenenak.

72. TAULA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza, jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Jaioterria						Guztira	
	Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	15,1	14,8	6,6	7,0	15,0	12,3	10,7	9,9
Gaztelaniaz eta euskaraz	70,2	65,0	71,1	67,3	76,0	70,6	72,3	67,8
Euskaraz bakarrik	13,5	15,5	21,1	20,6	7,0	8,5	15,6	16,3
Ed/Ee	1,3	4,7	1,2	5,1	2,0	8,5	1,4	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Euskara-gaitasunaren arabera

Erdaldunak dira neurri handienez adierazi dutenak euskaraz eta gaztelaniaz (% 69,7) egin beharko liratekeela haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak, euskaldun hartzaileen (% 68,4) eta euskaldunen (% 61,5) aurretik. Erdaldunak dira, halaber, ehuneko handienez uste dutenak jarduera horiek soilik gaztelaniaz egin beharko liratekeela (% 13,4).

Euskaldunak dira ehuneko handienez adierazi dutenak jarduera horiek soilik euskaraz egin beharko liratekeela (% 32,1), euskaldun hartzaileen (% 20,9) eta erdaldunen aurretik (% 10,1).

Azken hamar urteetan, biztanle euskaldunen eta euskaldun hartzaileen artean, behe-
ra egin du jarduera horiek soilik euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoak. Euskaldunen kasuan 3,7 puntukoa izan da jaitsiera (% 35,8tik % 32,1era), eta euskaldun hartzaileen artean, 0,8koa. Biztanle erdaldunen artean, ehuneko hori bere horretan mantendu da azken hamarkada honetan.

73. TAULA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza, euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskara-gaitasuna						Guztira	
	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	2,5	1,9	2,0	5,6	14,5	13,4	10,7	9,9
Gaztelaniaz eta euskaraz	60,7	61,5	75,5	68,4	73,7	69,7	72,3	67,8
Euskaraz bakarrik	35,8	32,1	21,7	20,9	10,1	10,1	15,6	16,3
Ed/Ee	1,0	4,4	0,8	5,1	1,7	6,8	1,4	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

f. Erroldatzearen arabera

Trebiñuko enklabearen erroldatuta ez dauden artean, erroldatuta dauden artean baino 1,2 puntu altuagoa da haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduerak ludikoak gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko liratekeela adierazi dutenen ehunekoa (% 68,8 eta % 67,6, hurrenez hurren). Trebiñuko konderriaren kasuan, diferentzia 3,5 puntukoa da (% 67,5 eta % 64, hurrenez hurren). Argantzonen, aldiz, erroldatuen artean, erroldatuta ez dauden artean baino 2,9 puntu altuagoa da jarduerak horiek bi hizkuntzetan egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa.

Erroldatuta ez dauden biztanleen artean, erroldatuen artean baino 1,5 puntu altuagoa da jarduerak horiek euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa (% 17 eta % 15,5, hurrenez hurren). Argantzonen kasuan, diferentzia 3,9 puntukoa da (% 14,1 eta % 10,3, hurrenez hurren). Trebiñuko konderrian, berriz, ia ez dago alderik erroldatuta dauden eta erroldatuta ez dauden artean (% 18 inguru).

Argantzonen nahiz Trebiñun, jarduerak horiek gaztelaniaz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa altuagoa da erroldatuen artean erroldatuta ez dauden artean baino (Trebiñuko konderrian, % 10,6 erroldatuen artean, eta % 8,5 erroldatuta ez dauden artean. Argantzonen, % 10,9 erroldatuen artean, eta % 8,8 erroldatuta ez dauden artean).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabearen erroldatuta dauden biztanleen artean, 4,8 puntu jaitsi da jarduerak horiek euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko liratekeela

adierazi dutenen ehunekoa (% 72,4tik % 67,6ra); erroldatuta ez dauden artean, jaitziera txikixeagoa izan da (2,9 puntu, % 71,7tik % 68,8ra).

Epe horretan bertan, erroldatuta dauden biztanleen artean 0,3 puntu jaitzi da jarduer horiek gaztelaniaz egin beharko liratekeela uste dutenen portzentajea; erroldatuta ez dauden artean, jaitziera handixeagoa da (0,7 puntu).

Azken hamarkadan, erroldatuen artean, 0,4 puntu igo da jarduera horiek soilik euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa. Erroldatuta ez dauden artean, aldiz, behera egin du: 0,9 puntu.

Nolanahi ere, nabarmentzeko modukoa da, azken hamar urteetan, erroldatuen artean nahiz erroldatuta ez dauden artean, gora egin duela gai horren inguruko iritzirik eman ez dutenen ehunekoak (erroldatuta dauden artean 4,1 puntu, eta erroldatuta ez dauden artean 4 puntu).

74. TAULA: Trebiñuko umeentzat eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak egin beharko liratekeen hizkuntza, erroldatzearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria		Erroldatu gabeko biztanleria	
	2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	10,6	8,5	10,9	8,8	11,0	10,7	9,3	8,6
Gaztelaniaz eta euskaraz	64,0	67,5	74,6	71,7	72,4	67,6	71,7	68,8
Euskaraz bakarrik	18,1	18,3	10,3	14,1	15,1	15,5	17,9	17,0
Ed/Ee	7,2	5,7	4,1	5,4	1,5	6,2	1,0	5,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.


5.5. TREBIÑUKO ENKLABEKO KALEETAKO ERROTULUAK ZER HIZKUNTZATAN JARRI BEHAR LITUZKETEN

a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

15 urtetik gorako biztanleen % 81,8k adierazi du Trebiñuko enklabeko kaleetako erro-
tuluak gaztelaniaz eta euskaraz jarri behar lituzketela. % 10,7k uste du soilik gaztela-
niaz jarri behar lituzketela eta % 4,8k soilik euskaraz jarri behar lituzketela. % 2,7k ez du
iritzirik eman.

Azken hamar urteetan 16,2 puntu areagotu da euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz
bakarrik errotulatzeko aukera (2012an % 65,6 izatetik 2022an % 81,8 izatera). 13,5 pun-
tu jaitsi da gaztelaniaz soilik errotulatzeko aukera (% 25,2tik % 10,7ra), baita euskaraz
bakarrik errotulatzekoa ere (% 7,7tik % 4,8ra).

62. GRAFIKOA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Trebiñuko konderriko biztanleek Argantzongoek baino ehuneko handiagoan uste
dute herrietako errotuluek gaztelaniaz soilik behar luketela (% 12 eta % 7,9, hurrenez
hurren), edo soilik euskaraz (% 5,3 eta % 3,8, hurrenez hurren). Neurri txikiagoan uste
dute gaztelaniaz eta euskaraz behar luketela (% 80,6 eta % 84,2).

63. GRAFIKOA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderrian, kaleetako errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jarri behar liratekeela adierazi dutenen ehunekoak gora egin du, 16,8 puntu (% 63,8tik % 80,6ra). Argantzónen ere bai, baina gutxiago (13,8 puntu, % 70,4tik % 84,2ra).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderrian, kaleetako izenak gaztelaniaz soilik errotulatu beharko liratekeela uste dutenen ehunekoak behera egin du, 14,9 puntu (% 26,9tik % 12ra). Argantzónen, jaitsiera txikiagoa izan da (9,1 puntu, % 17tik % 7,9ra).

Azken hamarkadan, kaleen izenak euskaraz soilik errotulatu beharko liratekeela uste dutenen ehunekoak behera egin du, 2,1 puntu (% 7,4tik % 5,3ra). Argantzónen jaitsiera handiagoa izan da (6 puntukoa, % 8,8tik % 3,8ra).

75. TAULA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Bizilekua				Trebiñuko enklabea	
	Trebiñuko konderria		Argantzón			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	26,9	12,0	17,0	7,9	24,2	10,7
Gaztelaniaz eta euskaraz	63,8	80,6	70,4	84,2	65,6	81,8
Euskaraz bakarrik	7,4	5,3	8,8	3,8	7,7	4,8
Ed/Ee	2,0	2,1	3,8	4,0	2,4	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Generoaren arabera ez dago diferentzia handirik, Trebiñuko kaleetako errotuluen hizkuntzaren gaiari dagokionez. Gizonezkoen artean 0,9 puntu altuagoa da euskaraz soilik errotulatu beharko liratekeela adierazi dutenen ehunekoa (% 5,3 eta % 4,4, hurrenez hurren).

76. TAULA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen, generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	2022	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	10,6	10,8	24,2	10,7
Gaztelaniaz eta euskaraz	81,4	82,1	65,6	81,8
Euskaraz bakarrik	5,3	4,4	7,7	4,8
Ed/Ee	2,7	2,8	2,4	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

25 eta 34 urte arteko biztanleak dira neurri handienez adierazi dutenak kaleetako errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jarri behar liratekeela. Adin horretatik aurrera, behar egiten du ehunekoak, modu progresiboan, aztertutako adin-tarte guztietan.

64 urtetik gorakoak dira neurri handiengan uste dutenak kaleak soilik gaztelaniaz errotulatu beharko lirakeela (% 17,7), eta neurri txikiengan uste dutenak soilik euskaraz errotulatu beharko lirakeela (% 1,7).

35 eta 64 urtekoen artean planteatzen da gehien kaleen errotuluak soilik euskaraz jarri behar lirakeela (35 eta 49 urte artean % 6 eta 50-64 urte artean % 6,4).

Azken hamar urteetan, eta aztertutako adin-tarte guztietan, gora egin du errotulazioak bi hizkuntzetan egin behar diren aukerak (euskaraz eta gaztelaniaz), eta behera soilik gaztelaniaz edo soilik euskaraz errotulatzearen aukerak (64 urtetik gorakoentzat izan ezik, 0,2 puntu igo baita azken aukera hori). Kaleen errotulazioak bi hizkuntzetan jartzeko aukerak 64 urtetik gorakoen artean izan du ehuneko hazkunderik handiena (33,7 puntu, % 45,1etik % 78,5era). Adin-tarte horretan izan du jaitsierarik handiena, halaber, gaztelaniaz soilik errotulatzeko aukerak (34,8 puntu, % 52,5etik % 17,7ra).

77. TAULA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko lirakeen, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		>64 urte		Guztira	
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	12,4	8,2	14,7	3,9	20,1	7,2	25,9	10,9	52,5	17,7	24,2	10,7
Gaztelaniaz eta euskaraz	68,5	83,6	74,6	88,4	69,0	83,2	63,3	80,5	45,1	78,5	65,6	81,8
Euskaraz bakarrik	16,9	5,2	8,2	4,5	8,2	6,0	8,0	6,4	1,5	1,7	7,7	4,8
Ed/Ee	2,2	3,0	2,5	3,2	2,8	3,5	2,8	2,2	1,0	2,2	2,4	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Jaioterriaren arabera

Trebiñuko enklabean jaio diren pertsonak dira neurri handiengan adierazi dutenak soilik gaztelaniaz errotulatu beharko lirakeela kaleen izenak (% 17,2). Euskal Herrian jaioak diren pertsonak, aldiz, neurri handiengan uste dutenak soilik euskaraz errotulatu beharko lirakeela (% 7,2).

Trebiñuko enklabean jaiotako pertsonen Euskal Herrian edo beste leku batzuetan jaiotakoek baino neurri txikiagoan uste dute kaleen izenak gaztelaniaz eta euskaraz errotulatu behar lirakeela (% 79,5, % 82,2 eta % 82,5, hurrenez hurren).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabeantik eta Euskal Herritik kanpo jaiotako biztanleen artean igo da gehien kaleen izenak gaztelaniaz eta euskaraz errotulatu behar liratekeela uste dutenen ehunekoa (23 puntu, % 59,5etik % 82,5era). Haien artean jaitzi da gehien, halaber, kaleen izenak soilik gaztelaniaz errotulatu behar liratekeela uste dutenen ehunekoa (21,2 puntu, % 33,3tik % 12,1era), eta gutxien, kaleen izenak soilik euskaraz errotulatu beharko liratekeela uste dutenena (2,3 puntu, % 4,8tik % 2,5era).

78. TAULA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen, jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Jaioterria						Guztira	
	Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	33,7	17,2	15,5	7,8	33,3	12,1	24,2	10,7
Gaztelaniaz eta euskaraz	58,7	79,5	71,7	82,2	59,5	82,5	65,6	81,8
Euskaraz bakarrik	5,4	1,3	10,3	7,2	4,8	2,5	7,7	4,8
Ed/Ee	2,2	2,0	2,5	2,8	2,5	2,9	2,4	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Euskara-gaitasunaren arabera

Euskaldun hartzaileak dira neurri handienez uste dutenak kaleen izenak gaztelaniaz eta euskaraz errotulatu behar liratekeela (% 88,8), euskaldunen (% 83,7) eta erdaldunen (% 79,7) aurretik.

Euskaldunak dira neurri handienez adierazi dutenak kaleen izenak soilik euskaraz errotulatu behar liratekeela (% 9,1), euskaldun hartzaileen (% 4,7) eta erdaldunen (% 3,4) aurretik.

Erdaldunak dira neurri handienez uste dutenak kaleen izenak soilik gaztelaniaz errotulatu behar liratekeela (% 14,7).

Azken hamar urteetan, erdaldunen artean areagotu da gehien kaleen izenak gaztelaniaz eta euskaraz errotulatzeko aukera (18,8 puntu, % 61,5etik % 79,7ra). Euskaldun hartzaileen artean ondoren (15,7 puntuko hazkundera, % 73,1etik % 88,8ra) eta euskaldunen artean, azkenik (6,6 puntuko hazkundera, % 77,1etik % 83,7ra).

79. TAULA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen, euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Euskara-gaitasuna						Guztira	
	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak			
	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	6,0	2,8	10,3	4,2	31,3	14,7	24,2	10,7
Gaztelaniaz eta euskaraz	77,1	83,7	73,1	88,8	61,5	79,7	65,6	81,8
Euskaraz bakarrik	15,9	9,1	13,4	4,7	4,7	3,4	7,7	4,8
Ed/Ee	1,0	4,4	3,2	2,3	2,6	2,3	2,4	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

f. Erroldatzearen arabera

Erroldatuta ez dauden biztanleek erroldatuta daudenek baino neurri handiagoan adierazi dute kaleen izenak euskaraz eta gaztelaniaz errotulatu behar liratekeela (% 83,3 eta % 81, hurrenez hurren). Argantzonen Trebiñuko konderrian baino altuagoa da ehuneko hori (% 88,3 eta % 81,7, hurrenez hurren).

Erroldatuta dauden biztanleen artean altuagoa da kaleak soilik euskaraz errotulatu beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa (% 5,6 eta % 3,6, hurrenez hurren). Trebiñuko konderrian Argantzonen baino altuagoa da ehuneko hori (% 6,1 eta % 4,5, hurrenez hurren).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko konderrian bizi diren baina erroldatuta ez dauden artean areagotu da gehien kaleen izenak gaztelaniaz eta euskaraz errotulatzeko aukera (18,1 puntu eta 15,3 puntu, hurrenez hurren). Jaitsierarik handiena izan du, al-diz, soilik euskaraz errotulatzeko nahi luketenen ehunekoak (5,4 puntu eta 1,9 puntu, hurrenez hurren).

80. TAULA: Kaleen izenak zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen, errolatzaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)

	Trebiñuko konderria		Argantzón		Trebiñuko enklabea			
	Errolatutako biztanleria	Errolatu gabeko biztanleria	Errolatutako biztanleria	Errolatu gabeko biztanleria	Errolatutako biztanleria		Errolatu gabeko biztanleria	
	2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Gaztelaniaz bakarrik	11,1	12,7	9,6	5,4	24,2	10,6	24,1	10,5
Gaztelaniaz eta euskaraz	80,7	81,1	81,7	88,3	65,7	81,0	65,2	83,3
Euskaraz bakarrik	6,1	4,0	4,5	2,4	7,5	5,6	9,0	3,6
Ed/Ee	2,1	2,1	4,2	3,9	2,6	2,8	1,7	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

5.6. EUSKARA SUSTATZEKO UDALEK EGITEN DUTEN LANAREN BALORAZIOA

a. Ikuspegi orokorra eta bilakaerari dagokiona

Trebiñuko enklabeko 15 urtetik gorako biztanleen % 25,2k uste du udala euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egiten ari den lana egokia eta handia dela. Beste % 10,1ek uste du egokia dela, baina nahikoa (“ez dela gehiago egin behar”).

% 21,3k uste du lan hori desegokia dela: udalak gutxi egiten duela sustapen horren alde.

% 2,9k ere desegokitzen jotzen du, baina urrunegi joan dela uste duelako (“gehiegi egiten du hizkuntza hori sustatzeko”).

% 14,4k adierazi du berdin zaiola udala zer egiten ari den euskara sustatzeko, ezaxolak direla esan genezake.

% 26k ez du iritzirik eman gai horri buruz (ez daki edo ez du erantzun gai horren inguruan).


Azken hamar urteetan 4,3 puntu jaitsi da udalak euskara sustatzeko egiten duen lana egokia eta nahikoa dela adierazten duen biztanleriaren ehunekoa: “ez da gehiago egin behar” (% 14,3tik % 10,1era igaro da). Eta 1,4 puntu igo da lan hori egokia dela eta

euskara sustatzearen alde lan handia egiten dela uste dutenen ehunekoa (% 23,8tik % 25,2ra igaro da).

Udalak gutxi egiten duela uste dutenen ehunekoak behera egin du, 1,9 puntu (% 23,2tik % 21,3ra). Gehiegi egiten duela uste dutenenak, aldiz, gora, 0,7 puntu (% 2,3tik % 2,9ra).

Azken hamar urteetan, nabarmentzeko modukoa da 12,9ko hazkundea izan dela ezaxolen artean —“berdin zaie”—, 2012ko % 1,5etik 2022ko % 14,4ra. Nabarmentzeko modukoa da, halaber, iritzirik eman ez dutenen jaitsiera, 8,9 puntukoa (% 34,9tik % 26ra).

64. GRAFIKOA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa. Trebiñuko enklabea, 2012-2022 (%)




Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

b. Bizilekuaren arabera

Argantzongo biztanleriak Trebiñuko konderrikoak baino neurri handiagoan uste du udala egiten ari den lana egokia eta handia dela (% 30 eta % 22,9, hurrenez hurren). Beste hainbeste gertatzen da lan hori egokia eta nahikoa dela uste dutenen ehunekoarekin —“ez da gehiago egin behar”— (% 19 eta % 6, hurrenez hurren).

Trebiñuko konderriko biztanleen artean Argantzongoen artean baino altuagoa da udala lan gutxi, behar baino gutxiago egiten ari dela uste dutenen ehunekoa (% 25,9 eta % 11,5, hurrenez hurren).

65. GRAFIKOA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)



Iturria: Siadeco 2022.

Azken hamar urteetan, Argantzonen, euskara sustatzeko udalak egiten duen lana asko eta egokia dela uste duten pertsonen ehunekoak gora egin du, 14,9 puntu. Trebiñuko konderrian, aldiz, ehuneko horren hazkundera apalagoa izan da (6,9 puntu). Era berean, udalaren lana egokia dela eta “ez dela gehiago egin behar” uste dutenen ehunekoak gora egin du Argantzonen, 6,5 puntu. Trebiñuko konderrian, aldiz, behera: 8,9 puntu (% 14,9tik % 6ra).

Argantzonen zein Trebiñuko konderrian, azken hamar urteetan, udalaren lana, euskara sustatzeko gutxi egiten duelako, desegokia izan dela uste duten biztanle ehunekoak behera egin du. Argantzonen Trebiñuko konderrian baino gehiago (2,3 puntu eta 0,8 puntu, hurrenez hurren).

Argantzonen 3,4 puntuko hazkundera izan du udala urrutiegi joan dela uste dutenen ehunekoak (% 1,8tik % 5,2ra). Trebiñuko konderrian, aldiz, behera egin du ehuneko horrek, 0,6 puntu (% 2,5etik % 1,9ra).

81. TAULA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa, bizilekuaren arabera. Trebiñuko konderria, Argantzón eta Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

		Bizilekua				Trebiñuko enklabea	
		Trebiñuko konderria		Argantzón			
		2012	2022	2012	2022	2012	2022
Egokia, ez da gehiago egin behar (edo ezer ez)	<i>Nahikoa</i>	14,9	6,0	12,5	19,0	14,3	10,1
Egokia, asko egiten du	<i>Asko</i>	16,0	22,9	44,9	30,0	23,8	25,2
Desegokia, gutxi egiten du	<i>Gutxi</i>	26,7	25,9	13,8	11,5	23,2	21,3
Desegokia, gehiegi egiten du	<i>Gehiegi</i>	2,5	1,9	1,8	5,2	2,3	2,9
Berdin zaio		1,7	15,3	1,0	12,7	1,5	14,4
Ed/Ee		38,2	28,1	26,1	21,5	34,9	26,0
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

c. Generoaren eta adinaren arabera

Gizonezkoek emakumezkoek baino neurri handiagoan uste dute udalak euskara sustatzeko egiten duen lana desegokia dela, gutxi egiten duelako (% 20,6 eta % 2,6, hurrenez hurren).

Emakumezkoek gizonezkoek baino neurri handiagoan uste dute udalaren lana egokia dela eta ez duela gehiago egin beharrik (% 24,7 eta % 9,3). Udalaren lana, gehiegi egiten duelako, desegokia dela uste dutenak ere gehiago dira emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino (% 12,4 eta % 3,2, hurrenez hurren).

Emakumezkoen artean gehiago dira, halaber, udalak euskararen alde egiten duen lana “berdin zaiela” adierazi dutenak.

82. TAULA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa, generoaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

		Gizonak	Emakumeak	Guztira	
		2022	2022	2012	2022
Egokia, ez da gehiago egin behar (edo ezer ez)	<i>Nahikoa</i>	9,3	24,7	14,3	10,1
Egokia, asko egiten du	<i>Asko</i>	25,8	21,7	23,8	25,2
Desegokia, gutxi egiten du	<i>Gutxi</i>	20,6	2,6	23,2	21,3
Desegokia, gehiegi egiten du	<i>Gehiegi</i>	3,2	12,4	2,3	2,9
Berdin zaio		16,5	27,7	1,5	14,4
Ed/Ee		24,6	24,7	34,9	26,0
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

34 urte edo gutxiagokoen artean dago udalak euskara sustatzeko egiten duen lana egokia dela eta gehiago egin beharrik ez dagoela uste duten biztanleen ehuneko txikiena. Hortik aurrera, adinean gora egin ahala, gora egiten du ehuneko horrek ere.

Udalaren lana egokia dela eta euskararen alde asko egiten duela uste dutenen ehuneko handiena 25-49 urtekoen artean dago. Hortik aurrera, adinean behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek ere. Antzeko zerbait gertatzen da udalaren lana, euskararen alde gutxiegi egiten duelako, desegokia dela uste dutenen ehunekoarekin.

35-59 urtekoen artean uste dute, neurri handienez, udalak euskararen alde egiten duen lana desegokia dela, “urrutiegia joan delako”.

Udalak euskara sustatzeko egiten duen lana “berdin zaiela” uste dutenen ehuneko handienak gazteenen (16-24 urte) eta adinekoen (64 urte baino gehiago) artean daude.

Azken hamar urteetan, eta aztertutako adin-talde guztietan, behera egin du udalaren lana egokia dela eta “gehiago egin beharrik ez dagoela” uste dutenen ehunekoak (50-64 urtekoen artean izan da jaitsierarik handiena, — 7,2 puntukoa, % 18,5etik % 11,3ra).

Azken hamarkadan, 25-64 urtekoen artean, gora egin du udalak euskararen alde egiten duen lana egokia dela eta asko egiten duela uste dutenen ehunekoak. 25 urtetik beherakoen artean, eta 64tik gorakoen artean, aldiz, behera egin du.

50 urtetik aurrera, azken hamarkadan, gora egin du udalak euskararen alde egiten duen lana, gutxi egiten duelako, desegokia dela uste dutenen ehunekoak.

Azken hamar urteetan, biztanle gazteenen artean (16-24) eta helduenen artean (64 urtetik gorakoak) igo da gehien udalak euskararen alde egiten duen lanaren inguruko axolagabetasuna (“berdin zaie”).

83. TAULA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa, adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

		16 – 24 urte		25 – 34 urte		35 – 49 urte		50 – 64 urte		>64 urte		Guztira	
		2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Egokia, ez da gehiago egin behar (edo ezer ez)	<i>Nahikoa</i>	10,1	6,0	10,8	5,8	14,2	10,4	18,5	11,3	15,2	11,5	14,3	10,1
Egokia, asko egiten du	<i>Asko</i>	29,2	26,9	24,7	31,6	24,3	31,3	23,8	26,2	18,6	14,1	23,8	25,2
Desegokia, gutxi egiten du	<i>Gutxi</i>	22,5	17,9	29,7	28,4	27,4	25,5	18,9	20,4	7,8	16,0	23,2	21,3
Desegokia, gehiegi egiten du	<i>Gehiegi</i>	0,0	2,2	2,9	0,6	1,5	3,9	3,8	2,9	2,9	2,9	2,3	2,9
Berdin zaio		0,0	20,1	0,4	9,0	1,6	6,4	0,7	12,6	4,4	25,8	1,5	14,4
Ed/Ee		38,2	26,9	31,5	24,5	31,0	22,6	34,3	26,6	51,0	29,7	34,9	26,0
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

d. Jaioterriaren arabera

Euskal Herrian jaio den biztanleria da neurri handienez uste duena udala euskara sustatzeko egiten ari den lana egokia dela eta “asko egiten ari dela” (% 30,3), baina baita ere, neurri handienez uste duena udalaren lana desegokia dela, gutxi egiten duelako (% 24,2). Jatorri horretakoak dira, halaber, neurri txikienez uste dutenak udalak gehiegi egiten duela (% 1,8) edo gai hori berdin zaiela gutxien adierazi dutenak (% 11,2).

Azken hamarkadan, Trebiñuko enklabetik eta Euskal Herritik kanpo jaiotakoen artean areagotu da gehien udalak euskara sustatzeko egiten duen lana egokia dela (“ez da-goela gehiago egin beharrik”) uste dutenen ehunekoa. Jatorri horietakoen artean jaitsi da gehien, halaber, udalaren lana egokia dela eta hizkuntzaren sustapenaren alde asko egiten duela uste dutenen ehunekoa (8,5 puntu).

Azken hamar urteetan, Trebiñuko enklabetik eta Euskal Herritik kanpo jaiotakoen artean areagotu da, batez ere, gai horrekiko ezaxolak direnen ehunekoa.

84. TAULA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa, jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

		Jaioterria						Guztira	
		Trebiñuko enklabea		Euskal Herria		Beste nonbait			
		2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Egokia, ez da gehiago egin behar (edo ezer ez)	Nahikoa	16,7	13,1	11,3	8,9	18,0	10,5	14,3	10,1
Egokia, asko egiten du	Asko	20,5	22,9	24,4	30,2	25,3	16,8	23,8	25,2
Desegokia, gutxi egiten du	Gutxi	18,3	18,9	29,6	24,2	14,8	16,8	23,2	21,3
Desegokia, gehiegi egiten du	Gehiegi	2,2	4,4	2,0	1,8	3,0	4,3	2,3	2,9
Berdin zaio		3,2	16,2	1,4	11,2	0,3	20,0	1,5	14,4
Ed/Ee		39,1	24,6	31,2	23,7	38,8	31,6	34,9	26,0
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

e. Euskara-gaitasunaren arabera

Biztanle euskaldun hartzaileak dira, euskaldunen aurretik, gutxigatik, neurri handi-
nean uste dutenak udalak euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egiten duen
lana egokia dela eta asko egiten duela (% 35,8 eta % 34,6). Multzo horiek dira, halaber,
neurri handienera uste dutenak udalaren lana desegokia dela, gutxi egiten duelako
hizkuntza horren alde (% 32,6 eta % 26,6, hurrenez hurren).

Biztanle erdaldunen artean daude udalak euskara sustatzeko egiten duen lana
“berdin zaiela” dioten (% 18,5) eta iritzirik eman ez dutenen (% 29,1) ehuneko han-
dienak.

Azken hamar urteetan, azpimarratzeko modukoa da:

- Biztanle euskaldunen artean 18,7 puntuko jaitsiera izan da udalak euskara sus-
tatzeko egiten duen lana, gutxi egiten duelako, desegokia dela adierazi dute-
nen ehunekoan (% 45,3tik % 26,6ra).
- Biztanle euskaldunen eta euskaldun hartzaileen artean, 12 eta 10 puntuko
igoera izan da, hurrenez hurren, udalaren lana egokia dela eta euskara sus-
tatzeko asko egiten ari dela uste dutenen ehunekoan (lehen biztanle-taldean
% 22,4tik % 34,6ra igo da, bigarrenen % 24,9tik % 35,8ra).

- Biztanle erdaldunen artean 6,5 puntu jaitsi da udalaren lana egokia dela eta euskararen sustapenaren alde asko egiten ari dela uste dutenen ehunekoa. Eta 16,7 puntu igo da gai horren inguruko axolagabetasuna (“berdin zaie”).

85. TAULA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa, euskara-gaitasunaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

		Euskara-gaitasuna						Guztira	
		Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak			
		2012	2022	2012	2022	2012	2022	2012	2022
Egokia, ez da gehiago egin behar (edo ezer ez)	Nahikoa	6,5	9,4	10,3	6,0	16,8	11,2	14,3	10,1
Egokia, asko egiten du	Asko	22,4	34,6	24,9	35,8	23,8	19,7	23,8	25,2
Desegokia, gutxi egiten du	Gutxi	45,3	26,6	33,6	32,6	16,2	17,3	23,2	21,3
Desegokia, gehiegi egiten du	Gehiegi	0,5	0,6	1,6	0,9	2,9	4,1	2,3	2,9
Berdin zaio		1,0	8,0	0,8	5,1	1,8	18,5	1,5	14,4
Ed/Ee		24,4	20,8	28,9	19,5	38,5	29,1	34,9	26,0
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

f. Erroldatzearen arabera

Udalak euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egiten duen lana baloratzeko orduan, ez dago alde handirik erroldatuta dagoen eta erroldatuta ez dagoen biztanleriaren artean.

Azken hamar urteetan nabarmendu daiteke:

- Erroldatuen artean 4,1 puntu jaitsi da udalaren lana nahikoa dela (“egokia da eta ez dago gehiago egin beharrik”) adierazi dutenen ehunekoa; erroldatuta ez dauden biztanleen kasuan, jaitsiera hori apalagoa da (3,5 puntu).
- Erroldatuta dauden biztanleen artean 0,7 puntu igo da udalaren lana egokia dela eta euskararen alde asko egiten duela adierazi dutenen ehunekoa; erroldatuta ez dauden artean igoera hori handiagoa da (5,3 puntu).
- Erroldatuta dauden biztanleen artean 0,7 puntu jaitsi da udalaren lana, gutxi egiten duelako, desegokia dela uste dutenen ehunekoa; erroldatuta ez dauden kasuan, jaitsiera handiagoa da (4,7 puntu).

- Erroldatuen artean puntu bat jaitsi da udalaren lana desegokia dela eta gehiegi egiten ari dela adierazi dutenen ehunekoa; erroldatuta ez dauden artean jaitsiera hori 1,2 puntukoa da.
- Erroldatuen artean 12,2 puntu igo da gai horrekiko ezaxolak direnen ehunekoa (“berdin zaie”); erroldatuta ez dauden artean igoera hori handiagoa da (15,1 puntu).
- Erroldatuen artean 9,2 puntu jaitsi da gai horren inguruan iritzirik ematen ez dutenen ehunekoa (ez dakite/ez dute erantzuten); erroldatuta ez dauden artean, jaitsiera hori handiagoa da (13,4 puntu).

86. TAULA: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Udala egiten ari den lanaren balorazioa, erroldatzearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2022 (%)

		Trebiñuko konderria		Argantz		Trebiñuko enklabea			
		Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria	Erroldatu gabeko biztanleria	Erroldatutako biztanleria		Erroldatu gabeko biztanleria	
		2022	2022	2022	2022	2012	2022	2012	2022
Egokia, ez da gehiago egin behar (edo ezer ez)	Nahikoa	5,9	5,9	19,3	19,0	14,5	10,4	13,4	9,9
Egokia, asko egiten du	Asko	23,1	22,9	30,2	29,8	24,8	25,5	19,7	25,0
Desegokia, gutxi egiten du	Gutxi	27,1	23,8	12,2	10,7	22,9	22,2	24,5	19,8
Desegokia, gehiegi egiten du	Gehiegi	2,6	1,1	6,1	3,9	2,7	3,7	0,7	1,9
Berdin zaio		15,4	15,7	11,3	14,6	1,8	14,0	0,3	15,4
Ed/Ee		25,8	30,6	20,9	22,0	33,4	24,2	41,4	28,0
GUZTIRA		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS 2012 eta Siadeco 2022.

6.

Sintesi soziolinguistikoa

6.1. EUSKARAREN IKASKETA ETA EZAGUTZA

■ 3 urte bete arte ikasitako hizkuntza: lehen hizkuntza

Gaur egun, Trebiñuko enklabean bizi diren biztanleen % 90,9k gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso zuen haurtzaroan, lehen hizkuntza gisa, 3 urtera arte; % 6,8k euskara eta gaztelania eta % 2,3k euskara bakarrik.

Azken hamar urteetan, igoera izan da haurtzaroan euskara eta gaztelania edo euskara bakarrik ikasi dutenei dagokienez. Horrela, 2012an, % 3,1ek euskara eta gaztelania zituena lehen hizkuntza (% 6,8 gaur egun) eta % 1,6k euskara bakarrik (% 2,3k gaur egun).

■ Hizkuntza-eredua lehen hezkuntzan

Trebiñuko enklabeko biztanleen % 60,4k X ereduari Gaztelaniaz egin dituzten bere oinarritzko ikasketak (antzekoa zen ehunekoa 2012an —% 59,6—).

Azken hamar urteetan gora egin du oinarritzko ikasketak D ereduari Euskaraz egin dituztenen ehunekoa, 5,9 puntu (% 14,2tik % 20,1era pasa da), baita B ereduari Elebitan egin dituztenenak ere (% 5,2tik % 5,6ra); modu nabarmenean jaitsi da, aldiz, A ereduari Gaztelaniaz egin dituztenen ehunekoa (% 21etik % 13,9ra).

■ Euskararen ikasketa hezkuntza-sistematik kanpo

Biztanleen % 80k ez du euskara ikasi hezkuntza-sistemaz aparte, hau da, irakaskuntza-zentro arautuetatik kanpo. % 11,1ek udako ikastaroren bat egin duela adierazi du,

eta % 8,9k udara batean baino gehiagotan. 2012tik 2022ra, udararen batean euskara ikasi duten pertsonen ehunekoak gora egin du (% 6,5etik % 11,1era), eta behera udararen batean baino gehiagotan egin dutenenak (% 14,5etik % 8,9ra). Ondorioz, azken hamarkada honetan, irakaskuntza-sistematik kanpo euskara inoiz ikasi ez duen biztanleriaren ehunekoa 0,9 puntu igo da (% 79,1etik % 80ra).

Badirudi, hezkuntza-sistemaz kanpoko euskararen ikasketa-prozesuan, jarraikortasuna nahiko erlatiboa dela, eta esporadikoa: “probatu egiten da, baina ez zaio jarraipenik ematen”.

■ Trebetasun linguistikoak

Trebiñuko enklabeko bi urte edo gehiagoko biztanleen % 32,1ek ondo edo nahiko ondo ulertzen du euskaraz. % 30,6k ondo edo nahiko ondo hitz egiten du (biztanle euskaldunak dira). Eta % 30,2k ondo edo nahiko ondo idazten du hizkuntza horretan. Ehunekoak oso antzekoak dira hizkuntza-trebetasun guztietan, bai igorleetan (hitz egitea eta idaztea), bai hartzaileetan (ulertzea eta irakurtzea), bai hizkuntzaren ikaskuntza “naturalarekin” (ulertzea eta hitz egitea) lotutakoetan eta baita ikaskuntza “kulturalarekin” (irakurtzea eta idaztea) lotutakoetan ere.

2012tik 2022ra, lau hizkuntza-trebetasunetan izan da hobekuntza. Euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko gaitasunean 7,3 puntu, euskara ondo edo nahiko ondo hitz egitekoan 8,7 puntu, ondo edo nahiko ondo irakurtzekoan 11,3 puntu eta ondo edo nahiko ondo idazteko gaitasunean 11,7 puntu. Euskararen ikasketa kulturalarekin lotutako trebetasunak dira hobekuntza handiena izan dutenak (irakurtzekoa eta idaztekoa).

■ Biztanle euskaldunak eta euskaldun hartzaileak

Gaur egun, Trebiñuko enklabeko 2 urteko edo gehiagoko biztanleriaren % 30,6 euskalduna da (ondo edo nahiko ondo hitz egiten du euskaraz) eta % 12 euskaldun hartzailea (zertxobait hitz egiten du euskaraz).

Azken hogei urteetan, Trebiñuko enklabeko biztanleria euskaldunaren ehunekoak gora egin du, modu progresiboan: 2002 urtean % 11koa zen, 2007an % 15,5ekoa, 2012an % 21,9koa eta 2022an % 30,6koa. Hazkunde-prozesu hori oso garrantzitsua da hizkuntzaren etorkizunari begira, lurralde horretan. Funtsezkoa da euskararen eza-gutzak bizitasuna izan dezan biztanleen artean. 2012 eta 2022 artean 8,7 puntu da biztanle euskaldunen ehunekoa: urteko 0,87 puntu, batez beste; biztanle euskaldun hartzaileen artean, aldiz, behera egin du: % 16,8tik % 12ra, urteko 0,48 puntuko batez besteko jaitsierarekin.

■ Euskararen ikasketa: familia bidezko transmisioa edo ikasketen bidezkoa

Trebiñuko enklabeko pertsona euskaldunen (% 30,2) % 51,1ek hezkuntza-sistemaren bidez jaso du euskara, % 27,9k familia bidezko transmisioaren bitartez eta % 21ek hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi du.

Azken hamarkadan, familia bidezko transmisioak gora egin du (% 20,1etik % 27,9ra), eta hezkuntza-sistemaren bidezkoak behera (% 59,4tik % 51,1era).

■ Hizkuntza-gaitasun erlatiboa

Trebiñuko enklabeen bizi diren biztanle euskaldunen % 57,3k adierazi du errazago hitz egiten duela gaztelaniaz, % 39,4k uste du erraztasun berdina duela euskaraz eta gaztelaniaz eta % 3,3k bakarrik dio euskaraz errazago aritzen dela.

Azken 10 urteetan, euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdinarekin hitz egiten dutenen portzentajeak 5,4 puntuko igoera izan du (% 34tik % 39,4ra). Euskara errazago egiten dutenenak ere gora egin du (% 2,8tik % 3,3ra).

6.2. EUSKARAREN ERABILERA

■ Euskararen erabilera eguneroko bizitzan

Trebiñuko enklabeko biztanleek, oro har, honela erabiltzen dute euskara, neurri handiagoan edo txikiagoan:

- Ikaskideekin % 62,2 (% 16,7k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 20,9k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, eta % 24,6k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- 25 urtetik beherako neba-arrebekin % 30,3 (% 15,7k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 11,4k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste eta % 3,2k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago).
- Lagunekin % 19,1 (% 10,5k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 6,1k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, % 2,5k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).
- Lanean % 14,1 (% 5,8k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 4,3k gaztelaniaz euskaraz bezainbeste, eta % 4k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).

- Etxean % 13,7 (% 7,5ek gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, % 4,3k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste eta % 1,9k euskaraz gehiago edo beti euskaraz).

Azken hamar urteetan, euskararen erabilera, neurri handiagoan edo txikiagoan: 3,3 puntu areagotu da etxean (% 10,4tik % 13,7ra), lagunekin berdin mantendu da (% 19,1), lanean 5,9 puntu igo da (% 8,2tik % 14,1era) eta 25 urtetik beherako neba-arreben artean 3,8 puntu jaitsi da (% 34,1etik % 30era).

■ Euskararen ezagutza pertsona euskaldunen harreman-sarean

Biztanle euskaldunen gizarte-sare linguistikoei dagokienez, ikusten da hezkuntza dela euskara ezagutzen duten pertsonen dentsitate handieneko eremua. Lagunartea hurrengoa eta lan-arloa azkena. Izan ere:

- Ikasten ari diren biztanle euskaldunen % 90,8k adierazi du bere ikaskide guztiek edo gehienek badakitela euskaraz.
- Biztanle euskaldunen % 59,2k adierazi du bere lagun gehienek dakitela euskaraz, % 16,6k adierazi dute erdiek baino gehiagok dakitela, % 12,5ek erdiek dakitela, % 9,2k erdiek baino gutxiagok eta % 2,6k adierazi dute inork ez edo ia inork ez dakiela euskaraz.
- Lanean ari diren biztanle euskaldunen % 31,2k adierazi du lankide guztiek edo gehienek badakitela euskaraz. % 13,6k erdiek baino gehiagok dakitela, % 14,4k erdiek dakitela, % 21,2k erdiek baino gutxiagok eta % 19,3k inork ez edo ia inork ez.

Azken hamar urteetan, nabarmentzekoa da, lanean ari diren biztanleen artean, lankide guztiak edo ia guztiak euskaldunak dituztenen ehunekoa handitu egin dela (13,9 puntuko igoera, % 17,3tik % 31,2ra), hizkuntza hori lan arloan erabiltzeko aukerak areagotuz.

Neurri apalagoan bada ere, antzeko zerbait gertatu da lagunekin ere, lagun guztiak edo ia guztiak euskaldunak dituztenen ehunekoak 7,9ko igoera izan baitu, % 51,3tik % 59,2ra pasa da.

Denbora-tarte horretan bertan, ikasten ari diren biztanleen artean, ikaskide guztiak edo ia guztiak euskaldunak dituztenen ehunekoan jaitsiera txiki bat izan da (% 93,2tik % 90,8ra pasa da portzentajea).

■ Euskararen erabilera 25 urtetik beherako neba-arrebekin

Biztanle euskaldunen % 47,7k gaztelania bakarrik erabiltzen du 25 urtetik beherako neba-arrebekin, % 27k gaztelania euskara baino gehiago, % 19,8k euskara eta gaztela-

nia berdina eta % 6,5ek euskara bakarrik. Hortaz, euskararen erabilera, erabilera-maila ezberdinak kontuan hartuz, % 52,3koa da.

Azken hamar urteetan, 25 urtetik beherako neba-arrebekin gaztelaniaz bakarrik ari- tzen diren biztanle euskaldunen ehunekoak gora egin du, 3,3 puntu (% 44,4tik % 47,7), gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen dutenenak behera, 4,4 puntu (% 31,4tik % 27ra), euskara eta gaztelania berdina erabiltzen dutenenak gora, 1,6 puntu (% 17,6tik % 19,8ra) eta euskara bakarrik erabiltzen dutenenak behera, 1,1 puntu (% 6,6tik % 5,5era). Hortaz, euskararen erabilera, erabilera-maila ezberdinak aintzat hartuta, 2,4 puntuko jaitsiera izan du azken hamarkadan.

■ Euskararen erabilera lagunekin

Trebiñuko enklabeko biztanleen % 19,1ek, gehiago edo gutxiago, baina euskara era- biltzen du lagunekin (% 10,5ek gaztelania euskara baino gehiago, % 6k euskara eta gaztelania neurri berean eta % 2,5ek euskara gehiago).

Azken hamar urteetan ikusten da, adinaren arabera, lagunarteko euskararen erabile- rak gora egin duela, 24 urtera arte (2-15 urtekoen artean 10 puntu, 16-24koen artean 3,2 puntu), baina adin horretatik aurrera, euskararen erabilera behera egin du.

■ Euskararen erabilera interneten eta/edo sare sozialetan

Trebiñuko enklabeko bi urte eta gehiagoko biztanleen % 46,5ek egunero erabiltzen ditu Internet eta/edo sare sozialak (Instagram, Facebook, Twitter), % 3,9k astean bi edo hiru aldiz, % 1,1ek asteburuetan eta % 12,1ek noizean behin. Beraz, % 63,6k erabil- tzen ditu, maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, sare sozialak (% 36,4k ez ditu inoiz erabiltzen).

Azken hamar urteetan, Interneten eta sare sozialen erabilera igoera handia izan da. Izan ere, 2012tik 2022ra sare sozialak egunero erabiltzen dituztenen portzentajea 24,1 puntuko hazkundera izan da, % 22,4tik % 46,5era.

Trebiñuko biztanleriak sare sozialetan erabiltzen duen hizkuntzari dagokionez, batez beste, % 89,9k erabiltzen du gaztelania, % 4,9k ingelesa, % 3,9k euskara eta % 1,3k beste hizkuntza batzuk. Agerian gelditzen da euskararen batez besteko erabilera in- gelesaren azpitik dagoela.

6.3. EUSKARAREN INGURUKO INTERESA ETA IRITZIAK

■ Euskararekiko interesa

15 urtetik gorako Trebiñuko enklabeko biztanleen % 45,5ek (guztien % 85,2k du adin hori) adierazi du interes handia (% 25,8) edo nahiko handia (% 19,7) duela euskararen inguruan. % 20k zertxobait eta % 34,6k gutxi (% 17,1) edo ezer ez (% 17,5).

Azken 20 urteetan, euskararekiko interes handia duten 15 urtetik gorako biztanleen ehunekoak gora egin du, 14,8 puntu (% 11tik % 25,8ra), eta azken hamar urteetan 10,4 puntukoa izan da igoera (% 15,4tik % 25,8ra).

Aitzitik, euskararekiko inolako interesik ez duten 15 urtetik gorako biztanleen ehukoak behera egin du, 19,5 puntu (% 37tik % 17,5era 2002tik 2022ra), eta azken hamar urteetan, 6,4 puntukoa izan da jaitsiera (% 23,9tik % 17,5era).

■ Haurrek zein hizkuntza-eredutan ikasi behar luketen

Trebiñuko enklabeko 15 urtetik gorako biztanleen % 50,2k adierazi du, eskola-adineko seme-alabak edukiko balitu, nagusiki euskaraz ikastea nahi lukeela; % 30,3k gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, % 8,5ek gaztelaniaz eta ingelesez eta % 8,2k gaztelaniaz eta ingelesez, euskara irakasgaiarekin. Agerian gelditzen da, beraz, seme-alaben hezkuntza-prozesuan ingelesari ematen zaion garrantzia.

Azken hamar urteetan hazkunde nabarmena izan du seme-alabek nagusiki euskaraz ikas dezaten nahi luketenen ehunekoak (22,6 puntuko igoera, % 27,6tik % 50,2ra). Aitzitik, jaitsiera nabarmena izan da seme-alabek gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez ikas dezaten nahi luketenen ehunekoan (15,4 puntuko jaitsiera, % 45,7tik % 30,3ra).

Azken hamarkadan behera egin du, halaber, seme-alabek euskaraz eta ingelesez ikas dezaten nahi luketenen ehunekoak (4,1 puntuko jaitsiera, % 12,6tik % 8,5era). Seme-alabek gaztelaniaz eta ingelesez ikastea eta euskara irakasgai gisa edukitzea nahi luketenen ehunekoak ere behera egin du (5,6 puntu, % 13,8tik % 8,2ra).

■ Zein hizkuntzatan irakatsi beharko litzatekeen eskola publikoan

Biztanleen % 39k adierazi du Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela; % 36,5ek nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela, % 9,8k gaztelaniaz eta ingelesez; eta antzeko ehuneko batek, gaztelaniaz eta ingelesez, euskara irakasgaiarekin.

Azken hamar urteetan, gora egin du, modu nabarmenean, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza nagusiki euskaraz egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoak (bikoiztu egin da, % 18,2tik % 36,5era); horrekin batera, jaitsiera esanguratsua izan da irakaskuntza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoan (14,2 puntuko jaitsiera, % 53,2tik % 39ra). Behera egin du, baina gutxiago, Trebiñuko eskola publikoan irakaskuntza gaztelaniaz eta ingelesez egin beharko litzatekeela (% 13,7tik % 9,8) uste dutenen ehunekoak. Gaztelaniaz eta ingelesez, euskara irakasgaiarekin egin beharko litzatekeela uste dutenenak ere bai (% 13,4tik % 9,8ra).

■ **Haurrentzako eskolaz kanpokoak eta jarduera ludikoak zer hizkuntzatan egin beharko liratekeen**

Trebiñuko enklabeko 15 urtetik gorako biztanleen % 67,8k uste du eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdiko jarduerak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko liratekeela haurrentzat. % 16,3k adierazi du euskaraz bakarrik egin beharko liratekeela, eta % 9,9k gaztelaniaz bakarrik egin beharko liratekeela.

Azken hamar urteetan jaitsiera txiki bat izan da eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera ludiko horiek gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoan (4,5 puntukoa, % 72,3tik % 67,8ra). Jaitsiera txikia izan da, halaber, gaztelaniaz egin beharko liratekeela adierazi dutenen ehunekoan (0,8 puntu, % 10,7tik % 9,9ra), eta igoera txikia euskaraz bakarrik egin beharko liratekeela uste dutenen ehunekoan (0,7 puntu igo da, % 15,6tik % 16,3ra). Bestalde, nabarmendu behar da 4 puntuko hazkuntza izan dela gai horren inguruko iritzirik eman ez dutenen ehunekoan (ez daki/ez du erantzuten).

■ **Trebiñuko enklabeko kaleetako errotuluak zer hizkuntzatan jarri behar lituzketen**

15 urtetik gorako biztanleen % 81,8k adierazi du Trebiñuko enklabeko kaleetako errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jarri behar lituzketela. % 10,7k uste du soilik gaztelaniaz jarri behar lituzketela eta % 4,8k soilik euskaraz jarri behar lituzketela. % 2,7k ez du iritzirik eman.

Azken hamar urteetan 16,2 puntu areagotu da euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz bakarrik errotulatzeko aukera (2012an % 65,6 izatetik 2022an % 81,8 izatera). 13,5 puntu jaitsi da gaztelaniaz soilik errotulatzeko aukera (% 25,2tik % 10,7ra), baita euskaraz bakarrik errotulatzekoa ere (% 7,7tik % 4,8ra).

■ Euskara sustatzeko udalek egiten duten lanaren balorazioa

Trebiñuko enklabeko 15 urtetik gorako biztanleen % 25,2k uste du udala euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egiten ari den lana egokia eta handia dela. Beste % 10,1ek uste du egokia dela, baina nahikoa (“ez dela gehiago egin behar”).

% 21,3k uste du lan hori desegokia dela: udalak gutxi egiten duela sustapen horren alde.

% 2,9k ere desegokitzat jotzen du, baina gehiegi egin duela uste duelako (“gehiegi egiten du hizkuntza hori sustatzeko”).

% 14,4k adierazi du berdin zaiola udala zer egiten ari den euskara sustatzeko, ezaxolak direla esan genezake.

% 26k ez du iritzirik eman gai horri buruz (ez daki edo ez du erantzun).

Azken hamar urteetan 4,3 puntu jaitsi da udalak euskara sustatzeko egiten duen lana egokia eta nahikoa dela adierazten duten biztanleen ehunekoa: “ez da gehiago egin behar” (% 14,3tik % 10,1era igaro da). Eta 1,4 puntu igo da, halaber, lan hori egokia dela eta euskara sustatzearen alde lan handia egiten dela uste dutenen ehunekoa (% 23,8tik % 25,2ra igaro da).

Udalak gutxi egiten duela uste dutenen ehunekoak behera egin du, 1,9 puntu (% 23,2tik % 21,3ra). Gehiegi egiten duela uste dutenenak, aldiz, gora, 0,7 puntu (% 2,3tik % 2,9ra).

Azken hamar urteetan, nabarmentzeko modukoa da 12,9ko hazkundea izan dela ezaxolen artean —“berdin zaie”—, 2012ko % 1,5etik 2022ko % 14,4ra. Nabarmentzeko modukoa da, halaber, iritzirik eman ez dutenen jaitsiera, 8,9 puntukoa (% 34,9tik % 26ra).